

1. ERANSKINA

LANBIDE ERREFERENTEA

A) *Eskubaloiko erdi mailako hasierako zikloa.*

a) Gaitasun orokorra.

Eskubaloiko erdi mailako hasierako zikloko gaitasun orokorra honetan datza: eskubaloiko kirolaren hastapena zehaztean, irakastean eta dinamizatzean, jokalaria antolatuz, zainduz eta haiei lagunduz, hasiera mailari dagozkion lehiaketetan eta beste jardueren batzuetan parte hartzen dutenean; betiere, erreferentziako programazioan ezarritako jarraibideen arabera, segurtasunez, eta kalitate maila optimoarekin, parte-hartzaileak pozik gelditu daitezkeen jarduerarekin.

b) Lanbide gaitasunak, gaitasun pertsonalak eta sozialak:

- 1) Kirol modalitateko teknikak ongi jakitea, eskubaloiko kirol hastapenari dagozkion zereginak garatzeko behar beste.
- 2) Jokalariei harrera egitea, jardueraren ezaugarrien berri emanez, haren motibazio eta interesei buruz informazioa jasoz, eta eskubaloia praktikatzera bultzatuz.
- 3) Jokalarien abilezia eta trebetasun espezifikoak baloratzea, horien maila zehazteko, eta, hala, talde batean sar daitezela proposatzeko eta neurri zuzentzaile egokiak hartzeko.
- 4) Eskubaloien hastapenean irakaskuntza-ikaskuntzako saioa zehaztea, erreferentziako programazioarekin bat, taldera eta dauden baldintza materialek egokituz, kontuan izanik balio hauek transmititzea: ohitura osasungarriak eta norberaren gorputza errespetatzea eta zaintzea.
- 5) Eskubaloien hastapenean irakaskuntza-ikaskuntzako saioa zuzentzea, agertzen diren gorabeherak konponduz, proposatutako helburuen arabera parte-hartzea eta errendimendua lortzeko, betiere beharrezkoak diren ingurumen arauarekin eta segurtasun tarteekin bat.
- 6) Kirol modalitatearen hastapen mailako jarduerako segurtasuna kontrolatzea, gainbegiratu erabiltzen diren instalazioak eta bitartekoak, eta aurkitzen diren arrisku egoeretan lagunduz edo erreskatatuz.
- 7) Lehen esku-hartzea egitea istripuan edo larrialdi egoeran.
- 8) Jokalaria aukeratzea mailaren eta ezaugarrien arabera, egiaztatuz egokitzen direla hastapen mailako kirol lehiaketaren eskakizunetara, proposatutako helburuak errespetatuz eta segurtasun tarte handienei jarraikiz.
- 9) Hastapen mailari dagozkion lehiaketetan eta bestelako jardueretan jokalariei laguntzea, esperientzia motibatzailea eta segurua emateko.
- 10) Jokalaria zuzentzea hastapen mailako lehiaketetan, betiere joko garbiaren eta besteenganako errespetuaren balio etikoen barnean, eta haien erantzukizuna eta eginahal pertsonala indartuz.
- 11) Eskubaloiko nukleoak sortzen eta garatzen laguntzea eta haietan esku-hartzea, baita eskubaloiko lehiaketa txikiak eta ekitaldiak antolatzen eta kudeatzen ere laguntzea, zertarako eta eskubaloiko jokalaria hartzea, atxikitzea eta fidelizatzea lortzeko.
- 12) Saioaren eta lehiaketaren garapena baloratzea, behar den informazioa jasoz eta prozesatuz, egoki diren erabakiak hartzeko, eta hala egokitze eta hobetzeko ikaskuntza-irakaskuntzaren prozesu iraunkorra eta eskubaloien hastapeneko jarduerak.
- 13) Norberaren jokaera etikoaren bidez transmititzea honako balio hauek: joko garbia, besteenganako errespetua eta norberaren gorputzaren zainketa.
- 14) Norberaren erantzukizunaren, eginahalaren eta berrikuntzaren espirituari eustea, kirol teknikariaren eginkizunen barnean.
- 15) Ekimenari eta autonomiari eustea eginkizunak betetzeko talde lanaren barnean.
- 16) Emakumeen eta gizonen irudiei buruzko ikuspegi kritikoa garatzea eta estereotiporik gabeko irudi anitza ematea.

c) Kualifikazioak eta gaitasun unitateak.

Eskubaloiko erdi mailako hasierako zikloak barnean hartzen du AFD674–2 Eskubaloiko kirol hastapeneko kualifikazio osoa, zeinak honako gaitasun unitate hauek biltzen baititu:

UC2273_2: Eskubaloi kirolean hasteko ekintza tekniko taktikoak egitea.

UC2274_2: Eskubaloian hasteko saio sekuentziatuak zehaztea, zuzentzea eta dinamizatzea.

UC2275_2: Sustatzeko eta laguntzako ekintzak dinamizatzea eskubaloiko ekitaldi eta lehiaketetan.

UC0272_2: Lehen esku-hartzea egitea istripuan edo larrialdi egoeran.

d) Lanbide, lan eta kirol arloetako ingurunea.

Titulua lortzen duten profesionalak eremu publikoan garatzen dute lanbide jarduera, bai Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetako administrazioetan edo toki administrazioetan, bai entitate pribatuetan –izan enpresa handi, ertain edo txikiak–, kirol patronatuetan, udalen kirol entitateetan, federazioetan eta kirol eta gizarte klubetan, eskubaloiko eskoletan eta kirol hastapeneko zentroetan, ikastetxeetan, kirol zerbitzuen enpresetan, eskubaloiko campusetan eta abarretan, non kirol eta jolas jarduerak eskaintzen diren eskubaloia ezagutu eta hartan hastearekin loturik.

Kirolaren, turismoaren, aisiaren eta astialdiaren sektoreetan dago.

Honako hauek dira profesional horientzako lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak:

–Eskubaloian hasteko entrenatzailea.

–Eskubaloiko eskoletako hezitzailea.

Enplegu publikoan sartzeko indarreko araudian aurreikusitako printzipioekin eta beharkizunekin bat etorritik beteko dira eremu publikoko ogibide eta lanpostu horiek.

B) Eskubaloiko erdi mailako bukaerako zikloa.

a) Gaitasun orokorra.

Eskubaloiko erdi mailako bukaerako zikloaren gaitasun orokorra honetan datza: eskubaloiko kirol teknifikazioko etapan oinarritzko entrenamendua eta hobekuntza teknikoa egokitzean, zehaztean, zuzentzean eta dinamizatzean; kirolariak antolatzean, haiei laguntzean eta haien tutore izatean maila horretako jarduera, lehiaketa eta ekitaldietan parte hartzen duten bitartean; beharrezkoak diren baliabide materialak kudeatzea eta norberaren kargu dauden teknikarien jarduerak koordinatzea; kirolaren hastapen mailako jarduerak, lehiaketak eta ekitaldiak antolatzea; hori guztia erreferentziako programazioan ezarritako jarraibideen arabera eginen da, segurtasunez eta kalitate maila egokiarekin, jardueran parte hartzen duten kirolariak ase gera daitezen.

b) Lanbide gaitasunak, gaitasun pertsonalak eta sozialak.

- 1) Kirolariak balioestea eta hautatzea mailaren eta ezaugarrien arabera, kirola teknifikatzeko erreferentziako programazioa egokitzeke.
- 2) Eskubaloiko kirola teknifikatzeko etaparen berezko etekin faktoreak entrenatzeko programak eta saioak egokitzea eta zehaztea, programazio orokorra kontuan hartuta, eta praktika osasungarriaren balioen transmisioa eta norberaren gorputzarekiko errespetua eta zaintza ere aintzat hartuta.
- 3) Eskubaloiko kirola teknifikatzeko etapako oinarritzko entrenamendu saioa zuzentzea, suertatzen diren gertakariei irtenbidea emanez, proposatutako helburuen arabera parte-hartzea eta errendimendua lortzeko, betiere beharrezkoak diren ingurumen arauarekin eta segurtasun tarteekin bat.
- 4) Teknifikazio mailetan kirolariak zuzentzea, horretarako orientabide teknikoak eta taktikoak ematea eta erabaki egokiak hartzea lehiaketa garatzeko, taldearen kohesioa eta funtzionamendua sustatzeko.

- 5) Kirol hastapenari dagozkion ekitaldiak antolatzea, eta eskubaloiko lehiaketetan eta teknifikazio ekitaldietan laguntzea eta esku hartzea, kirolaria kirol honen praktikara erakartzeko eta haren atxikipena eta leialtasuna lortzeko.
 - 6) Kirol hastapenaz arduratzen diren beste teknikari batzuk koordinatzea, haien programazioa berrikusiz eta baliabide materialak eta giza baliabideak antolatuz, guztia ere teknikari horien arteko harremanak dinamizatzeko eta lortzeko.
 - 7) Kirol teknifikazioko prozesua ebaluatzea, judizioak egiteko behar den informazioa bilduz eta kirol modalitatearen teknifikazioaren berezko jardueren oinarrizko entrenamendua eta hobekuntza etengabe hobetzeko aukera ematen duten programak doitzuz.
 - 8) Norberaren jokaera etikoaren bidez transmititzea balio hauek: joko garbia, besteenganako errespetua eta zaldia eta norberaren gorputzaren errespetua eta zainketa.
 - 9) Eustea norberaren erantzukizunaren, eginahalaren eta berrikuntzaren espirituari, kirol teknikariaren eginkizunen barnean.
 - 10) Hondartzako eskubaloien hastapenetan jokoaren oinarriak, erregelamenduaren arau nagusiak eta espezialitate horretako eraso- eta defentsa-ekintza espezifikoak aplikatzea.
 - 11) Hondartzako eskubaloien hastapeneko eta teknifikazioko etapetako entrenamendua egokitzea, zehaztea eta zuzentzea, programazio orokorarekin bat, eta banakako zein taldeko ezaugarri espezifikoak, baliabide materialak eta ingurune baliabideak kontuan hartuta.
- c) Lanbide, lan eta kirol arloetako ingurunea.

Titulua lortzen duten profesionalek eremu publikoan garatzen dute lanbide jardura, bai Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetako administrazioetan edo toki administrazioetan, bai entitate pribatuetan –izan enpresa handi, ertain edo txikiak–, kirol patronatuetan, udalen kirol entitateetan, federazioetan, teknifikazio zentroetan, kirol eta gizarte klubetan, ikastetxeetan eta kirol zerbitzu enpresetan, eskubaloia campusetan eta abarretan, non kirol eta jolas jarduerak eskaintzen diren eskubaloien teknifikazioarekin loturik.

Kirolaren, aisiaren eta astialdiaren sektoreetan dago.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Eskubaloiko teknifikazioko entrenatzailea.
- Oinarrizko klubeko zuzendari teknikoa.
- Eskubaloia eskolatuko koordinatzailea.

Enplegu publikoan sartzeko indarreko araudian aurreikusitako printzipioekin eta beharrezkin bat etorritakoak dira eremu publikoko ogibide eta lanpostu horiek.

2. ERANSKINA

ESKUBALOIKO ERDI MAILAKO HASIERAKO ZIKLOAREN CURRICULUMA

A) *Eskubaloiko erdi mailako hasierako zikloaren helburu orokorrak.*

- a) Maila honi dagozkion eskubaloiko oinarrizko teknikak gauzatzea, behar den segurtasunez eta egindakoaz jabetuz, eredu izateko eskubaloien hastapeneko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- b) Jarduerari buruzko informazioa biltzea eta transmititzea eta parte-hartzaileei buruzko informazioa biltzea, informazioaren ezaugarriak kontuan hartuz eta ezarritako prozedurak aplikatuz, kirolariari arreta eta motibazioa emateko.
- c) Eskubaloien motrizitate espezifikoa aztertzea hasiera mailan, ezarritako prozedurak erabilia; eta kirolarien trebetasun eta gaitasun espezifikoak baloratzea mailak zehazteko eta taldeak egiteko.
- d) Jokoaren oinarrizko ezagutzak identifikatzea eta eskubaloien hastapenaren oinarrizko zerreginen ezaugarriak aztertzea, ikaskuntza egoerak zehazteko.

e) Erreferentziako programazioa eta saioaren antolamendua interpretatzea eta egokitzea, zereginak hautatzeko eta denboran antolatzeak irizpideak erabiliz, taldearen ezaugarriak eta dauden baldintza materialei buruzko informazioa bereiziz, eskubaloiko hastapenetako irakaskuntza-ikaskuntza saioa zehazteko.

f) Zuzendaritza teknikak eta gertakariak kontrolatzeko prozedurak aukeratu eta aplikatzea, behaketa eta kontrol tresnak aplikatuta eta praktikaldiko saioak ebatzita, modalitatearen hastapeneko irakaskuntza-ikaskuntzako saioak bultzatzeko.

g) Eskubaloiko kirol hastapenean, instalazioen eta bitartekoen segurtasun baldintzak identifikatzea, eta ezarritako prozedurak eta indarreko araudia aplikatzea, praktikatzean segurtasuna kontrolatzeko.

h) Lehen sorospinak deskribatzea, prestatzea eta gauzatzea, praktikaldiko saioen ezaugarriak identifikatuz eta ezarritako protokoloak aplikatuz, lehen esku-hartzaile izateko istripua edo larrialdi egoera gertatuz gero.

i) Kirol hastapenari dagozkion lehiaketen eta ekitaldien ezaugarriak identifikatzea, eta erregelamendua eta lehiaketa oinarriak aztertzea, kirolariak aukeratzeko horien mailaren eta ezaugarrien arabera.

j) Kirolarien inskripzio eta laguntza prozesuak identifikatzea eta deskribatzea, bai eta kirol hastapenak bereak dituen lehiaketa eta ekitaldien alderdi teknikoak, erregelamenduaren arabekoak eta taktikoak ere, praktikaldiko saioak aztertuz, ezarritako prozedurak aplikatuz eta erreferentziako erregelamenduak kontuan hartuz, guztia ere kirolariei laguntza eta gidaritza eskaintzeko hastapen mailako progresio bertikaleko teknikako lehiaketetan.

k) Eskubaloia garatzeko nukleoen ezaugarriak eta kirolean hasteko lehiaketen eta ekitaldien antolaketaren ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea, kirolean hasteko ekitaldien antolaketan eta kudeaketan parte hartzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak kontuan hartuta.

l) Jardueraren garapenean esku hartzen duten aldagaiak identifikatzea eta deskribatzea, ezarritako prozedurak aplikatuz eta lortutako informazioa sailkatuz, hastapen saioaren garapena eta lehiaketa baloratzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua doitzeko.

m) Balioak eta jarrerak eskuratzeko prozesuaren ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea, kirolariengan duten eraginez jabetuz eta horiek arrazoituz, norberaren portaera etikoaren bidez balioak transmititzeko.

n) Konpromisoaren, ongi egindako lanaren eta etengabeko ikaskuntzaren balioak onartzea eta sustatzea, balio horiek islatzen dituzten jarrerak deskribatuz, norberaren erantzukizunaren, ahalegiaren eta laneko berrikuntzaren espirituari eusteko teknikari lanean.

ñ) Talde-lanaren oinarri diren printzipioak identifikatzea eta transmititzea, lidergoak eta komunikazioak lantaldearen barruko ekimenari eta autonomiari eusteko duten garrantziaz jabetuz.

B) Modulu profesionalak.

a) Izena eta iraupena.

Eskubaloiko kirol teknikariaren hasierako zikloko multzo komun eta espezifikokoetako moduluak azaltzen dira zerrenda batean, eta horien izenak eta iraupena ere adierazten dira.

a.0) Sartzeko baldintza.

HASIERAKO ZIKLORA SARTZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOA	ORDUAK, GUZTIRA
Urriaren 19ko 900/2021 Errege Dekretuaren 20. artikulua RAE-MOSE101 proba espezifikoa, eskubaloiko erdi mailako hasierako zikloko ikasketetara sartzeko.	120

a.1) Multzo komuna.

KODEA	IZENA	ORDUAK, GUZTIRA
MED-C101	Kirol jokabidearen oinarriak	20
MED-C102	Lehen sorospinak	30

KODEA	IZENA	ORDUAK, GUZTIRA
MED-C103	Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	5
MED-C104	Kirol antolaketa	5

a.2) Multzo espezifikoak.

KODEA	IZENA	ORDUAK, GUZTIRA
MED-BMBM102	Jokoaren oinarritzko ezagutzak	50
MED-BMBM103	Eskubaloiaaren hastapeneko irakaskuntza	30
MED-BMBM104	Oinarritzko jardueren eta ekitaldien antolaketa	20
MED-BMBM105	Prestakuntza praktikoa	150

b) Lanbide moduluen garapena.

b.1) Multzo komuna.

Modulua: Kirol jokabidearen oinarriak

Kodea: MED-C101

Iraupena: 20 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu pertsonaren ezaugarri motor, psikologiko, afektibo eta sozialak, eta erlazio-natzen ditu haurtzaroko heldze-aldiekin.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira haurtzaroko heldze aldiak, eta identifikatu dira bakoitzaren bereizitasunak.
- b) Aplikatu dira informazioa biltzeko oinarritzko teknikak, pertsonaren datu adierazgarriak esku-ratzeko.
- c) Identifikatu dira jendearen haurtzaroko interes eta motibazio bereizgarriak.
- d) Deskribatu dira neska-mutilen ezaugarriak mugimenduaren eta psikologiaren aldetik, mugi-menduaren ikaskuntza prozesuaren lehen etapan.
- e) Erakutsi da kirolariaren berezko garapen osasuntsua errespetatzeko gogoia, haren heldutasun egoerarekin bat datorrena.
- f) Balioetsi da pertsonak aldi horietan gorputz eta kirol arloko esperientzia desberdinak izatearen eta goizegi ez espezializatzearen garrantzia.

2. Arreta ematen dio kirolariari, komunikatzeko eta motibatze hainbat teknika deskribatuz eta aplikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira komunikazioaren teknikak, ahozkoak eta bestelakoak, kirolaren ingurunea kontuan hartuta erabili ahal baitira.
- b) Aukeratu dira informazioa trukatzeko komunikazio teknika egokienak, baita materialaren eta ikasleen kokalekua ere.
- c) Hainbat modu identifikatu dira informazioa atzemateko eta hartan oinarrituta erabakiak har-tzeko.
- d) Identifikatu dira komunikazioa zailtzen duten oztopo eta interferentzia nagusiak.
- e) Balioetsi da pertsonen arteko harremanetan trebetasun sozialak eta komunikaziokoak izatearen garrantzia.
- f) Balioetsi da sexuen berdintasuna kontuan hartuko duen hizkuntza erabiltzearen garrantzia.
- g) Proposatutako zereginak aurkeztean, erabili dira komunikazioaren teknika eta estrategiak, eta parte hartze eta motibazio handiagoa lortu da.
- h) Balioetsi da pertsona guztien motibazioa eta gozamena mantentzearen garrantzia, giltzarria baita kirola egiten jarraitzeko eta hurrengo etapetan ez uzteko.
- i) Erakutsi da ikaskuntzaren prozesua emaitzaren gainetik balioesteko interesa.
- j) Balioetsi dira kirolari gazteen kirol hastapeneko autonomia, bat-batekotasuna eta sormena.

3. Taldea gidatzen du, gatazkak konpontzeko estrategiak eta talde dinamikak aukeratuz eta aplikatuz, testuinguruaren ezaugarrien arabera.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira taldearen kirol hastapeneko funtsezko ezaugarriak; batez ere harreman sozialen eta generoaren faktoreak kontuan hartuta.

- b) Deskribatu dira saioan gatazka iturri nagusiak, norberarenak zein taldekoak.
- c) Aplikatu dira informazioa biltzeko estrategiak, taldea hobeki ezagutzeko.
- d) Aplikatu dira elkarlanaren bidezko ikaskuntzan eta talde lanean oinarritutako talde dinamikak.
- e) Baliatu dira gatazkek taldean konpontzeko estrategiak, errespetu, zintzotasun, enpatia, konpromiso eta genero berdintasunaren balioak bultzatuz eta hedatuz.
- f) Identifikatu eta aplikatu dira kirolari taldea kontrolatzeko tresnak.
- g) Balioetsi da jarrera tolerantetaren eta enpatiaren garrantzia, taldearen konfiantza lortzeko.
- h) Jendearen interesak errespetatzeko gogoia erakutsi da, aurreiritziak saihestuz eta norberaren elementu bereizgarriak balioetsiz, hala nola emozioak, sentimenduak, nortasuna, sexua, ezaugarri morfologikoak, desgaitasuna, kultur jatorria eta gizarte maila, sexu orientazioa, genero adierazpena, sexu identitatea edo genero identitatea.
- i) Deskribatu dira neska-mutilen kirol hastapenean eragin positiboa edo negatiboa duten familia eta gizarte egoeraren alderdiak.
- j) Kirol hastapenean, aplikatu dira familia inguruaren edo gizarte egoeraren jarrera negatiboak zuzentzeko estrategia eta teknika egokiak.
- k) Familiaren eta gizarte egoeraren balio positiboen garrantzia aztertu da kirola praktikatzeko.

4. Transmitten dituen balio pertsonalak eta sozialak, teknika egokiak aplikatuz eta norberaren jarrera eta portaerei buruz gogoia eginez.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira kirolaren bidez hedatzen ahal diren balio pertsonalak eta sozialak.
- b) Kirol hastapenean, kirolarientzat erreferentziazko eredu etikoa izatearen garrantzia balioetsi da.
- c) Gogoia egin da norberaren aurreiritzi eta estereotipoei buruz, baita generokoei buruz ere.
- d) Kirola baliatuz, etikaren eta moralaren arabera hezteko interesa erakutsi da.
- e) Kirolaren bidez, balio pertsonalak eta sozialak hedatzeko estrategiak identifikatu eta deskribatu dira.
- f) Identifikatu dira baterako hezkuntza sustatzeko estrategiak.
- g) Kirola egitean, joko garbia, norbera, besteak eta ingurunea errespetatzearen garrantzia balioetsi da.
- h) Defendatu da kirol praktikaren izaera ludikoa eta balioetsi da mantentzearen garrantzia.

Edukiak.

Norbanakoaren ezaugarri motor, psikologiko, afektibo eta sozialak haurtzaroan.

–Neska-mutilen garapen pertsonala kirol hastapenean:

- Hazkundera, heldutasuna eta garapena.
- Mugimenduaren oinarritzko ereduak haurtzaroan.
- Neska-mutilen ezaugarri motor, psikologiko, afektibo eta sozialak.
- Informazioa biltzeko oinarritzko teknikak, informazioa prozesatzeko teoritik abiatuta.

–Gorputz eta kirol jardura haurtzaroko helduei aldiro:

- Kirol hastapena.
- Kirol esperientzien dibertsitatea eta aldagarritasuna hastapenean eta haren eragin positiboak garapen motorrerako.
- Heldutasun egoerak eta banakoen arteko aldeak zein norberaren barrenekoak errespetatzea.

Komunikazioa eta motibazioa kirol jardueran.

–Hautzaroko motibazio eta jarrerak kirolaren praktikan:

- Barreneko eta kanpoko motibazioak.
- Helburuen teoria.
- Kirola uzteko gazteen arrazoi nagusiak. Lehiaketari ematen zaion garrantzia.
- Parte hartzea, motibazioa eta gozamina sustatzeko estrategiak, kirolean jarraitzeko elementu giltzarri gisa, emakumeen eta gizonen arteko aldeak kontuan hartuta.
- Ikaskuntza prozesuaren balioespena, kirol emaitzatik harago.
- Ikasleen jarreraren balorazioa, haien gaitasunetik harago.

–Komunikazioaren prozesua. Elementuak, motak eta zailtasunak:

- Komunikatzeko teknikak: hitz bidezkoak eta bestelakoak.
- Testuinguruko komunikazioaren gaineko balorazioa: komunikazioaren prozesuan laguntzen duten elementuak, oztopoak eta inhibitzaileak.
- Tokiaren eta ikasleen kokapena kirol saioko komunikazioa hobetzeko.
- Kirol saioko hasierako informazioa eta atzeraelikadura (feedbacka).
- Komunikatzeko trebetasunak, pertsonalak eta sozialak, pertsonen arteko harremanetan.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista.

Taldeak gidatzea kirol jardueretan.

–Gatazka iturriak kirol taldean:

- Elkarren arteko konfiantza falta.
- Lehiakortasuna eta lidergoa.
- Diskriminazioa: sexuaren arabeko arrazoiengatik, gaitasunagatik, desgaitasunagatik, LGT-BIfobiako jarrerengatik.
- Neska-mutilen banako interesen arteko aldea.
- Taldeen dinamika kirol hastapenean eta haren garrantzia.

–Taldeen balorazio soziologikora bideratutako dinamikak eramatea:

- Taldea aurkeztu eta ezagutzeko dinamikak.
- Teknika soziometrikoak.

–Elkarren arteko lanera eta gatazkak konpontzera bideratutako talde dinamikak gidatzea:

- Norbera ezagutzeko dinamikak, berrespen pertsonalerako eta autokonfiantzarako.
- Elkarren arteko konfiantza sortzeko dinamika sozioafektiboak.
- Taldeko lanaren dinamikak: taldearen erantzukizunari, erabakiak kontsentsuz hartzeari eta talde lanaren eraginkortasunari buruzkoak.

–Gatazkak talde txikietan konpontzeko dinamikak, honako hauetarako:

- Arazoaren identifikazioa.
- Arazoaren konponbidea.

–Entrenamendu errutinen ezaugarriak, sailkapena eta haiek aplikatzeko jarraibideak.

–Taldeko arauen ezaugarriak, sailkapena eta haiek aplikatzeko jarraibideak.

–Taldeko arauak hautsi ondoren nola jokatu dioten jarraibideak.

–Kirol hastapeneko taldeetan teknikariak esku hartzeko ereduak:

- Eredu autoritarioa.
- Eredu permisiboa.
- Eredu demokratikoa.

–Familiaren inguruko jarrerak eta eragina kirol hastapenean.

–Neska-mutilak kirolean hasteko eragin positiboa duten familiako baldintzak.

–Kirol hastapenean familiarrek maizen izaten dituzten jokabide eta jarrera negatiboak:

- Gehiegizko presioa seme-alabei lehia daitezen.
- Portaera eta jarrera erasokor eta indarkeriazkoak.
- Interferentziak kirol teknikariarekin.

–Familia inguruan esku hartzeko estrategiak kirol hastapenean. Elkarriketa, kirolariaren legezko arduradunekin.

Balio pertsonalak eta sozialak kirolean.

–Kirola, balio pertsonal eta sozial positiboen zein negatiboen hedatzaile.

–Kirol teknikariaren erantzukizuna balio etikoak kirolaren bidez hedatzeko, eta kontrako balioak galarazteko.

–Kirolaren berezko ontasunaren ideia gainditzea, balio etikoen hedadurari dagokionez.

–Moralaren aurkako jokabide ohikoenak kirolaren praktikan.

–Joko garbia eta gizalegea (jokabide etikoak kirolaren praktikan).

–Balioak kirolean garatzeko teknika eta estrategiak: gogoeta, kontsentsuzko arauak ezartzea, judizio morala, jokabidearen autokontrola, analisia, enpatia garatzea, etikoki garrantzitsuak diren gaien ulermen kritikoa eta talde topaketak.

–Autoebaluazioa eta gogoeta norberaren aurreiritzi eta estereotipoei buruz, baita genero eta gaitasunari buruz ere.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honek behar den prestakuntza du ikasleek haurtzaroko kirol ezaugarriak ezagut ditzaten eta kirol hastapenean den kirolaria gida dezan taldeko komunikazio, motibazio eta dinamika arloko estrategia eta teknikak praktikan jarrita. Orobat, edozein kirol jarduketaren ezaugarri izan behar duen esku-hartze didaktiko pedagogikoa zehazten du, kirolari datxezkion balioak hedatzeko.

Modulu teorikoa da eta, beraz, ikasleek erabilera anitzeko gelan emanen dute denborarik gehiena. Bertan ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabiliko dituzte. Alde horretatik, ona litzateke dokumentuak izatea, klaseak ikuspegi praktikoago batetik emateko moduan. Dena dela, ongi legoke praktikak gimnasioan edo berariazko instalazioetan egitea, alderdi teorikoak indartu eta sakontzearen.

Egokien jotzen den edukien sekuentziazioari dagokionez, edukien atalean azaldutako ordenarekin bat dator.

Ezaugarri egokiko lantegi-ikasgela batean egin beharreko jardueren tipologiari dagokionez, hone-lakoak izatea iradokitzen da:

- Komunikazio praktika: ikasleen komunikazioaren analisia, hobetzeko proposamenak. Komunikazio prozesuan hizkera ez sexista erabiltzea, eta irudi ez sexistak eta ez estereotipatuak erabiltzea.
- Gatazkak aztertu eta konpontzeko lantegia.
- Arau eta errutinen lantegia.
- Kirol hastapenaren ikuspegiari buruzko eztabaida.

–Kiroleko balioei buruzko lantegia.

–Aztertutako gaiei loturiko artikulua irakurtzea.

Ebaluazioari dagokionez, garrantzitsua da dena ebaluatzea, bai hainbat arlotan esku hartzeko oinarri teorikoak nola ikasi diren, bai ikasitakoa aplikatzeko gaitasuna, egoera praktikoetan esku hartzeak aztertu eta diseinatzeko; halaber garrantzitsua da jarreraren inguruko alderdiak ebaluatzea.

Horretarako, proba objektiboak erabili ahal dira, baita beste lan batzuk ere, hala nola, lan pertsonala, informazioa eta baliabideak bilatzea, analisia eta sintesia, lan praktikoak: unitate didaktikoak prestatzea, proposamenak diseinatzeko, behaketa fitxak prestatzea, etab. Edozer izanik ere erabiltzen den prozedura, ahal den aldiro, ikasteko balio duen tresnaren ikuspegitik (prestakuntzazko ebaluazioa) begiratu behar zaio, eta ez ebaluazio batutzailearen ikuspegitik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurari eta jarrerari dagozkien alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da prozesua eta ikasleek gelan egindako lanaren emaitzak neurtzea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Modulua: Lehen sorospenak

Kodea: MED-C102

Iraupena: 30 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Egiten du hasierako balorazioa: ezarritako protokoloen arabera balorazio teknikak aplikatzen ditu, eta horiek anatomiaren eta fisiologiaren printzipioei lotzen.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu eta neurtu dira bizi konstanteak.
- b) Identifikatu eta deskribatu dira kasu bakoitzean jarraitu beharreko balorazio protokoloak.
- c) Identifikatu eta deskribatu dira hezur eta artikulazioetako lesioak, baita haiek eragiteko sintoma eta mekanismoak ere.
- d) Identifikatu eta deskribatu dira muskulu eta tendoietako lesioak, baita haiek eragiteko sintoma eta mekanismoak ere.
- e) Identifikatu eta deskribatu dira hainbat motatako traumatismoak.
- f) Deskribatu dira lehen sorospenen oinarri anatomofisiologikoak.
- g) Identifikatu eta deskribatu dira kanpoko beste agente batzuek (hotza, beroa, agente kimikoak eta biologikoak) sortutako lesioak, baita horiek eragiteko sintoma eta mekanismoak ere.
- h) Erabili da lehen sorospenei loturiko oinarritzko terminologia mediko-sanitaria.
- i) Identifikatu da jarduteko sekuentzia, ILCORek (Berpizteari buruzko Nazioarteko Koordinazio Batzordea) ezarritako protokoloaren arabera.

2. Laguntzen du lehen sorospenetako teknikak aplikatzen, lesio mota kasu bakoitzerako ezarritako protokoloari lotuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu eta deskribatu dira lesioaren arabera jarraitu beharreko lehen sorospenetako eta immobilizazioko protokoloak.
- b) Identifikatu dira lehen sorospenak aplikatzeko baliabide materialak (botika-kutxa eta beste batzuk).
- c) Lagundu da hainbat lesiori egokitutako lehen sorospenetako teknikak aplikatzen.
- d) Deskribatu dira lehen sorospenetako teknikak behar ez bezala aplikatzearen eta istripua izan duen pertsona behar ez bezala garraiatzearen ondorioak.
- e) Lagundu da immobilizazio teknikak aplikatzen, istripua izan duen pertsona garraiatzeko.

3. Aplikatzen ditu bizi-euskarriko teknikak, tresneria identifikatuz eta faseak deskribatuz, ezarritako oinarritzko protokoloaren arabera.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Zehaztu da bizi-euskarriko oinarritzko tresneria, haren zatiak eta funtzionamendurako mekanismoak bereiziz.
- b) Deskribatu dira bihotz-biriketako bizkortzearen oinarriak.
- c) Aplikatu dira arnasbideak irekitzeko teknikak.
- d) Aplikatu dira aireztapena bizkortzeko teknikak.
- e) Aplikatu dira zirkulazioa bizkortzeko teknikak.
- f) Egin da kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (DESA).

- g) Aplikatu dira bizkortze ondoko neurriak.
- h) Ikusi da zer egoeratan ez den komenigarria esku hartzea eta ondoko ebakuazioa egitea, eta zehaztu dira haien ezaugarriak.
- i) Balioetsi da ezarritako protokoloak zehazki aplikatzearen garrantzia.

4. Autokontrolaren eta laguntza psikologikoaren teknikak aplikatzen dizkie istripua izan duenari eta lagunei, eta deskribatu eta aplikatzen ditu komunikaziorako estrategia egokiak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu eta aplikatu dira laguntza psikologikoaren oinarritzko teknikak.
- b) Deskribatu eta aplikatu dira autokontrolaren oinarritzko teknikak.
- c) Aplikatu dira komunikatzeko oinarritzko estrategiak lehen sorospenen emateko egoeretan.
- d) Deskribatu dira istripua izandakoen balizko egoera emozionalak.
- e) Balioetsi da estres egoeretan nork bere burua kontrolatzearen garrantzia.
- f) Identifikatu dira istripuan edo larrialdietan antsietatea eragiten duten faktoreak.
- g) Deskribatu eta aplikatu dira giroko tentsioa kontrolatzeko erabili beharreko teknikak.

5. Aplikatzen ditu ingurunea kontrolatzeko teknikak, eta lotzen ditu ezarritako protokoloekin eta larrialdi sistemaren antolaketarekin.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Zehaztu dira inguruneak arrisku maila jakin batzuk sortzen dituen erabili ahal diren teknikak.
- b) Deskribatu dira ingurune segurua eta emozio aldetik egonkorra ezartzeko protokolo egokiak.
- c) Zehaztu dira inguruneak arriskuari buruz erabili beharreko teknikak.
- d) Aplikatu dira segurtasunerako eta norbera babesteko arauak eta protokoloak.
- e) Zehaztu dira larrialdiaren, emergentziaren eta hondamendiaren kontzeptuak.
- f) Deskribatu da larrialdi sistemen antolaketak.

Edukiak.

Egoera fisiologikoa baloratzeko teknikak.

–Larrialdiaren zeinuak eta sintomak.

–Konorte mailaren balorazioa.

–Bizi-konstanteak hartzea.

–Miaketarako oinarritzko protokoloak.

–Medikuntzako eta osasun arloko terminologia lehen sorospenetan.

–Pertsona guztientzako informazio ulergarri eta irisgarria helarazteko protokoloa.

–Bizi konpromisoaren zeinuak helduengan, umeengan eta bularreko haurrengan.

–Ingurua babesteko metodoak eta materialak.

Lehen sorospenei loturiko oinarri anatomofisiologikoak: hezurak, artikulazioak eta muskuluak (kontzeptua, ezaugarriak, sailkapena eta lokalizazioa oinarritzko mailan).

–Oinarritzko balorazioa traumatismoek eta agente fisiko, kimiko eta biologikoek eragindako lesioetan.

–Oinarritzko balorazioa larrialdietako patologia organikoan.

Lehen sorospenetako teknikak.

–Lehen sorospenetako eta immobilizazioko protokoloak.

- Lehen sorospenetako materialak. Botika-kutxa.
- Lehen sorospenen aplikazioa.
- Immobilizatzeko eta mobilizatzeko prozeduren aplikazioa.
- Segurtasuna, erabilitako teknikak aplikatzean.

Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak.

- Arnasbideak irekita daudela kontrolatzea.
- Bihotz-biriketako bizkortze oinarrizkoa.
- Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (DESA).
- Istripua izan duenaren oinarrizko balorazioa.
- Hasierako laguntza, agente fisikoek eragindako lesioetan (traumatismoak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak).
- Hasierako laguntza, agente kimiko eta biologikoek eragindako lesioetan.
- Hasierako laguntza, larrialdietako patologia organikoetan.

Autokontrolerako eta laguntza psikologikorako teknikak.

- Erientzako laguntza psikologikoa.
- Lehen sorospen psikologikoak. –Biztanleen portaera hondamendi batean.
- Komunikaziorako oinarrizko estrategiak.
- Lehendabizi esku hartzen duenaren eginkizunaren balioespena.
- Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak.
- Istripu edo larrialdietan antsietatea eragiten duten faktoreak.

Larrialdietan ingurunea kontrolatzeko teknikak.

- Larrialdietako sistemak.
- Lehen sorospenen xedeak eta mugak.
- Lege esparrua, erantzukizuna eta lanbide etika.
- Segurtasunerako eta norbera babesteko arauak eta protokoloak.
- Lehen sorospenetako teknikak inguruneke arriskuari begira.
- Alerta protokoloak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu hau ikasleei bideratuta dago, jarduteko prozedura egokiak ikas ditzaten kirolari bati lagundu behar zaionean, hark istripua izaten duenetik larrialdiko osasun laguntza iritsi arte. Horretarako, protokolo errazak aplikatzeko gai izan behar dute, bai istripua izan duena baloratzeko, bai ondoren lehen sorospenak emateko. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak eta tresneria bidezkoa (DESA) ikasteak zeregin garrantzitsua du modulu honetan, ikasleak gaitzen dituelako desfibriladore erdiautomatikoak erabiltzeko.

Modulu honek osagai teoriko bat du eta, horretarako, ona da ikus-entzunezkoen zein informatikako baliabideez hornituriko gela izatea. Hala ere, zati praktikoak egiteko nabarmena du eta, horretarako, berariazko materialak behar dira, hala nola manikiak, desfibriladore erdiautomatikoa, lehen sorospenetako botika-kutxa, eta abar, ikasleek protokoloak bete ditzaten. Orobat, ona da beste toki batzuk ondoan izatea, aldi berean talde batek baino gehiagok lan egin dezaten.

Edukien sekuentziari dagokionez, egokia da hasteko honako hauek ezartzea: lehen sorospenetako aplikazioaren helburuak, lehen esku hartzaileak jarduteko protokolo eta arauak, zauritua edo istripu izandakoa ebaluatzea eta lehen sorospenetako botika-kutxa. Ondoren, autokontrolaren teknikei, ingurunearen kontrolari, larrialdi sistemari eta horiei loturiko alderdien inguruko kontuei heldu behar zaie. Gero, hobe da lehen sorospenetako hainbat teknikaren aplikazioari ekitea zauri eta odoljarioak, lipotimiak, traumatismoak, makadurak, muskuluetako lesioak, eta halakoak direnean. Azkenik, oinarrizko bizi-euskarriarekin (DESA) eta tresneria bidezkoarekin zerikusia duen guztiari heldu behar litzaioke.

Modulu honetan, protokoloen aplikazio praktikoei garrantzi berezia dute; batez ere, oinarrizko bizi-euskarriarekin eta tresneria bidezkoarekin zerikusia dutenek. Adibidez:

- Hasierako balorazioa egitea, arnasbideak irekitzea, eta aireztatzea.
- Bihotzeko masajea ematea.
- Arnasbidea libratzea eta albo baten gainean jartzea segurtasunagatik.
- DESA praktika.
- Botika-kutxaren lantegia.

Ebaluazioari dagokionez, lehen aipatutako jarraibide eta gomendioekin bat, ikasitako protokoloak behar bezala aplikatzeko ikasleek duten gaitasuna nagusitu behar da, haien oinarria den funts teoriakoaren aldean.

Horrenbestez, komeni da proba objektiboak erabiltzea, eduki teorikoak bereganatu diren egiaztatzeko, baita egoera simulatuetan ebaluazio praktikoa ere. Dena den, ahal dela, ikasteko balio duen tresnaren ikuspegitik begiratu behar zaio (prestakuntzazko ebaluazioa), eta ez ebaluazio batutzailetik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Modulua: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna

Kodea: MED-C103

Iraupena: 5 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu desgaitasun nagusiak, deskribatzen ditu haien oinarritzko ezaugarriak eta lotzen ditu kirolaren praktikarekin.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira desgaitasun fisiko, organiko, adimeneko edo garapeneko eta zentzumenetako eta psikosozialaren kausa nagusiak.
- b) Jarduera fisiko egokituak praktikatzeko desgaitasuna dutenei ematen dizkien onurak zehaztu dira.
- c) Praktikan dauden gaitasunak eta funtsezko baldintzak ikusi dira, desgaitasun motaren arabera.
- d) Pertzepzio, erabaki eta mugimendu mailako murrizketak erabilita, desgaitasuna egoera simulatua bizitzeak berekin dakarrena balioetsi da.
- e) Oinarritzko laguntza teknikoek aukerak deskribatu dira, desgaitasunaren arabera.
- f) Oinarritzko prozedurak aplikatu dira desgaitasuna identifikatu eta atzemateko kirolariaren ezaugarri morfologikoei eta funtzionalei begiratuta.
- g) Kirolariaren gaitasunak bereiztearen garrantzia balioetsi da, desgaitasunagatik izan ditzakeen mugetatik harago.
- h) Desgaitasuna dutenentzako kirol hastapeneko programa nagusiak identifikatu dira.
- i) Ezagutu da desgaitasuna dutenentzako kirolaren berariazko antolaketa-egitura: bai hura arautzen duten erakundeak bai kirol sailkapenak eta, orobat, kirola praktikatzeko aukerak.

2. Kirol praktiken berri ematen die desgaitasuna dutenei, deskribatzen ditu berariazko komunikazio teknikak, eta identifikatzen ditu hastapenean aurki daitezkeen gaitasunak eta mugak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu da terminologiarik gaurkotuena desgaitasuna duten pertsonen buruz.
- b) Aplikatu dira informazioa jasotzeko teknikak, desgaitasuna dutenek kirola praktikatzeko dituzten interes, gaitasun, alde aurreko esperientzia eta motibazioen buruz.
- c) Erakutsi da jendea alde aurretik ez epaitzeko interesa, haien elementu bakar eta bereizgarriak errespetatuz: emozioak, sentimenduak, nortasuna.
- d) Zehaztu eta aplikatu dira komunikazioaren teknikak desgaitasun nagusiei egokitzeko irizpideak.
- e) Deskribatu dira kirola praktikatzeko aukera nagusiak eta egokitutako kirolak, desgaitasun motaren arabera.
- f) Balioetsi da desgaitasuna duten pertsonen kirol ingurune/testuinguru normalizatueta aktiboki parte hartzearen garrantzia.

Edukiak.

Desgaitasuna eta kirola praktikatzeko.

–Desgaitasun fisiko, organiko, adimeneko edo garapeneko eta zentzumenetako eta psikosozialaren ezaugarri nagusiak.

–Desgaitasuna atzemateko oinarritzko prozeduren bitartez: kirolariaren ezaugarri morfologiko eta funtzionalei begiratu.

- Norberaren aukeren balorazioa, desgaitasunaren arabera azaltzen diren ezintasunetatik harago.
- Desgaitasun mota baten ondoriozko baldintzak gorputz eta kirol jarduerarako.
- Berariazko kirol materiala eta oinarritzko laguntza teknikoak ezagutzea eta haien funtsezko erabilera.
- Kirola egitearen onurak desgaitasuna dutenentzat.
- Kirol praktikan hasteko eta hura hedatzeko programak desgaitasuna dutenentzat.
- Berariazko kirol antolaketa desgaitasuna dutenentzat eta kirol sailkapena desgaitasunaren arabera.
- Kirola murriztutako egoeran bizitzea, desgaitasuna simulatuz.

Desgaitasuna dutenekin komunikatzeko metodoak.

- Desgaitasuna dutenenganako sentimendu eta jarreraz jabetzea.
- Oinarritzko terminologia, osasunari eta desgaitasunari buruz.
- Informazioa biltzeko oinarritzko tekniken aplikazioa, desgaitasunak dituzten kirolarien ezaugarriei buruz.
- Komunikazio teknika jakin batzuk ezagutzea eta aplikatzea, desgaitasunaren arabera.
- Desgaitasunak dituztenekin komunikatzeko beste metodo batzuk.
- Ingurune normalizatueta desgaitasuna dutenak kirolean sartzeko adibideen aplikazioa.
- Kirol egokitu nagusiak.
- Kirola egitearen garrantzia desgaitasuna dutenen autonomia pertsonalerako eta gizarte integratzeorako.
- Norberaren aurreiritziak identifikatzea desgaitasuna dutenei buruz.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honek beharrezkoa den prestakuntza du, ikasleek desgaitasunak dituzten kirolerako ezaugarriak eta kirola egiteko dituzten aukerak ezagut ditzaten. Orobat, eremu inklusibo batean kirola egiteko aukera zehazten du, landu beharreko edukiak behar bezala egokituta.

Modulu teorikoa da eta, beraz, ikasleek erabilera anitzeko gelan emanen dute denborarik gehiena. Bertan ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabiliko dituzte. Alde horretatik, ona litzateke dokumentuak izatea, klaseak ikuspegi praktikoago batetik emateko moduan. Dena dela, ongi legoke praktikak gimnasioan edo berariazko instalazioetan egitea, alderdi teorikoak indartu eta sakontzearen.

Edukien sekuentziari dagokionez, iradokitzen da lehenik eta behin desgaitasun nagusien oinarritzko ezaugarrien multzoari ekitea. Azkenik, desgaitasunak dituztenekin komunikatzeko tekniken atalari heltzen ahal zaio.

Egin beharreko jardueren tipologiari dagokionez, honelakoak izatea iradokitzen da:

- Zenbait kasu praktiko aztertzea, desgaitasunak dituztenentzako kirol jardueri buruz.
- Dauden desgaitasunak identifikatzea.
- Kirol saio egokituko fitxak egitea.
- Kirol sailkapeneko berariazko praktikak egitea.
- Informazio ulergarri eta irisgarriko materialak prestatzea, desgaitasunak dituztenentzat.
- Berariazko artikulua irakurtzea kirol egokituko hastapenari buruz.

Ebaluazioari dagokionez, garrantzitsua da dena ebaluatzea, bai hainbat arlotan esku hartzeko oinarri teorikoak nola ikasi diren, bai ikasitakoa aplikatzeko gaitasuna, egoera praktikoetan esku hartzeak aztertu eta diseinatzeko; halaber garrantzitsua da jarreraren inguruko alderdiak ebaluatzea.

Horretarako, proba objektiboak erabili ahal dira, baita beste lan batzuk ere, hala nola, lan pertsonala, informazioa eta baliabideak bilatzea, analisia eta sintesia, lan praktikoak: unitate didaktikoak prestatzea, proposamenak diseinatzea, behaketa fitxak prestatzea, etab. Edozer dela ere erabiltzen den prozedura, ahal den aldiro, ikasteko balio duen tresnaren ikuspegitik (prestakuntzazko ebaluazioa) begiratu behar zaio, eta ez ebaluazio batutzailearen ikuspegitik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurekin eta jarrerekin zerikusia duten alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da ikasleek ikasgelan egin duten lanaren ebaluazioa egitea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Kirol jokabidearen oinarrien moduluaren ondotik heldu behar litzaioke modulu horri; izan ere, ikasleek, hasieran, garapenaren oinarritzko alderdiak ulertu behar dituzte, gero beste alderdi berariazkoago batzuei ekiteko, jarduera fisikoa desgaitasun kasu jakin batzuei egokitzea bideratuta.

Modulu komuna: Kirol antolaketa

Kodea: MED-C104

Iraupena: 5 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen du tokiko eta autonomia erkidegoko kirol antolaketa, eta lotzen du administrazio egiturarekin eta haren oinarritzko eskumenekin.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu da tokiko eta autonomia erkidegoko antolaketa modua, kirol eremuari dagokionez.
- b) Deskribatu dira tokiko eta autonomia erkidegoko kirol erakundeen eskumen eta programa nagusiak.
- c) Erabili dira kirolaren araudi juridikoa aipatzen duten informazio iturriak.
- d) Erabili da oinarritzko terminologia, tokiko eta autonomia erkidegoko kirol erakundeen egiturei egokitua, baita kirol araudiarena ere.

2. Kirol elkarteen egitura zehazten du, eta haren elementuak eta antolaketa identifikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira erkidegoetako kirol federazioen eskumenak, eginkizunak eta antolatze moduak.
- b) Deskribatu dira tokiko eta autonomia erkidegoko kirol elkarteen motak.
- c) Identifikatu dira kirol elkarteen ezaugarriak.
- d) Deskribatu dira tokiko eta autonomia erkidegoko administrazioak kirol elkarteei laguntzeko bideak.
- e) Bete da oinarritzko dokumentazioa kirol elkarteei laguntzak bilatzeko, eta deskribatu dira dokumentazio horrek bete beharreko prozedurak.
- f) Balioetsi da erakundeen laguntzak kirol elkarteen garapenean eta emakumeen elkarteen indartzean duen garrantzia, gorputz eta kirol jarduera emakumeen artean bultzatzeko. Horrez gain, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak indartzean duen garrantzia ere aztertu da, desgaitasuna duten pertsonen kirol jarduera bultzatzeko.

3. Aztertzeko prebentziorako jarraibideak adingabeen taldeak kirol jarduerak zuzendu eta laguntzean dagoen erantzukizun zibila eskatzeko, eta onartzen ditu kirol jarduerak dakartzan arriskuak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Zehaztu dira adingabeei zuzendutako kirol praktikek dituzten arriskuak.
- b) Identifikatu da zer eremutan eskatzen ahal zaion kirol teknikariari erantzukizun zibila, bere eginkizunak betetzearen ondorioz.
- c) Zehaztu da entrenatzaileak zer jokabide izan ahal duen kirolarien segurtasuna bermatzeko.
- d) Aplikatu dira kirol teknikariaren prebentziora zuzendutako tresnak, haren jarduketan ondoriozko erantzukizun zibila eskatzeari begira.

Edukiak.

Tokiko eta autonomia erkidegoko kirol antolaketa.

–Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko oinarritzko legeria:

- Kirol eskumenaren esparrua udalen eta autonomia erkidegoen eremuan.
- Kirol arloko oinarritzko legeriaren interpretazioa: arauaren xedea eta maila.

–Kirolaren egitura administrazio eta antolaketa aldetik:

- Kirolaren egitura autonomikoa Nafarroan.
- Toki eremuko kirol egituren funtsezko ezaugarriak identifikatzea; besteak beste, udal zerbitzu eta patronatuak, sozietate publikoak, diputazioetako erakundeak, klub eta elkarteak.
- Autonomia erkidegoko eta tokiko kirol antolaketa onartzea.

–Kirol araudi juridikoko informazio iturriak:

- Kirol araudiaren oinarritzko terminologia.
- Kirol araudi juridikoa islatzen duten argitalpen ofizialak.

Kirol elkarteak.

–Nafarroako kirol federazioak: eskumenak, eginkizunak eta antolaketaren egitura.

–Kirol elkarte eta klub motak; haien motak eta kirol elkarteetan duten garrantzia.

–Emakumeen kirol elkarteak. Emakumeak eta kirolaren antolaketa.

–Desgaitasuna duten pertsonen kirol elkarteak. Desgaitasuna duten pertsonen presentzia kirolaren antolaketa.

–Kirol elkarteak bultzatzeko moduak:

- Tokiko eta autonomia erkidegoko administrazioa: laguntza motak eta moduak.
- Kirol elkarteak bultzatzeko moduak:
- Kirol elkarteentzako laguntzak kudeatzeko prozedurak:
 - Tokiko administrazioan.
 - Autonomia erkidegoko administrazioan.

Prebentzioa eta erantzukizun zibila taldeen gidaritzan.

–Gorputz eta kirol jarduerak dakartzan arriskuak.

–Erantzukizun zibilaren kontzeptua.

–Kirolean erantzukizun zibila eskatzeko eremua.

–Kirol teknikariaren eskumenak, bere kargu dituen kirolarien segurtasuna bermatzeko.

–Prebentzioko jarraibideak, erantzukizun zibila eskatuz gero.

Orientabide didaktikoak.

Ikasleek tokiko eta erkidegoko kirol antolaketa, haren araudiak eta programak eta elkarteen oinarritzko egiturak ezagut ditzaten dago bideratua modulu hau, era horretan kirol sisteman integratzea, teknikari gisako eginkizunak betetzea eta baliabideak eskuratzea bultzatzen baita.

Kirol teknikariak hartu beharreko babes neuriez jabetzea ere nahi da, harena baita erantzukizuna bere kirolariei arriskurik gabeko kirol praktika bermatzeko.

Moduluaren zati teorikoak ikasgela izatea eskatzen du, ikus-entzunezkoen eta informatikako baliabidez hornitua. Ikasleek informazio handiagoa izan dezaten eta kirol administrazioarekiko harremana errazteko, komenigarri da hainbat webgunerekin konexioak egin ahal izatea. Gainera, ona litzateke ikasleek eskura izatea Estatuko eta autonomia erkidegoko oinarritzko araudia.

Hobe litzateke hasiera batean Estatuaren oinarritzko legeriari eta antolaketari ekitea, autonomia erkidegoko eta tokiko antolaketaren erreferentzia izan dadin. Behin autonomia erkidegoko eta tokiko antolaketari heldurik, autonomia erkidegoaren eremuko kirol elkarteen egiturekin jarraitzea iradokitzen da. Azkenik, kirol teknikariak hartu beharreko aurreneurriekin zerikusia duten alderdiei heldzea iradokitzen da, bere eginkizunak betetzean eskatzen ahal zaion erantzukizunari begira.

Ikasleek inguruko antolaketarekin jokatzeko ikas dezaten, honelako jarduerak iradokitzen dira:

–Nafarroako kirol administrazioaren webguneetan sartzea.

–Autonomia erkidegoko araudia praktikaldiko saioetan aplikatzeko ariketak.

–Gatazkak ebazteko egoerak simulatzen dituzten ariketak.

–Antolatzaileentzat erreferentziakoak diren dokumentuak aurkeztea eta kirol jarduerak garatzea.

Ikasleek sarean eta erreferentziako araudian informazioa bilatu eta hura kirol erakundeen bizitzako egoera jakin batzuetan, kirol administrazioarekiko harremanetan eta eskura dituzten baliabideetan aplikatzeko duten gaitasuna ebaluatzeak du lehentasuna modulu honetan. Hortaz, gomendatzen da ikasitako edukiak eta kasu bakoitzeko erreferentziako araudia aplikatzea eskatzen duten probak hautatzea.

Zein prozedura erabili den alde batera utzita, ahal dela, ikasteko balio duen tresna izateko ikuspegitik (prestakuntzazko ebaluazioa) begiratu behar zaio, eta ez ebaluazio batutzaitetik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurekin eta jarrerekin zerikusia duten alderdiak ebaluatzeako, funtsezkoa da ikasleek ikasgelan egin duten lanaren ebaluazioa egitea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

b.2) Multzo espezifikoa.

Modulua: Jokoaren oinarritzko ezagutzak

Kodea: MED-BMBM-102

Iraupena: 50 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu jokoaren oinarritzko ezagutzak, eskubaloiaaren egiturazko elementuak eta elementu funtzionalak aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira eskubaloia joko baldintzatzen duten egiturazko elementuak.
- b) Deskribatu dira erregelamenduaren arabera mugak, mugikorra erabiltzeari buruz.
- c) Deskribatu dira erregelamenduaren arabera mugak, lehiakidearen jarrerari buruz.
- d) Deskribatu dira arauak betetzen ez direnean aplikatu behar diren zehapen tekniko eta diziplina zehapen motak.
- e) Identifikatu dira motrizitatearen alorreko ekintzetan ohartzeko, erabakiak hartzeko eta erabakiak gauzatzeko mekanismoak, baita kirolen etekinean duten eragina ere.
- f) Deskribatu dira eskubaloiaaren nomenklatura espezifikoaren ezaugarriak eta eskema tekniko taktikoak egiteko ikur konbentzionalak.
- g) Ezarri dira, zehatz-mehatz teknikaren, banakako taktikaren eta taldeko taktikaren arteko aldeak.
- h) Zehaztu dira jokoaren helburu orokorrak, asmo taktikoak eta oinarritzko jarduerak, eta batzuen eta besteen aldeak.
- i) Ezarri dira jokoaren faseak eta fase bakoitzaren helburu partzialak.

2. Zehazten ditu erasoaldiko oinarritzko jarduerak, eta jardueren garapenaren ezaugarriak eta baldintzatzaileak identifikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira baloia garraiatzeko moduak eta modu guztiek partekatzen dituzten eskakizunak, erregelamenduaren arabera eskakizunetara ere moldatuta.
- b) Azaldu dira baloia garraiatzeko nazioarteko alderdiak.
- c) Azaldu dira baloia garraiatzeko mugimenduen alderdiak, modalitate guztietan.
- d) Identifikatu dira jokalarien lekualdatzei buruzko nazioarteko alderdiak, bai eta baloia eduki bitartean dauden leku eta denbora mugen garrantzia ere.
- e) Deskribatu dira desmarkatze motak, helburu taktikoaren eta helburua gauzatzeko moduen arabera.
- f) Deskribatu dira jaurtiketa aurretiko mugimenduari eta asmoari buruzko oinarritzko faktoreak.
- g) Deskribatu dira atera jaurtitzeko behar duen indarra eta zehaztasuna bereganatzeko funtsezko alderdi mekanikoak.
- h) Identifikatu dira asmoari buruzko beste faktore batzuk, mekanikoak ez direnak, atera bidaltzen diren jaurtiketen efikaziari buruz.
- i) Azpimarratu da erasoaldiko lagunen arteko kooperazioa.
- j) Zehaztu dira baloia pasatzeko eta bidaltzeko funtsezko alderdiak, elkarlanaren funtsezko elementutzat hartuta.

- k) Azaldu dira taldeak erasotzen duenean, antolaketan kontuan hartu behar diren oinarritzko alderdiak, baita leku handia hartzen duten defentsei erasotzean nola aplikatu behar diren ere, erasoaldiko zereginak txertatuta.
- l) Deskribatu dira kontraerasoaldiaren funtsezko alderdiak.

3. Zehazten ditu defentsarako oinarritzko jarduerak, eta defentsa garatzeko ezaugarriak eta baldintzak identifikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Baloratu da erasotzaileei aurka egiteko zereginean erregelamendua bete beharra.
- b) Deskribatu da erasotzaileen mugimenduari aurka egiteko zereginean oinarritzkoak diren joerei erantzuteko eta aurea hartzeko gaitasuna.
- c) Deskribatu da markaketa erasotzaileari 1x1 borroka mota ezarrita aurka egiteko modua dela.
- d) Baloratu da erasotzaileen mugimenduei aurka egiteko zeregina garatzen lagundu beharra.
- e) Deskribatu da baloia gelditzea erasotzaileek baloiarekin egiten duten mugimenduaren aurka egiteko modua dela.
- f) Deskribatu da erasotzaileek atera egiten dituzten jaurtiketen aurka egiteko modu bat blokeoa dela.
- g) Baloratu da defentsaren arloko zereginen elkarrekintza behar dela eta, jokoaren inguruabarren arabera, lehentasuna eman behar zaiela zereginei.
- h) Deskribatu dira taldearen defentsarako antolaketa kolektiboaren alderdi generikoak, baita defentsak leku handia hartzen dueneko oinarritzko antolaketaren alderdiak ere.
- i) Deskribatu dira atezainaren kokapenaren eta posizioaren funtsezko alderdiak, taldea defentsan ari dela, baita atezainak jaurtiketen aurrean baliatu dituen esku hartzeko oinarritzko teknikak ere.
- j) Deskribatu dira defentsan atzera egiteko eta antolaketa kolektiboa lortu arteko behin-behineko defentsaren asmoei buruzko alderdiak.

Edukiak.

Jokoaren oinarritzko ezagutzak.

–Jokalekuaren, ateen eta baloien neurriak eta ezaugarriak, adin eta sexu kategorien arabera.

–Joko-taldeen osaera (atezainak, jokalaria, jokalekua, jokalaria eta arbitroak kontuan hartuta) eta ekipamendua.

–Partiden iraupena eta denborako egitura:

- Jokoan aritzeko denbora.
- Amaierako seinalea.
- Hutsartea (timeout).

–Non jokatu. Jokalekuaren esparruen arabera mugak:

- Atearen arloa.
- Jaurtiketa libreko marra.
- 7 metroko marra.
- Atezainaren murrizketako marra.
- Erdialdeko marra.
- Aldaketen marra.

–Nola jokatu baloiarekin: jokalariek baloiarekin dituzten arauak eta mugak, baloiari dagokionez:

- Erdialdetik egindako jaurtiketa.
- Gola.
- Alboko sakea.
- Atetik egindako jaurtiketa.
- Jaurtiketa libre.
- 7 metroko jaurtiketa.

–Aurkariekiko jokabidea: jokalariek aurkariekin bete behar dituzten arauak eta mugak:

- Diziplina zehapena eragiten ez duten faltak.
- Diziplina zehapena arrazoitzen duten faltak.
 - 2 minutuko kanporaketa arrazoitzen duten faltak.
 - Deskalifikazioa arrazoitzen duten faltak.
 - Geroagoko idatziekin batera, deskalifikazioa arrazoitzen duten faltak.

–Zehapen teknikoak eta diziplina zehapenak:

- Teknikak.
 - Belaunaren azpian ukitzea.
 - Hiru segundo.
 - 6 metroko marra zapaltzea.
 - Urratsak.
 - Bikoitzak.
 - Alboko sakeak.
 - Barneko zirkulazioa.
 - Barneko defentsa.
 - 7 metro.
 - Jaurtiketa libre.
 - Pasiboa.

–Diziplinakoak.

- Kargu-hartzeak.
- Baztertzea.
- Deskalifikatzea.
- Deskalifikatzea, eta geroago txostena idaztea.

–Eskubaloien nomenklatura eta ikurrak.

–Mugimendua: egintza mekanikoa baino askoz ere gehiago. Ohartzeko, erabakiak hartzeko eta erabakiak gauzatzeko mekanismoak.

–Mugimendu ekintza horrek nola eragiten dion kirolen etekinari.

–Kontzeptuak:

- Banakako taktika.
- Taldeko taktika.
- Teknika.

–Jokoaren faseak:

- Erasoaldiak.

- Defentsa.
- Kontraerasoa.
- Atzera biltzea.

–Jokoaren helburu kolektiboak:

- Erasoaldian.
- Defentsan.

–Oinarrizko asmo taktikoak:

- Erasoaldian.
- Defentsan.

–Erasoaldiaren oinarrizko jarduerak:

- Jokalarien mugimendua.
- Baloia mugimendua.
- Jaurtiketak.

–Defentsaren oinarrizko jarduerak:

- Aurkarien aurka egitea.
- Baloiarekin jardutea.

Eraso egiteko oinarrizko jarduerak.

–Baloia garraiatzeko moduak:

- Baloia maneiatzea eta egokitzea.
- Baloia botatzea.
- Baloia pasatzea hartzea.

–Segurtasuna eta zehaztasuna, baloia pasatzen duenean. Teknika:

- Paseak.
- Joan-etorriak.
- Hartzea.
- Iskinak.
- Boteak.
- Jaurtiketak.

–Asmoa, baloia garraiatzeko taktikaren oinarri gisa.

–Jokalarien lekualdatzeak:

- Baloirik gabe lekualdatzea: desmarkatzea.
- Baloiarekin lekualdatzea: erregelamenduzko mugak. Urratsen zikloa.

–Asmoa, lekualdaketen taktikaren oinarria.

–Desmarkatze motak:

- Helburu taktikoaren arabera.
- Gauzatzeko moduaren arabera.
 - Zuzena.
 - Zeharka edo norabide aldaketak.

–Jokalarien lekualdatzea / baloia lekualdatzea: bi jarduerak aldi berean egiten dira: entrenamenduan integratzea.

- Jaurtiketa indartsua eta zehatza: jaurtiketa egiteko oinarrizko teknikaren funtsezko alderdiak, jokalariai sostengua duenean, jauzi egin duenean edo esekidurazko jaurtiketa denean.
 - Jaurtiketa eraginkorra egiteko beste alderdi batzuk, ez-mekanikoak:
 - Barietatea.
 - Behaketa.
 - Sorpresa.
 - Gauzatzeko abiadura.
 - Jaurtiketa egin aurretiko istantearen garrantzia:
 - Sakontasuna.
 - Tiro egiteko angelua.
 - Orientazioa.
 - Jauzi egiteko norabidea kontrolatzea.
 - Jaurtiketak gainerako bi oinarrizko zereginiei lotzea.
 - Erasotzaileen arteko lankidetzak. Baliabide taktikoa: “pasatzea eta joatea”.
 - Erasoaldiko antolaketa kolektiboaren oinarriak:
 - Egitura: Eremu eraginkor osoz mehatxu egitea, eta eremu horren zabalera eta sakonera okupatzea.
 - Erasotzaileen mugimendua koordinatzea: Eraso egiteko eta defendatzeko desmarkatzeen arteko oreka.
 - Baloia mugimendu kolektiboa.
 - Kontraerasoa: oinarrizko alderdi intentzionalak.
- Defentsaren oinarrizko jarduerak.
- Erregelamenduaren arabera alderdien garrantzia, erasotzaileei aurka egiten behar zaienean.
 - Erasotzaileen mugimenduari aurka egiteko oinarrizko aukerak:
 - Markatzea: 1x1 aurkaritza.
 - Urrutikoa.
 - Hurbilekoa.
 - Laguntzak.
 - Ekintza koordinatuen bidezko elkarlana (baliabide taktikoak).
 - Asmoari lotutako alderdiak, defentsa-taktikaren oinarri gisa: aurrea hartzeko eta erantzuteko gaitasuna, oinarrizko joeratzat hartuta eta gaitasun biak garatu beharra.
 - Markaketa. Zeregin hori mugatzen duten erregelamendu bidezko alderdiak. Helburuak.
 - Defentsaren arloko lekualdatzeak:
 - Oinarrizko posizioaren lekualdatzeak.
 - Lasterketa gisako lekualdatzeak.
 - Oreka galdu gabe, baloia lekualdatze mota batetik beste batera pasatzeak duen garrantzia.
 - Laguntzaren premia edozein defentsa motatan.
 - Baloia gelditzea:
 - Erasotzaileek baloia botatzen dutenean.
 - Baloia pasatzen edota hartzen dutenean.

–Asmo taktikoak, baloia gelditzen denean:

- Estatikoak: eremu propioa defendatzea.
- Dinamikoak: urrun dauden balioetan esku hartzea.

–Baloia hartzeari lotutako mugimendu gaitasunak.

–Jaurtiketen aurka egitea: blokeatzea. Helburuak eta sailkapena.

–Erasotzaileei aurka egitea - baloiari aurka egitea: bi jarduerak aldi berean egiten dira.

–Defentsaren antolaketa kolektiboaren oinarriak:

- Egitura: eremu eraginkorra okupatzea, erasotzaileak banaka kontrolatzea edo egoera mistoak.
- Asmoa: aurrea hartzea edo erantzutea, modulatu daitezkeen muturreko asmoz.
- Funtzionamendu kolektiboa: aurreikus daitezkeen laguntzak eta elkarlana.

–Defentsara biltzea: oinarritzko alderdiak.

–Atezaina:

- Kokapena eta posizioa, taldeak defentsa egiten duenean.
- Jaurtiketetan esku hartzeko oinarritzko nozioak.
- Atezainaren parte hartze erasotzailearen oinarritzko nozioak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honek tituluari dagokion lanbide profilaren berezko funtzioa betetzeko beharrezko prestakuntza ematen die ikasleei, helburu nagusia delarik honako egiteko hauetarako beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzea:

–Eskubaloien oinarritzko elementuak identifikatzea eta aztertzea.

–Hasierako etapaz ohartzea eta eraso zein defentsa egiteko oinarritzko trebetasunen garrantziaz ohartzea. Ikasleek ulertu behar dute eraso eta defentsa egiteko oinarritzko jarduerak zentzuzkoak direla jokoaren gaitasuna hobetzen duten heinean.

Ikaskuntzaren emaitzen sekuentziazteari buruz, egokitzen hartzen da hasieran eskubaloia ezagutzen hasteko edukiak lantzea, ikaskuntzaren lehen emaitzak proposatu bezala. Horretarako, komeniko litzateke joko baldintzatzen duten egiturazko elementuak (joko-arauak) sartzeari, eta gero teknika, banakako taktikak eta taldeko taktikak lantzea. Gero, ikaskuntzaren bigarren emaitzari helduko zaio. Erasotzeko oinarritzko jarduerari buruzkoa da (pasatzea, lekualdatzea, hartzea, iskinak, baloia botatzea eta pasatzea, jaurtitzea eta abar lantzen dira). Azkenean, emaitzaren hirugarren emaitzari helduko zaio; defentsaren oinarritzko jarduerari buruzkoa da (markatzea, baloia gelditzea, atzera biltzea eta abar lantzen dira). Azken bi emaitza horiek gehien bat praktikoak dira; horregatik, komeniko litzateke metodologian lehentasuna ematea ikasleen parte-hartze handiari, eraso zein defentsa egiteko egokieretan, eta hobe egoera erreala badira. Horretarako, oinarritzko ezaugarriak identifikatu behar dira, baita garatzeko baldintzak ere.

Modulu hori teorikoa eta praktikoa da, beraz, komeniko litzateke kontzeptuak beharrezko tresnatzat hartzea, geroago eskubaloian aplikatzeko. Komeni da eduki teorikoak simulazio praktikoekin bateratzea, beraz, jokoaren elementu fisikoekin batera (joko gauzatzeko baliabideekin batera), benetako gauzatzeen erreferentzia-ereduei buruzko ikus-entzunezko baliabideak ere erabil daitezke, edukiak ulertzen laguntzeko. Era berean, komeniko litzateke ikasleak entrenamenduetara eta erkidegoan erreferentziakoak diren eskubaloi taldeen partidetara joatea; horrela, moduluan ikasitakoa bistaratuko dute.

Komeni da irakaskuntza metodologia kirol hastapenera egokitzea eta aktiboa, globala eta edukien araberrakoa izatea. Haren bitartez sustatuko da ikasleen ikaskuntza eta parte hartzea, ikaskuntzaren emaitzak lortzeko.

Komeni da elkarlanean eginiko lana sustatzea, eraso eta defentsarako trebetasunei eta hasierako etapetako joko gaitasuneko akatsei buruzko arazoei konponbidea emateko. Gainera, proposatzen

da ikaskuntza-prozesuaren abiapuntua joko-egoera bat izatea; horrela, behaketatik eta baloraziotik abiatu ondotik, azkenean, benetako ikaskuntza-egoerei buruzko zereginak egingen dira, eta ikasleak protagonistak izanen dira, eskumenei dagokienez, banakan zein taldeka.

Ebaluazioari dagokionez, komeni da esku-hartzeen oinarri kontzeptualak ebaluatzea, gero kontzeptuak praktikan jarriko dituztelako, eta, horrez gain, jarrerari buruzko alderdiak ere ebaluatzea. Kontzeptuei dagokienez, komeni da proba objektiboak eta jarduera praktikoak egitea, eduki kontzeptualak aplikatzeko. Jarrerei eta balioei buruzko edukiak bereganatzeko, komeni da behaketa-tresnak erabiltzea, ikasleen bilakaera aztertzea alderdi horietan. Dena den, zein prozedura erabiltzen den alde batera utzita, posiblea izanez gero, ikaskuntzarako tresnatzat hartu behar da beti.

Aurretik ezarritako ikaskuntza emaitzak lortzearen garrantzia dela eta, komeni da irakaskuntza/ikaskuntza jarduerak aurretik adierazitako gaitasunak eskuratzera bideratuta egotea, betiere Esku-baloari buruzko prestakuntza teknikoa eta taktikoa eta Amaierako zikloko joko kolektiboa moduluekin koordinatuta.

Modulua: Eskubaloiairen hastapeneko irakaskuntza

Kodea: MED-BMBM-103

Iraupena: 30 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Hastapenen eremuan motrizitate espezifikoa baloratzen du, eta trebetasun eta gaitasun espezifikoak identifikatzen ditu, eskubaloia lotutako estandar psikomotorren arabera.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira trebetasun eta gaitasun espezifikoak, zeinek eskubaloia ikasteko oinarri psikomotor gisa balio baitute.
- b) Identifikatu dira eskubaloia ikasteko oinarri psikomotor gisa balio duten trebetasun eta gaitasun espezifiko mailen arteko aldeak.
- c) Interpretatu dira eskubaloia ikasteko oinarri psikomotor gisa balio duten trebetasun eta gaitasun espezifikoak baloratzeko oinarritzko tresnak.
- d) Erabili dira eskubaloian jokatzeko trebetasun eta gaitasun motor espezifikoei buruzko datuak erregistratzeko teknikak, praktikaldiko balorazio saio batean.
- e) Deskribatu dira eskubaloian jokatzeko trebetasun eta gaitasun espezifikoak baloratzeko erabiltzen diren erreferentziako ereduak.

2. Saioaren antolamendua zehazten eta zuzentzen du, erreferentziako programazioa osatzen duten elementuak eta saioaren ezaugarriak identifikatzen ditu, eta dinamizazio-prozedurak zein zuzendaritza- eta kontrol-estrategiak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira helburu, eduki, bitarteko eta metodoen ezaugarriak, baita eskubaloia hastapeneko erreferentziako irakaskuntzako programazio batean duten erlazioa ere.
- b) Identifikatu da eskubaloia hastapeneko edukien sekuentziazioa, jokoaren oinarritzko oinarriak eta erreferentziako programazioa oinarritzat hartuta.
- c) Deskribatu dira eskubaloia hastapenean saioaren ezaugarriak.
- d) Azaldu dira taldea antolatzeko moduak, entrenatzailearen kokapen egokia eta materialaren espazio-antolamendua, bai eta aurreikusitako ikaskuntza-egoerak garatzeko materiala ere.
- e) Identifikatu eta aplikatu dira, ezarritako helburua lortze aldera, ariketen norabidean kontuan hartu behar diren alderdi garrantzitsuak.
- f) Deskribatu eta aplikatu dira hastapeneko saioan feedback-eko estrategia egokiak.
- g) Eskubaloia hastapenetan ikaskuntza egoerak sortu eta zuzendu dira, eta metodologian aurrera egiteko behar diren elementuak identifikatu dira.
- h) Eskubaloian hasteko praktikaldiko saio batean taldea antolatu eta zuzendu da, eta hartutako erabakiak justifikatu dira.
- i) Eskubaloian hasteari buruzko gutxienez bi saio zehaztu dira: bata erasotzeko; eta bestea, defentsa egiteko; ikaskuntza egoerak diseinatu dira, eta saioa egituratu da, erreferentziako programazioan ezarritako helburuak eta erabilgarri dagoen espazioa eta materiala kontuan hartuta.

3. Hastapeneko lehiaketetan taldea zuzentzen du, lehiaketa prestakuntzako prozesuaren zati garrantzitsutzat hartuta; erregelamenduzko alderdiak identifikatzen ditu, eta etapa horretako eta jokoaren oinarritzko ezagutzak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira eskubaloia hastapenetako lehiaketa baten dinamika lotutako erregelamenduzko alderdiak.

- b) Baloratu da hastapenetan lehiaketak duen garrantzia, prestakuntzako prozesuaren elementzat hartuta.
- c) Identifikatu dira hastapenetako lehiaketaren norabidean azpimarratu behar diren jokoaren oinarritzko alderdiak.
- d) Identifikatu dira eskubaloien hastapeneko taldearen barruan entrenatzailearekin eta inguru-nearekin ezarritako harremanak.
- f) Deskribatu eta baloratu da hastapeneko saioan feedback-eko estrategia egokiak.
- f) Identifikatu dira lehiaketak balioetan prestatzeko duen garrantzia, eta sustatu zein praktikatu behar diren jarrerak.

4. Saioaren eta lehiaketaren garapena baloratu du, eta erreferentziako programazioan adierazitako balorazio-parametroekin alderatzeko informazioa bildu eta interpretatu du.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Eskubaloien hastapenetako saio batean baloratu behar diren alderdiak identifikatu dira, erreferentziako programazioarekin bat etorrita.
- b) Datuak biltzeko oinarritzko tresnak azaldu eta aplikatu dira, hastapenetako saio bat baloratzeko.
- c) Datuak biltzeko oinarritzko tresnak azaldu eta aplikatu dira, oinarritzko lehiaketa bat baloratzeko.
- d) Praktikaldiko hastapen saio bateko datuak eta etapa horretarako ezarri diren erreferentziako irizpideak erkatu dira, eta ondorio justifikatua eman da.
- e) Praktikaldiko oinarritzko lehiaketa saio bateko datuak eta etapa horretarako ezarri diren erreferentziako irizpideak erkatu dira, eta ondorio justifikatua eman da.
- f) Baloratu da datuak biltzearen garrantzia, eta geroago ebaluatu dira, ondoz ondoko ikaskuntza egoerak zehazteko.

Edukiak.

Hasierako trebetasun eta gaitasun espezifikak.

–Honako ezaugarri hauek eskubaloien hastapenetako trebetasun eta gaitasun espezifikak definitzen dituzte:

- Alderdi kognitibo pertzeptiboak:
 - Ikuseremuaren zabaltasuna.
 - Arreta selektiboa.
 - Aurrerapen pertzeptiboa.
- Alderdi mekanikoak:
 - Palanken zabaltasuna.
 - Mugimenduaren sinkronia.

–Eskubaloien hastapenetan mugimenduen eraginkortasuna baloratzeko probak (erregistroa egiteko tresnak eta teknikak):

- Ezaugarriak.
- Proba adibideak:
 - Egiaztatze taulak.
 - Eskala deskribatzaileak.

–Eskubaloien hastapenetan mugimenduen eraginkortasuna baloratzeko probetan eskuratutako datuak interpretatzea:

- Balorazio irizpideak.

- Eskubaloiairen hastapenetako trebetasunen eta gaitasunen erreferentzia-ereduak.
- Gauzatze mailak.

Hastapenetako saioen programazioa.

–Erreferentziako programazio baten oinarritzko elementuak, eskubaloia irakasteko:

- Hastapenetan ezarritako helburuak.
- Ebaluazio irizpideak.
- Edukiak.
- Sekuentziazioa.

–Eskubaloiairen ikaskuntzarako saioen egitura:

- Helburuak.
- Edukien dinamizazioa eta sekuentziazioa.
- Materiala eta espazioak.

–Ikaskuntza egoerak zehazteko alderdi garrantzitsuak:

- –Ariketa motak.
- Planteamendu metodologiko analitikoa edo erabakitzailea.
- Aurrerapen metodologikoa ezartzea: Printzipioak eta orientabideak.

–Programatu diren jarduerak zuzentzeko alderdi garrantzitsuak (ereduzko ariketak). Entrenatzai-
learen esku-hartzea:

- Zeregina egin bitarteko komunikazioa.
- Ariketa bakoitzaren helburuen lehentasuna antolatzea.
- Espazioa eta aurkaritza, aurrerapen metodologikoaren aldagaitzat hartuta.
- Hastapenetan feedback emateko erabiltzen diren estrategiak.
- Taldearen antolaketa: motak eta irizpideak.
- Materiala antolatzea: irizpideak.

Hastapenetako lehiaketetan taldea zuzentzea.

–Hastapenetako lehiaketen oinarritzko ezaugarriak:

- Hastapenetan eraso egiteko jokoaren oinarritzko printzipioak.
- –Hastapenetako defentsaren oinarritzko printzipioak.

–Hastapenei lotutako lehiaketen araudia.

–Lehiaketa, ikaskuntzarako oinarritzko baliabidetzat hartuta.

–Taldea, eskubaloiairen hastapenetan: Jokalariaren, taldearen eta ingurunearen arteko oinarritzko harremanak.

–Jokoa ezagutzea.

–Hastapenetako lehiaketan feedback ematea: feedback-estrategiak aukeratzeko irizpideak eta haien garrantzia.

Hastapenei lotutako lehiaketa baloratzea:

– Hastapenei lotutako lehiaketa baloratzeko oinarritzko elementuak:

- Banakako eduki tekniko taktikoak.
- Joko kolektiboari buruzko edukiak.
- Eduki psikosozialak.

–Hastapenei lotutako lehiaketa baloratzeko tresnak:

- Txantiloiak.
- Datu-base generikoak.
- Berariazko softwarea.

–Lehiaketa baloratzeko tresnen bidez lortutako datuak interpretatzea:

- Hastapenetan erabiltzen diren erreferentzia-irizpide propioak.

–Ikasteko ondoz ondoko egoeren eragina edota ondorioak.

Orientabide didaktikoak.

Moduluak informazioa ematen du eskubaloia oinarritzko ezaugarriak ezagutzeko eta lehiaketa batean eskubaloia jokoa garatzeko. Komeni da kontuan hartzea bai gaitasun tekniko-taktiko indibidualak, baita joko kolektiboarekin eta gaitasun psikosozialekin zerikusia dutenak ere.

Ikaskuntzako emaitzak lortzeko behar diren edukiak sekuentziatzeari dagokionez, egokitzen hartzen da edukiak aurkezteko hurrenkerari jarraitzea. Horiek horrela, ikaskuntzaren lehen emaitzan, dagokion eduki multzoan trebetasun motorrak eta horiek baloratzeko teknikak edo tresnak identifikatzea lantzen da; horregatik, komeni da ikuspegi teorikoa eta praktikoa izatea. Ikaskuntzaren bigarren emaitzan, zehazki, eskubaloian hasteko saioen programazioari buruzkoan, komeniko litzateke ikasleek edukiak praktikan jartzea, batez ere, programazioaren bidez saio bat antolatzea. Ikaskuntzaren hirugarren emaitza teorikoki egin liteke; izan ere, jokoan aplikatu ahal diren erregelamenduzko hainbat alderdi identifikatzean datza. Ikaskuntzaren laugarren eta azken emaitzan, ikasleek saio baten garapena eta lehiaketa ezagutzea eta horren balorazioa landuko dute.

Ikaskuntzaren emaitzen eta aintzat hartzen dituen edukien arabera, komeniko litzateke moduluaren zati handi bat modu praktikoan lantzea, ikasleak protagonista izan daitezen.

Gelan egin behar diren jarduerari dagokienez, honako hauek proposatzen dira:

–Banakako teknikako ariketen multzoa diseinatzea eta praktikan jartzea, baloia kontrola eta jokalarien mugimenduen kontrola lortzeko.

–Jarduera batzuen programazioa diseinatzea eta jarduerak aztertzea.

Bestalde, modulu horretako ikaskuntzaren emaitza guztiak eskuratu direla erakusteko, proiektu txiki bat egitea proposatzen da. Bertan, ikasleek saio bat diseinatuko dute, eskuratutako ezagutzak aplikatuta, eta oinarritzko kategoriako ekipo baten bidez praktikan azalduko dute.

Modulu hori Jokoaren oinarritzko ezagutzak moduluaren jarraipena izanen litzateke. Hori dela eta, komeniko litzateke ikasleek aurreko moduluan eskuratutako ezagutzak ere kontuan hartzea, eskubaloia buruzko lehena baita.

Modulua: Oinarrizko jardueren eta ekitaldien antolaketa

Kodea: MED-BMBM-104

Iraupena: 20 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Taldea zaintzen du, oinarrizko lehiaketetan parte hartzen duenean, ezarritako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Hautatu dira hastapenetako lehiaketei lotutako araudiak eta erregelamenduak.
- b) Deskribatu dira programatutako jardueren parte hartzeko behar diren dokumentuen ezaugarriak.
- c) Aukeratu dira parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak, eskubaloia hastapenetako lehiaketen praktikaldiko saio batean erabiltzeko.
- d) Prestakuntzari buruzko informazioa jaso eta komunikatzeko modua hautatu da.
- e) Justifikatu da taldean egokiak diren jarreraren eta jokabideen garrantzia.
- f) Teknikariaren jarreraren, jokabidearen eta prestasunaren garrantzia azpimarratu da, taldeari lagun egiteko eta taldea zaintzeko.
- g) Deskribatu dira adinaren arabera berezkoak diren motibazioak eta interesak.

2. Oinarrizko jarduerak eta ekitaldiak antolatzen eta kudeatzen laguntzen du, baliabide materialen eta giza baliabideen beharrak interpretatzen ditu, eta jardueraren edo ekitaldiaren plangintzan ezarritako prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Eskubaloian hasteko jarduerak eta ekitaldiak antolatzeko beharrezkoak diren gidalerroak, edukiak, baimenen kudeaketa eta alderdi logistikoak identifikatu dira, erreferentziazko proiektu orokor batetik abiatuta.
- b) Eskubaloian hasteko jardueren garapenean dauden estamentuak eta horien inplikazio maila desberdinak identifikatu dira.
- c) Parte-hartzaileen gurasoentzako edo legezko tutoreentzako jarduerari edo lehiaketari buruzko informazioa prestatu da, lehiaketan edo jardueran parte hartzeko aitaren baimen eredia barne.
- d) Erreferentziako proiektua abiapuntutzat hartuta, jarduerak zehaztu dira, eta xede diren parte-hartzaileen ezaugarrietara moldatu dira.
- e) Eskaera prozedurak deskribatu dira, eta jarduera programatua garatzeko instalazioak eta baliabide materialak egokitu dira.
- f) Eskubaloia hastapenetan berezkoak diren jarduerak zuzentzean komeni den portaera eta jarrera mota azaldu da, parte-hartzaileen uniformetasuna barne.
- g) Jarduera zabaltzeko teknikak deskribatu dira.

3. Oinarrizko lehiaketetan arbitratzen du, eta, eskubaloia hastapenetara egokituta, jokoaren erregelamendua aplikatzen du.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Arbitrajea eskubaloiko lehiaketen arbitrajeari egokitzeko irizpideak azaldu dira.
- b) Parte-hartzaileek egin dituzten kirolaren aurkako ekintzak eta erregelamenduaren aurkako jokoa identifikatu dira, behar bezala ezaugarritutako praktikaldiko arbitraje saio batean.
- c) Behar bezala ezaugarritutako praktikaldiko arbitraje batean zehapen teknikoak eta diziplina-zehapenak seinaleztatu dira, eta horien betearazpena kontrolatu da.

- d) Deskribatu dira zehapenak aplikatzeko irizpide didaktikoak.
- e) Behar bezala ezaugarritutako praktikaldi batean jokoaren aktari buruzko izapideak behar bezala bete dira.
- f) Baloratu da parte-hartzaileen jarreraren eta jokabidearen garrantzia behar bezala.

4. Parte hartzen du eskubaloi nukleoak sortzen eta garatzen, haien egitura identifikatzen du, eta nukleoaren baliabide materialen eta giza baliabideen beharrak interpretatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Behar bezala ezaugarritu den praktikaldiko saio batean antolaketaren egitura eta funtzionamendua identifikatu dira.
- b) Behar bezala ezaugarritu den praktikaldiko saio batean eskubaloi nukleoen egitura hierarkikoak identifikatu dira.
- c) Eskubaloi nukleoak sortzeko, garatzeko eta handitzeko tokiko zein erkidegoko erakundeen laguntza bideak identifikatu dira, behar bezala ezaugarritutako praktikaldiko saio batean.
- d) Eskubaloi nukleoak sortzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatu dira praktikaldiko saio batean.
- e) Eskubaloi nukleoen garrantzia baloratu da modalitatea sustatzeko.

Edukiak.

Oinarrizko jarduerak eta ekitaldiak.

–Eskubaloian hasteko lehiaketei eta jarduerari lotutako araudia: jardueraren araudi espezifikoak eta erregelamendu ofizialak. Hautaketa irizpideak.

–Hastapen jardueretan parte hartzeko zaintzan erabiltzen diren prozedurak eta dokumentuak:

- Gurasoen baimenak, izena ematea eta beste batzuk.
- Jardueran parte hartzeko baldintzen gaineko informazioa: Egitea eta transmititzea: sare sozialak eta abar.
- Betekizunak egiaztatzea.
- Ondorioak: egitea eta taldearekin eztabaidatzea.

–Jarduera mota zein den, jokalaria hautatzeko irizpideak.

–Eskubaloi jokalariei jarrerak eta jokabideak.

–Teknikarien jarrera eta jokabide egokiak, taldeari eskubaloian hasteko lehiaketetan lagun egiten dietenean.

– Adinaren arabeko motibazioak eta interesak, eskubaloia lotuta.

Oinarrizko jardueren eta ekitaldien antolaketa eta kudeaketa.

–Eskubaloian hasteko jardueren antolaketaren helburuak eta faseak.

–Eskubaloian hasteko jardueren antolaketaren logistika:

- Baimenak eta eskabideak.
- Instalazioak eta materialak: hautatzea eta egokitzea.
- Garraioa.
- Segurtasun neurriak.
- Antolaketa eta kudeaketa: Jardueraren lekua eta ordutegiak. Jarduerako parte-hartzaileen zerrenda.

–Lotutako erakundeak:

- Publikoak.
- Pribatuak.

–Jardueraren ezaugarriei buruzko informazioa: ezaugarriak, oinarrizko edukiak eta baliabideak:

- Gurasoentzat edo legezko tutoreentzat.
- Parte-hartzaileentzat.
- Publikoarentzat.

–Antolatzailearen jarduerak eta jokabidea.

–Eskubaloian hasteko jarduerak eta lehiaketak sustatzeko eta dinamizatzeko estrategiak.

Arbitrajea oinarrizko lehiaketetan.

–Lehiaketa erregelamenduaren oinarrizko aplikazioa: Eskubaloian hasteko egokitzapen irizpideak:

- Joko eremua.
- Baloia maneiatzea.
- Nola jokatu aurkariarekin.

–Arau-haustekak:

- Erregelamenduaren aurkako jokoa.
- Kirolen aurkako jokabidea.

–Zehapenak:

- Teknikoak: noiz aplikatu eta nola gauzatu.
- Diziplinakoak: noiz aplikatu eta nola gauzatu.
- Zehapenak aplikatzeko irizpide didaktikoak.

–Lehiaketari buruzko dokumentuak: aurrez betetzea, ondoren betetzea eta izapideak.

–Arbitroak jokalariekin izaten dituen jarrerak.

–Arbitroak lehiaketako beste parte hartzaile batzuekin izaten dituen harremanak: gurasoekin, zuzendariekin eta abarrekin.

Eskubaloi nukleoak.

–Eskubaloiko nukleo motak (taldea, sekzioa, klub/elkarte/erakundea, delegazioa, federazioa, teknifikazio zentroa eta abar): kasu bakoitzeko ezaugarri bereziak eta xedeak.

–Eskubaloi nukleoen antolaketaren egitura eta arloen funtzionamendua: sustapena, teknifikazioa, baliabideak eta abar:

- Organigramak, funtzionamenduaren oinarrizko egiturak eta harreman hierarkikoak.
- Giza baliabideak eta materialak kudeatzeko teknikak.
- Teknifikazio arloak eta eskolako sustapena.

–Tokiko zein autonomia erkidegoko laguntza instituzionala sustatzeko bideak: baliabideak bilatzeko finantziaketa eta estrategiak.

–Eskubaloi nukleoen kudeaketa teknikaren elementu komunak: sare sozialak eta oinarrizko tresna teknologikoak modu egokian erabiltzea (telefonoa, ordenagailua, tabletak eta abar).

Orientabide didaktikoak.

Modulu honetan topatuko dugu klub bateko antolaketa egiturak eta harreman hierarkikoak ezagutzeko informazioa. Modulua bidez, lehiaketei buruzko araudia, lehiaketetan eta hasierako jardueretan parte hartzeko beharrezko prozedurak eta dokumentazioa ezagutuko ditugu. Halaber, jokalaria hautatzeko

irizpideak eta haien ezaugarriak ezagutuko ditugu, baita teknikarien ezaugarriak ere. Oinarrizko ekitaldien antolaketa eta kudeaketa ezagutuko ditugu, baita oinarrizko kategorietan aplikatzeko arbitrajea ere.

Ikaskuntzaren emaitzen sekuentziazioari eta horiei dagozkien eduki multzoei dagokionez, proposatu egiten da ikaskuntzaren lehen emaitzarekin eta bigarren emaitza paraleloarekin hastea, haien helburua antzekoa delako eta haien artean osatzen direlako. Ikaskuntzaren hirugarren emaitza horien ondoren eman daiteke; eta, azkenik, laugarrena, klubaren egiturari buruzko gai antolatzaileagoak jorratzen baititu, taldearen egiturari buruzkoen ordeiz.

Modulua batez ere teorikoa denez, proposatu egin dugu ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea, oinarrizko tresneriaren kudeaketa errazago ulertzeko. Halaber, proposatu egiten da jarduera osagarriak egitea: esaterako, arbitro bati bisita egitea, Eskubaloï Federaziora bisitan joatea, eskubaloiko kirol klub batera joatea...

Ebaluazioari dagokionez, proposatu egiten da proba objektibo txiki batzuk edota proiektu edo lan txiki bat egitea, ikasleek ikasitako guztia praktikan jar dezaten eta Kirol zuzendaritza, teknifikazio etapan deritzon azken zikloko moduluaren oinarria izan daitezen.

Kirol zuzendaritza, teknifikazio etapan deritzon modulu horri dagokionez, komeni da irakasleen arteko koordinazioa sustatzea, behar ez den errepikapenik eta gain-jartzerik gerta ez dadin.

Modulua: Prestakuntza praktikoa

Kodea: MED-BMBM-105

Iraupena: 150 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu kirol klubaren edo entitatearen antolaketa egitura eta funtzionamendua, eta erlazionatzen ditu jardueren eskaintzarekin, kirol hastapenari dagokionez, edo erabiltzaileak lehiaketetan eta eskubaloj jardueretan laguntzeari dagokionez.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira tokiko edo autonomia erkidegoko antolaketaren egitura eta hark kirol klubarekin edo -entitatearekin dituen erlazioak.
- b) Identifikatu dira kirol klub edo entitatearen antolaketaren egitura eta funtzionamendua.
- c) Identifikatu da praktiketako kirol klub edo entitatearen kirol elkarte mota.
- d) Identifikatu dira kirol klub edo entitatearen barruko erlazio hierarkikoak.
- e) Identifikatu da kirol hastapenari edo erabiltzaileak laguntzeari lotutako jardueren eskaintza.
- f) Bereizi da emakumeen artean eskubaloiko praktikara bideratutako jardueren eskaintza.
- g) Identifikatu dira kirol klub edo entitateak erabilitako laguntza instituzionaleko bideak (tokikoa eta autonomia erkidegokoa).
- h) Identifikatu dira kirol klub edo entitatearen eskubaloj jardueretan dauden balioak.

2. Lanpostuan autonomiaz, ekimenez eta erantzukizunez jokatzeko du, erakutsiz jokabide etikoa, komunikaziorako abilezia pertsonalak, taldeko lana, ingurumenarekiko errespetua, eta aplikatuz enpresak ezarritako prozedurak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira lanpostuaren jarrera beharrezkoak.
- b) Jasotako jarraibideak interpretatu eta bete dira, eta esleitutako lanaren ardura hartu da.
- c) Konpromisoa erakutsi da lana ongi egiteko eta kalitatezko zerbitzua emateko, baita kirol klub edo entitatearen prozedura eta printzipioekiko errespetua ere.
- d) Taldean lan egiteko gaitasuna eta kirol klub edo entitatean ezarritako hierarkiarekiko errespetua erakutsi dira.
- e) Ezarri dira jarduera bakoitzeko arduradun teknikoarekin eta taldekideekin komunikazio eta harreman eraginkorrak, eta tratu atsegina eman zaie.
- f) Taldeko gainerako kideekin koordinaturik lan egin da, eta eman zaie jardueran gertatzen den aldaketa, behar garrantzitsu edo ustekabeko ororen berri.
- g) Egindako jardueretan ingurumenaren errespetuzko jarrera argia erakutsi da, eta hari lotutako barne eta kanpo arauak aplikatu dira.
- h) Aplikatu dira Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Legearen funtsezko alderdiak, eskubalojaren hastapenetako jarduera, lehiaketa eta ekitaldiei dagokienez.

3. Laguntzen du eskubalojaren hastapeneko jarduera, lehiaketa eta bestelako ekitaldiak garatzen, bitartekoak identifikatuz eta erabiliz, erreferentziatzeko programazioak interpretatuz eta prozedurak gauzatuz, ezarritako arauarekin eta jasotako jarraibideekin bat.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Eskubaloiko kirol hastapeneko ekitaldiak eta lehiaketa txikiak antolatzearekin eta kudeatzearekin loturik, identifikatu eta interpretatu dira jasotako jarraibideak eta/edo dokumentazioa.

- b) Lehiaketak irauten duen tarterako, kirolariaren babes eta segurtasun pertsonaleko neurriak interpretatu eta identifikatu dira, kontuan izanik eskubaloien hastapeneko lehiaketaren ezaugarriak.
- c) Eskubaloien kirol hastapeneko jardura, lehiaketa edo ekitaldia gauzatzeko behar diren baimenak eskatzeko kudeaketak egin dira.
- d) Egin dira eskubaloien kirol hastapenetako ekitaldien eta lehiaketa txikien antolaketan eta kudeaketan laguntzeko eta esku hartzeko ekintzak.
- e) Eskubaloien kirol hastapeneko ekitaldi edo jardueretan inskribatzeko parte hartzaileen dokumentazioa jaso da.
- f) Aplikatu dira berrikuspen- eta konfidentzialtasun irizpideak inskribatzeko behar den dokumentazioarekin.
- g) Eskubaloiko jardura edo lehiaketari buruzko informazioa prestatu da, parte hartzaileen gurasoentzat edo legezko tutoreentzat.
- h) Komunikazioa gauzatu du dauden bideen bitartez, teknika eta prozedura egokiak aplikatuz.

4. Eskubaloien hastapeneko saioak zehazten eta gidatzen ditu, eta taldea zuzentzen du lehiaketetan, erreferentziako programazioak interpretatuz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin lotutako prozedurak eta teknikak gauzatuz, eta honelako balio etikoak transmitituz: norberaren gorputzaren errespetua eta zainketa, besteenganako errespetua, joko garbia, erantzukizuna eta eginahal pertsonala.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu eta aukeratu dira jardura garatzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak.
- b) Identifikatu dira saioa garatzeko behar diren ingurumen baldintzak, ezarritako teknikak eta prozedurak aplikatuz, eta errespetatuz eskubaloien hastapeneko jardueretarako ezarritako segurtasun arauak.
- c) Ezarritako protokoloaren arabera egin zaizkio harrera eta agurra kirolariari, haren eskaerak eta beharrak identifikatuz, eta hura motibatuz, eskubaloia praktikatzen segi dezan iraunkorki.
- d) Interesa agertu da kirolariak eta erabiltzaileak erakartzeko, motibatuz eta horiek praktikari atxikitzeko.
- e) Kirolarien abilezia eta trebetasun espezifikoak baloratu dira, horien maila zehazteko, eta, hala, talde batean sar daitezela proposatzeko eta neurri zuzentzaile egokiak hartzeko.
- f) Zehaztu da eskubaloien hastapenetako irakaskuntza-ikaskuntza saioa, erreferentziako programazioari jarraituz, taldeari eta dauden baliabideei egokituz.
- g) Kontuan hartu da eskubaloien garapen naturala, eta era askotako eginkizunak proposatu dira, aldagarritasuna emanen dutenak esperientzia motorretan, kontuan izanik banakoaren ezaugarriak.
- h) Azaldu dira saioaren edukiak, protokoloak eta ezarritako teknikari jarraituz, modu argi eta motibagarrian.
- i) Azaldu dira proposatutako eginkizunen adibideak, ekintza teknikoak gauzatuz, kontuan izanik eskubaloien hastapenetako estandarrak eta ezarritako prozedurak kontuan hartuta.
- j) Ezarri dira eskubaloien hastapenetako beharrezko segurtasun baldintzak, jarraibideak eta arauak interpretatuz eta ezarritako prozedurak aplikatuz.
- k) Zuzendu da eskubaloien hastapenean irakaskuntza-ikaskuntzako saioa, diren gorabeherak konponduz, proposatutako helburuen arabera parte-hartzea eta errendimendua lortzeko, betiere beharrezkoak diren ingurumeneko arauekin eta segurtasun tarteekin bat.
- l) Aplikatu dira komunikazio-estrategiak eta gertakizunen kontrola, kasu bakoitzerako egokiak diren talde-dinamikak erabiliz.

- m) Baloratu da saioaren garapena, eta, horretarako, aplikatu dira behar den informazioa jasotzeko eta prozesatzeko prozedurak, egoki diren erabakiak hartzeko, eta, hala, ikaskuntza-irakaskuntzaren prozesu iraunkorra eta kirol modalitate edo espezialitatearen hastapeneko jarduerak egokitu eta hobetzeko.
- n) Interesa agertu da kirola praktikaren bidez balio etiko, pertsonal eta sozialak transmititzeko: joko garbia eta norbera, besteak eta ingurunea errespetatzea.
- ñ) Kirolaren bidez hezkidetzaren sustatu da.

5. Eskubaloien kirol hastapeneko lehiaketetan kirolariari lagun egiten dio, arauak eta erregulamenduak interpretatzen, eta balioak transmititzeko prozedurak eta teknikak gauzatzen.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Eskubaloien kirol hastapeneko lehiaketan, taldearen edo kirolariaren inskripzioaren egoera egiaztatu da, ezarritako jarraibide eta arauak jarraikitzen.
- b) Lehiaketaren ezaugarrien berri eman zaio taldeari, hari buruzko dokumentazioa interpretatuz.
- c) Aplikatu dira eskubaloien gauzatze tekniko-taktikoa baloratzeko irizpideak, horretarako erabiliz kirol hastapen mailari dagozkion behaketa teknikak eta prozedurak.
- d) Helarazi zaizkio taldeari kirol teknifikazioko lehiaketarako jarraibide teknikoak eta taktikoak, lehiaketaren eta kirolariaren ezaugarriak kontuan hartuz.
- e) Kirolariari lagundu zaie txapelketetan, ezarritako jarraibide eta arauarekin bat.
- f) Zaindu da joko garbiaren balioak, norberaren osasuna eta beste jokalariek errespetatzea eskubaloien kirol hastapeneko lehiaketan parte hartzean, prozedura egokiak aplikatuz eta haren arauak errespetatuz.

6. Gauzatzen ditu lehen sorospenak emateko eragiketak, ezarritako arau eta protokoloak interpretatuz, eta teknikak eta prozedurak aplikatuz, ezarritako jarraibide edo arauarekin bat.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Istripua izan duenaren egoera baloratzeko eragiketak gauzatu dira, jasotako protokolo eta jarraibideekin bat.
- b) Jarduteko sekuentzia ezarri da, ILCOREk (Berpizteari buruzko Nazioarteko Koordinazio Batzordea) ezarritako protokoloaren arabera.
- c) Norberaren segurtasun eta autobabeserako neurriak ezarri dira, lehen sorospenak emateko egoerentarako, ezarritako protokolo eta jarraibideekin bat.
- d) Lesioentarako lehen sorospenak emateko teknikak eta prozedurak aplikatu dira, ezarritako protokolo eta arauarekin bat.
- e) Bizi euskarriko teknikak aplikatu dira, ezarritako protokolo eta jarraibideekin bat.
- f) Kanpoko desfibrilazio erdialdeko eragiketak egin dira, ezarritako protokolo eta jarraibideekin bat.
- g) Istripua izan duenari lehen sorospenak emateko egoeretan autokontrola mantendu da, kontuan izanik ezarritako protokoloak eta jarraibideak.
- h) Istripua izan duenari eta laguntzaileari laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatu dira, kontuan izanik ezarritako protokoloak eta jarraibideak.
- i) Lehen sorospenei loturiko oinarriko terminologia mediko-sanitarioa erabili da.
- j) Norbera birziklatzeko eta eguneratzeko jarrera ona erakutsi da, lehen sorospenearekin lotutako protokolo eta tresnetan.

3. ERANSKINA

ESKUBALOIKO ERDI MAILAKO BUKAERAKO ZIKLOAREN CURRICULUMA

A) *Eskubaloiko erdi mailako bukaerako zikloaren helburu orokorrak.*

a) Eskubaloiko kirol teknifikazioko etaparen ezaugarri teknikoak, taktikoak, fisikoak, psikosozio-logikoak eta lehiaketari buruzkoak identifikatzea eta antzematea, kirolaria baloratzeko eta hautatzeko ezarritako prozedurak aplikatuta.

b) Eskubaloien hobekuntza teknikoaren erreferentziako programazioa aztertzea eta interpretatzea, zereginak aukeratuz eta diseinatuz eta ezarritako metodoak aplikatuz, kirol teknifikazioko programa espezifikoak egokitzeko eta zehazteko.

c) Saioak zuzentzeko eta eskubaloien kontingentzia kontrolatzeko teknikak eta estrategiak deskribatzea, hautatzea eta erakustea, behaketa, kontrol eta dinamizazio prozedurak aplikatuta, eta saioa zuzentzeko suposizioak ebaztea.

d) Eskubaloien teknifikazioko lehiaketaren alorreko auzi teknikoak, taktikoak eta psikosozialak aztertzea, ezarritako prozedurak aplikatuz eta parte-hartzaileen ezaugarriak, kirol taldea eta maila horretako lehiaketetan kirolariak gidatzeko araudia kontuan hartuz.

e) Hondartzako eskubaloiko kirol hastapeneko eta teknifikazioko lehiaketaren alderdi teknikoak, taktikoak eta psikosozialak aztertzea, ezarritako prozedurak aplikatuta eta parte-hartzaileen ezaugarriak, kirol taldea eta araudia kontuan hartuta, maila horretako lehiaketetako kirolariak zuzentzeko.

f) Eskubaloiko eta hondartzako eskubaloiko hastapeneko mailaren alorreko lehiaketa eta ekitaldien antolaketa egitura aztertzea eta lantzea, eta kirol teknifikazioko lehiaketen antolaketa ezaugarriak identifikatzea, beharrezkoak diren administrazio betekizunak, baliabide materialak eta giza baliabideak zerrendatuz eta horiek arautzen dituen lege esparrua aplikatuz, guztia ere lehiaketa eta ekitaldien kudeaketa antolatzeke eta halakoetan kolaboratzeko.

g) Antolaketa ezaugarriak eta baliabide materialak eta giza baliabideak identifikatzea eta aztertzea, kudeaketan eta komunikazioan ezarritako prozedurak aplikatuz, kirol hastapeneko ardura duten beste teknikari batzuk koordinatzeko.

h) Kirol teknifikazioko prozesuan esku hartzen duten aldagaiak identifikatzea eta aztertzea, informazioa jaso eta balioesteko eta programak doitzeko prozedurak aplikatuz, prozesu hori ebaluatzeke.

i) Balioak eta jarrerak eskuratzeko prozesuaren ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea, kirolariengan duten eraginez jabetuz eta horiek arrazoituz, norberaren portaera etikoaren bidez balioak transmititzeko.

j) Konpromisoaren, ongi egindako lanaren eta etengabeko ikaskuntzaren balioak onartu, sustatu eta justifikatzea, balio horiek islatzen dituzten portaeraren alderdi behagarriak deskribatuz, norberaren erantzukizunaren, ahaleginaren eta laneko berrikuntzaren espirituari eusteko, teknikari gisako lanean.

k) Desgaitasuna duten pertsonentzako eskubaloien kirol hastapeneko programak deskribatzea eta aplikatzea, eta desgaitasunen ezaugarriak sailkatzea, aukera berdintasuna sustatzeko.

l) Hondartzako eskubaloien gaineko ezagutzak, erregelamendua eta ekintza espezifikoak aztertzea eta interpretatzea.

m) Hondartzako eskubaloien hobekuntza teknikoaren erreferentziako programazioa aztertzea eta interpretatzea, zereginak aukeratuz eta diseinatuz eta ezarritako metodoak aplikatuz, kirol teknifikazioko programa espezifikoak egokitzeko eta zehazteko.

B) *Modulu profesionalak.*

a) Izena eta iraupena.

Eskubaloiko kirol teknikariaren bukaerako zikloko multzo komun eta espezifikoetako moduluak azaltzen dira zerrenda batean, eta horien izenak eta iraupena ere adierazten dira.

a.1) Multzo komuna.

KODEA	IZENA	ORDUAK, GUZTIRA
MED-C201	Kirol ikaskuntzaren oinarriak	50
MED-C202	Kirol entrenamenduaren oinarriak	60
MED-C203	Kirol egokitua eta desgaitasuna	20
MED-C204	Kirolaren antolaketa eta legeria	20
MED-C205	Generoa eta kirola	10

a.2) Multzo espezifiko.

KODEA	IZENA	ORDUAK, GUZTIRA
MED-BMBM201	Eskubaloiko banakako prestakuntza tekniko taktikoa	50
MED-BMBM202	Joko kolektiboa eskubaloian	60
MED-BMBM203	Eskubaloia teknifikazio etapako metodologia	40
MED-BMBM204	Eskubaloia prestaketa fisikoa	30
MED-BMBM205	Hondartzako eskubaloia oinarritzako ezagutzak	20
MED-BMBM206	Gurpil aulkiko eskubaloia	10
MED-BMBM207	Kirol zuzendaritza, teknifikazio etapan	20
MED-BMBM208	Prestakuntza praktikoa	210

b.1) Multzo komuna.

Modulua: Kirol ikaskuntzaren oinarriak

Kodea: MED-C201

Iraupena: 50 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu kirol teknifikazio (KT) kirolariaren ezaugarriak, nerabezaroaren etaparekin erlazionatuta eta kirol errendimenduan zerikusia duten aldagai psikologikoak aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira nerabezaroaren ezaugarri psikologikoak.
- b) Aplikatu dira kirol teknifikazioaren etapako ezaugarri psikologikoak baloratzeko metodoak.
- c) Aipatu dira nerabeek maiz izaten dituzten ezaugarri sozialak.
- d) Zehaztu dira kirol teknifikazioaren etapan den kirolariaren familia, gizarte eta kirol ingurunea osatzen duten elementuak.
- e) Aplikatu dira nerabeek maiz izan ohi dituen ezaugarri sozialak ebaluatzeko prozedurak.
- f) Deskribatu dira kirol teknifikazioaren etapan ikaskuntza errazten duten faktore psikologikoak: motibazioa, kontzentrazioa, pentsamenduen kontrola eta emozioen kontrola.
- g) Deskribatu dira kirol motibazioaren ezaugarriak eta motak.
- h) Argudiatu da motibazioaren ekarpena kirol teknifikazioa sustatzeko.
- i) Aztertu dira kirol teknifikazioaren etapan motibazioa mantentzeko prozedurak.
- j) Aplikatu dira kirol teknifikazioaren etapako entrenamendu eta lehiaketetan kontzentrazioa eta pentsamenduen eta emozioen kontrola mantentzeko estrategia psikologikoak.
- k) Balioetsi da alderdi psikosozialak kirol teknifikazioaren etapako kirol prestakuntzan integratzeko beharra.

2. Balioesten du kirolariaren hobekuntza tekniko-taktikoaren prozesua, mugimendu ikasketaren ezaugarriak eta parte hartzen duten faktoreak aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira ikaskuntza motorren teoriak.
- b) Aztertu dira ikaskuntza prozesua eta hura erregulatzeko mekanismoak, ekintza motorrak hauteman, erabaki eta gauzatzeko mekanismoetan oinarrituta.
- c) Balioetsi da hautemateko eta erabakitzeko mekanismoak (alderdi taktikoak eta estrategikoak) estimulatzearen garrantzia, gauzatzeko mekanismoak eraiki aurretik (alderdi teknikoak).
- d) Trebetasun motorrak lortzeko, alderatu dira ikasketaren prozesuaren faseak.
- e) Zeregina aztertu da, haren konplexutasuna osatzen duten faktoreak identifikatuz, hauteman, erabaki eta gauzatzeko mekanismoetatik abiatuz.
- f) Aztertu dira ikasleen, trebetasunaren edo/eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren menpeko ikaskuntzan eragina duten faktoreak.
- g) Identifikatu da memoriak ikaskuntzaren prozesuetan duen garrantzia.
- h) Identifikatu da transferentzia, ikaskuntzan kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsu gisa.
- i) Aplikatu dira ikaskuntza motorren printzipioak: ariketa, errefortzua, erretentzioa eta transferentzia.
- j) Definitu dira ebaluazioaren kontzeptua, ezaugarriak eta motak.

- k) Prestatu dira kirolariaren hobekuntza tekniko-taktikoaren prozesua baloratzeko ebaluazio tresna eta prozedura egokiak.
- l) Balioetsi da zereginak kirolariaren garapen maila tekniko-taktikoari egokitzeko beharra, haren garrantzia eta ikasleen motibazioa bermatzeko.

3. Aplikatzen ditu akatsak atzemateko modua ematen duten tresna jakin batzuk, gauzatze teknikoaren eredia aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Kirolak trebetasun teknikoen arabera sailkatu dira.
- b) Identifikatu dira mugimenduaren ezaugarri kualitatiboak eta kuantitatiboak.
- c) Ezarri da mugimendua behatzeko eta aztertzeko prozedura.
- d) Deskribatu da keinu teknikoen analisi biomekanikoaren prozesua, haren fasekako egituraketa, asmo mekanikoa, helburuak, printzipio biomekanikoak eta ezaugarri teknikoak identifikatuz.
- e) Egin da kirolariaren gauzatzearen diagnostikoa, beharrezkoak diren datuak erregistratzeko tresnak aplikatuz.
- f) Teknika aztertu da modu bideragarri, baliotsu eta operatiboan, eskura dauden baliabideen arabera.
- g) Alderatu dira eredu ideala eta gure kirolariarena, hobetzeko jomuga jakin batzuk ezartzeko.
- h) Ezarri dira eraginkortasuna hobetzeko estrategiak, kirolaria eredu tekniko idealera hurbilduta.

4. Aplikatzen ditu oinarritzko entrenamenduaren eta hobekuntza teknikoaren jarduerak gidatu, antolatu eta dinamizatzeko teknikak, metodologia eta kontrol eta dinamizazio prozedura egokiak aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Definitu dira oinarritzko entrenamenduaren eta hobekuntza teknikoaren jarduerak gidatu, antolatu eta dinamizatzeko teknikak.
- b) Deskribatu dira taldearen ezaugarriak kontuan hartuta aplikatzen ahal diren estrategia metodologikoak.
- c) Deskribatu eta aplikatu dira irakaskuntza estilo desberdinak, taldearen ezaugarriak eta eman beharreko edukiak kontuan hartuta.
- d) Balioetsi da banakako praktikarako denbora kalitate irizpide gisa oinarritzko entrenamenduaren (OE) eta hobekuntza teknikoaren (HT) saioetan.
- e) Tokia eta materiala antolatzearen garrantzia balioetsi da OEko eta HTko saio eta zereginetan ikasleen parte-hartzea hobetzeko eta nahi ez diren jokabideak murrizteko faktore gisa.
- f) Antzeman dira teknikariaren posizioaren eta lekualdaketen ondorioak, zereginen kontrol eta dinamizazio faktore gisa.
- g) Balioetsi da teknikariaren jarreraren garrantzia, OEko eta HTko zeregin eta saioetako motibazio eta aktibaziorako faktore gisa.
- h) Aplikatu dira atzeraelikadura (feedback) mota desberdinak haren eraginkortasunaren ikuspuntutik (emaitzen ezagutza eta errendimenduaren ezagutza).
- i) Identifikatu dira atzeraelikaduraren (feedback) administrazioan kontuan hartu beharreko aldagaiak: aplikazio unea, emateko maiztasuna eta kantitatea.
- j) Identifikatu eta aplikatu dira praktika banatzeko modu desberdinak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar ikaskuntzan eragina duen faktore gisa.
- k) Deskribatu eta argudiatu dira OEko eta HTko zeregin eta saioetan nahi ez diren portaeren ezaugarriak eta horien arrazoi posibleak.

- l) Aztertu eta aplikatu dira OEko eta HTko zeregin eta saioetan izan ahal diren jokabide desegokien aurrean teknikariak esku hartzeko neurriak.

5. Interpretatzen du kirol irakaskuntzaren programazioa, osagaiak aztertuz eta jarduerak kirolariaren ikaskuntza etaparen arabera diseinatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira kirol teknifikazioaren programazio motak, printzipioak eta faseak.
- b) Identifikatu dira kirol irakaskuntzako programa baten helburuak, edukiak, baliabideak, metodoak eta ebaluazio tresnak.
- c) Balioetsi da programazioaren garrantzia, kirol ikaskuntzen bilakaera kontrolatzeko elementu gisa.
- d) Oinarritzko gogoetak deskribatu dira kirol hastapeneko programen diseinuan.
- e) Aztertu dira ikaskuntza saioaren ezaugarriak eta egitura, kirol programazioaren oinarritzko unitate gisa.
- f) Aplikatu dira zereginak aldatzeko irizpideak, erreferentziako programaziotik abiatuta kirol ikaskuntzako etaparen arabera.
- g) Identifikatu dira zereginaren konplexutasun elementuak eta haren doikuntza, hura erregulatzeko mekanismoei begira.
- h) Deskribatu dira kirol ikaskuntzako zereginen kontzeptu hauek: progresioa, testuinguruaren interferentzia eta adierazgarritasuna.
- i) Balioetsi da progresioak eta testuinguruaren interferentziak zer garrantzi duten zereginak diseinatu eta aldatzeko, kirol ikaskuntza hobetzeko faktore gisa.
- j) Nabarmendu da kirolariaren zereginerako motibazioaren garrantzia, hobetzeko eta praktikari atxikitzeko elementu giltzarri gisa.

6. Koordinatzen du bere ardura peko teknikarien esku-hartzea, giza baliabideak kudeatzeko teknikak aplikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Bereizi dira teknikarien eginkizunak, entrenatzailearekin koordinatuz.
- b) Definitu dira norberaren ardura peko teknikarien lana koordinatzeko komunikazio teknika eraginkorrenak.
- c) Deskribatu dira taldea gidatzeko estiloak, gidatu beharreko teknikarien ezaugarriak eta egoerak kontuan hartuz.
- d) Prestatu dira talde lanaren gaitasuna eta entzuteko gaitasuna indartzen duten taldeko dinamika.
- e) Balioetsi da elkarlanaren beharra, talde lanaren errendimendua ezin hobea izan dadin.

7. Kirolarientzako tutore lana egiten du haien entrenamendu eta lehiaketetan, jarrera eta balio pertsonalak eta sozialak identifikatuz eta txertatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira kirol teknifikazioaren etapako arazo etiko nagusiak.
- b) Balioetsi da printzipio etikoaren aplikazioak duen garrantzia kirol lehiaketetan parte hartzen denean.
- c) Identifikatu dira kirol teknikariaren jarduteko modu nagusiak, kirol lehiaketan errespetuzko jarrera eta balioak, joko garbia eta talde lana sartzeko.

- d) Balioetsi da jarrera arduratsua eta asertiboa izatearen garrantzia, balio pertsonalak eta sozialak kirolaren bidez transmititzen lagun dezan.
- e) Aplikatu dira kirol lehiaketan sortzen ahal diren arazoak eta gatazka etikoak konpontzeko prozedurak.
- f) Identifikatu dira kirola egitean portaera etikoetan eta moralgabeetan eragina duten testuinguruko elementu nagusiak.
- g) Deskribatu dira kirol teknikariaren lanbideko printzipio deontologikoak.
- h) Deskribatu eta aplikatu dira lehiaketaren egokitze mekanismoak, praktika inklusiboa bultzatzeko kirol teknifikazioaren etapan.
- i) Balioetsi da kirolariaren garapen integrala sustatzearen garrantzia, eta ez teknika eta kirol alderdia bakarrik.
- j) Deskribatu eta aplikatu dira kiroleko jarduera eta balioak ebaluatu eta neurtzeko teknika eta tresnak.

Edukiak.

Kirol teknifikazioko (KT) kirolariaren ezaugarrien identifikazioa.

–Kirolarien ezaugarri psikosozialen analisia, kirol teknifikazioaren etapan:

- Nerabezaroaren ezaugarri psikologikoak.
- Nerabeen ezaugarri sozialak.
- Neska eta mutikoen arteko aldeak nerabezaroan.
- Familia, gizarte eta kirol ingurunearen elementuak kirol teknifikazioan.
- Kirolarien ezaugarri psikosozialak ebaluatzeko metodoen aplikazioa kirol teknifikazioaren etapan, baita haien familia, gizarte eta kirol inguruneak ere.
- Nerabezaroko alderdi psikosozialak kirol teknifikazioaren etapako kirol prestakuntzan integrazeko beharraren balorazioa.

–Kirol teknifikazioaren etapako faktore psikologiko aipagarrien identifikazioa eta kontrola:

- Motibazioa. Ezaugarriak eta motak. Motibazioa kirol teknifikazioaren etapan mantentzeko prozedurak. Motibazioak kirol teknifikazioa sustatzeko duen eginkizun nabarmenaren balorazioa.
- Kontzentrazioa. Ezaugarri psikologikoak. Baliabideen aplikazioa entrenamendu eta lehiaketetako kontzentrazioa mantentzen laguntzeko.
- Pentsamendu eta emozioen kontrola. Ezaugarri psikologikoak. Beldurra porrotari eta lehiaketak aurreko antsietatea. Kirolari gazteen erre sindromea (Burnout). Baliabideen aplikazioa entrenamendu eta lehiaketetako pentsamendu eta emozioen kontrola mantentzen laguntzeko.

Kirolariaren teknika eta taktika arloko hobekuntza prozesuaren balorazioa.

–Ikaskuntza motorren ezaugarrien eta parte hartzen duten faktoreen analisia:

- Ikaskuntza motorrari buruzko teoriak.
- Ikaskuntzaren mekanismoak: hautematea, erabakitzea, gauzatzea eta hura erregulatzeko mekanismoak.
- Kirol ikaskuntzaren faseak. Ezagutzaren fasea (hastapena). Asoziazio fasea (hobekuntza). Automatizazio fasea (menderatzea).
- Hautemate eta erabakitze mekanismoetako ikaskuntzaren garrantzia, gauzatze alderdiei begira.
- Zein faktoreen mende dagoen ikaskuntza. Ikaskuntzan eragina duten eta ikasleen menpe dauden faktoreen identifikazioa: adina, sexua, alde aurreko ezagupenak, adimenaren koefi-

zientea, motibazioa. Ikaskuntzan eragina duten eta trebetasunari dagozkion faktoreen identifikazioa, kontuan hartuta jokoan den mekanismoa eta zereginaren konplexutasuna. Ikaskuntzan eragina duten eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari dagozkion faktoreen identifikazioa: informazioaren transmisioa, aurrerapena, praktikaren banaketa. Zereginak ikasleen beharrei egokitzearen garrantziaren balorazioa.

–Ikaskuntza motorraren printzipioak:

- Ikaskuntza motorraren printzipioen aplikazioa: ariketa, errefortzua, erretentzioa eta transferentzia.
- Transferentzia: ikaskuntza motak eta aplikazioak.
- Memoria.
- Ikasitakoa beste testuinguru batzuetara transferitzearen garrantzia.

–Kirolariaren teknika eta taktika arloko hobekuntzaren prozesua:

- Hobekuntza etapako ezaugarri tekniko-taktikoen identifikazioa.

–Ebaluazioa: kontzeptua, ezaugarriak eta motak:

- Kirolariaren hobekuntza tekniko-taktikoaren prozesua ebaluatzeko prozedura eta tresnen diseinua eta aplikazioa: objektiboak/subjektiboak, kualitatiboak/kuantitatiboak.
- Ikaskuntza berriak eskuratu eta ikasitakoak egonkortu diren neurtzeko ebaluazioaren garrantzia balioestea.

Tresna jakin batzuen aplikazioa akatsak zuzentzeko.

–Mugimenduaren egituraren analisia:

- Kirolen sailkapena haien berezitasun teknikoen arabera.
- Mugimenduaren ezaugarriak: kualitatiboak, kuantitatiboak.

–Analisi biomekanikoaren prozesua:

- Faseetako mugimenduaren egituratzea.
- Mugimenduaren asmo mekanikoa.
- Helburu eta printzipio biomekanikoak.
- Mugimenduaren ezaugarri kritikoak.

–Teknika behatzeko prozesua:

- Behatzeko irizpideak.
- Behatzeko tresnak.

Oinarrizko entrenamenduaren eta hobekuntza teknikoaren jarduerak gidatu, antolatu eta dinamizatzeko tekniken aplikazioa.

–Oinarrizko entrenamenduaren eta hobekuntza teknikoaren jarduerak kontrolatu eta dinamizatzeko prozeduren eta metodologiaren analisia:

- Jarduerak gidatu, antolatu eta dinamizatzeko teknikak.
- Entrenatzailearen estiloak taldeen gidaritzan.
- Estrategia metodologikoak eta irakaskuntza estiloak, taldearen eta jardueraren ezaugarrien arabera.
- Ikasleen praktikarako denboraren balorazioa.
- Jardueren kudeaketa teknikak praktikako denborak eta taldearen kontrola ezin hobea izateko.
- Teknikariaren posizio estrategikoaren garrantzia jardueran.

- Teknikariaren esku-hartze aktiboa zereginetan, ikasleak irabazi eta motibatzeko.
- Atzeraelikadura (feedback) mota desberdinak, aldagaiak eta motak, haren eraginkortasunaren ikuspuntutik (emaitzen ezagutza eta errendimenduaren ezagutza).
- Praktika kontzentratua edo banatua identifikatzea, jarduera motaren eta taldearen ezaugarrien arabera.
- Jokabide disruptiboak eta gatazka egoerak jardueretan.

–Baliabideen kudeaketa nahi ez diren jokabideen aurrean.

Kirol irakaskuntzaren programazioaren interpretazioa.

–Programazioen interpretazioa eta diseinua:

- Kirol programazioaren motak, printzipioak eta faseak.
- Kirol ikaskuntzen programazioaren elementuak: helburuak, edukiak, baliabideak, metodoak eta ebaluazio tresnak.
- Kirol irakaskuntzaren programazioaren interpretazioa.
- Kirol hastapeneko programak prestatu eta aplikatzea.
- Kirol hastapeneko ikaskuntza saioen diseinua.
- Ikaskuntzaren sekuentziak prestatzea; irizpideak aplikatzea kirol ikaskuntzaren zereginak aldatzeko.
- Programazioa, kirol ikaskuntzak ebaluatzeko elementu gisa.

–Egiteko motorrak hautatu eta diseinatzea:

- Egiteko motorrak: konplexutasuna eta zailtasuna, zein faktoreren mende dagoen.
- Egitekoetako aurrerapena, adierazgarritasuna eta testuinguruko interferentzia ikaskuntzaren sekuentzietan.
- Ikaskuntzen aurrerapenaren balorazioa, zereginak diseinatu eta haiek aldatu eta manipulatzeko funtsezko elementu gisa.
- Egitekoak kirolarien ezaugarriei eta interesei egokitzearen garrantziaren balorazioa.

Bere karguko teknikarien esku-hartzea koordinatzea.

–Lantaldeak gidatu eta koordinatzea:

- Lantalde hierarkizatu gabeen dinamika eta ezaugarriak.
- Rolak esleitzea: teknikarien eginkizunak onartu eta betetzea eta argi izatea.
- Lankidetzan aritzeko beharra ebaluatzea.

–Komunikazio teknikak eta taldeak gidatzekoak aplikatzea:

- Komunikazio teknikak, hierarkizatu gabeko taldeak koordinatzeko.
- Gidatzeko estiloak egoeraren eta pertsonen beharretara egokitzea.
- Talde lana eta entzuteko gaitasuna indartzen dituzten talde dinamikak.

Kirolarientzako tutore lana, entrenamendu eta lehiaketetan parte hartzean.

–Jarrera eta balio pertsonal eta sozialak identifikatzea, kirolaren praktikari eta lehiaketari loturik:

- Kirol teknifikazioaren etapako arazo etiko nagusiak: bertan behera uztea, praktikatik bazter-tzea, emaitzak bilatzea.
- Kirol praktikaren testuingurua (klubak, elkarteak, kirol antolatzaileak, arbitroak, hedabideak, eta abar) kirolaren balioak sustatzen eta garatzen.

- Jarrera eta balioak ebaluatu eta neurtzea kirolean: kiroleko balioak neurtzeko teknika eta tresnak (saioen egutegia, test soziometrika, galde-sortak, polaritate profila, eta abar).
- Jarrera eta balio pertsonal eta sozialen transmisioa kirolaren praktikari eta lehiaketari loturik. Kirol teknikariaren ezaugarriak balio pertsonalak eta sozialak kirolaren bitartez transmititzen laguntzeko (enpatia, asertibotasuna, sentsibiltate morala, lidergorako gaitasuna, talde lana sustatzea eta abar). Norberaren erantzukizuna eta asertibotasuna garatu beharra, balio pertsonalak eta sozialak kirolaren bitartez transmititzeko. Kirol ekitaldietan eta lehiaketetan parte hartzean sortzen ahal diren gatazkak konpontzeko estrategiak (role playing, gogoeta aulkia, dilema moralak, eta abar). Kirol teknikariaren printzipio deontologikoak. Lehiaketaren egiturak balio pertsonal eta sozialak garatzea bideratzea (jostetaren izaerari eustea eta guztiok parte hartzea, erregelamendu bidezko aldaketak).

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen bidez, ikasleek teknifikazioko kirolaria nolakoa den ikasi ahal dute, nerabezeroaren etapan kokatzen dute eta haren ezaugarri psikosozial eta sozialak identifikatzen. Orobat, kirol hobekuntzaren etapa honetan eragin handiena duten aldagai psikologikoei loturiko ezagutza ematen du. Bereziki, kirolariaren ikaskuntza teknika eta taktikoa baldintzatzen duten alderdietan du eragina, bere gidaritzapeko kirolari taldearen eta beste teknikari batzuen lider, dinamizatzailer eta kudeatzaile izateari loturiko edukiak ahanzi gabe.

Modulua funtsean teorikoa da eta, gehienbat, behar didaktikoekin bat heldu diren ikus-entzunezkoak eta baliabide informatikoez hornituriko erabilera anitzeko gela batean garatzen da. Dena dela, ona da edukien ikuspegi praktikoa ariketen bidez egitea eta horietan edukiak ingurune errealean aplikatu behar izatea. Beraz, kasu batzuetan beste instalazio batzuen erabilera beharko da, hala nola kiroldegiko pabilioia, gimnasia gela edo erabilera anitzeko gela, saio praktikoko horiek burutzeko.

Hurrengoak bezalakoak dira erabilera anitzeko gelan eta kirol guneetan egitea komeni diren jarduerak praktikakoak:

- Kirolarien aldagai psikologikoak baloratzea. Adibidea: egoera ezin hobeak eta disfuntzioak identifikatzea, errendimenduari begira.
- Analisi biomekanikoa behatzeko eta keinu teknika baloratzeko ariketak egiteak, tresna informatikoak erabiliz.
- Kirol praktikaren denbora aztertzen duten ariketak egitea.
- Feedbacken erabilera aztertu eta baloratzen duen ariketa egitea.
- Egiteko motorrak ikasteko aurrerapena eta haiek ingurune praktikoko bati nola aplikatu diseinatzea.

Edukien sekuentziazioari dagokionez, hobe da mugimenduaren behaketa, analisi eta egiturari buruzkoak mugimenduaren deskribapen espazialari buruzkoen ondoren egitea, Kirol entrenamenduaren oinarriak (MED-C202) izeneko moduluan integratuta.

Ebaluazioari dagokionez, garrantzitsua da hainbat arlotan esku hartzeko funtsezkoak diren oinarri teorikoak ikasi direla ebaluatzea, eta, horrekin batera, ikaskuntzak egoera praktikotako esku-hartzeen analisisira eta diseinura aplikatzeko gaitasuna. Halaber, garrantzitsua da jarrerazko alderdiak ebaluatzea.

Horretarako, proba objektiboak erabili ahal dira, baita beste lan batzuk ere, hala nola lan pertsonala, informazioa eta baliabideak bilatzea, analisisa eta sintesia, lan praktikokoak: ikasteko proposamenak diseinatzea, behaketa fitxak prestatzea, etab. Zein den ere erabiltzen den prozedura, ahal den aldiro, ikasteko balio duen tresnaren ikuspegitik (prestakuntzazko ebaluazioa) begiratu behar zaio, eta ez ebaluazio batutzailearen ikuspegitik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurari eta jarrerari dagozkien alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da prozesua eta ikasleek gelan egindako lanaren emaitzak neurtzea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Modulua: Kirol entrenamenduaren oinarriak

Kodea: MED-C202

Iraupena: 60 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu giza gorputzaren mugimendurako aukerak, eta erlazionatzen ditu segmentu desberdinekin.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira giza gorputzak egin ahal dituen mugimendu motak.
- b) Desberdindu da zer ardatzetan gertatzen diren gorputz segmentuen mugimenduak.
- c) Desberdindu da zer planotan gertatzen diren gorputz segmentuen mugimenduak.
- d) Deskribatu dira gorputz segmentuek plano eta ardatzen arabera egin ahal dituzten mugimenduak.
- e) Deskribatu dira giza gorputzaren mugimenduaren sekuentziak eta posizioak, termino tekniko egokiak erabilia.

2. Identifikatzen ditu gizon eta emakumeen ezaugarri fisikoak, organismoaren eginkizun anatomiko-fisiologikoak ariketa fisikoaren arabera aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira organismoaren egitura eta antolaketa bere egiturazko unitateen arabera (zelulak, ehunak eta sistemak).
- b) Aztertu eta deskribatu dira lokomozio aparatuen egitura eta funtzionamendua (hezurrak, giltzadurak eta muskuluak).
- c) Aztertu eta deskribatu dira nerbio sistemaren egitura eta funtzionamendua ariketari loturik, neuronaren egitura eta eginkizuna kontuan hartuta, eta nerbio sinapsiaren prozesuari loturik.
- d) Aztertu eta deskribatu dira bihotz-hodietako aparatuen egitura eta funtzionamendua ariketari loturik, odolaren, bihotzaren eta odol hodien egitura eta dinamika kontuan hartuta.
- e) Aztertu eta deskribatu dira arnas aparatuen egitura eta funtzionamendua ariketa fisikoari loturik.
- f) Aztertu eta deskribatu dira sistema endokrinoaren egitura eta funtzionamendua, garapenean eta ariketa fisikoan erabakigarriak diren hormonei eta guruin endokrinoei loturik.
- g) Aztertu eta deskribatu da emakumeen ziklo menstrualaren kirol entrenamenduari loturik.
- h) Aztertu eta deskribatu dira digestio sistemaren egitura eta funtzionamendua.
- i) Deskribatu dira organismoaren energia iturriak, eta lotu dira ariketa fisikoarekin duten zerikusiarekin.
- j) Deskribatu dira organismoaren ariketa fisikorako egokitzapen nagusiak.
- k) Balioetsi da eginkizun anatomiko-fisiologikoen garrantzia, kirol entrenamenduaren oinarri gisa.

3. Bultzatzen ditu kirolaren praktika osasungarriak, eta identifikatzen ditu jarraibide higieniko egokiak kirol hastapenaren eta teknifikazioaren etapetan.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira kirola egiteak giza organismoan dituen ondorio positibo aipagarrienak.
- b) Aztertu dira kirola modu desegokian egiteak izan ahal dituen ondorio negatiboak.
- c) Identifikatu dira ariketa fisikoa egiteko kontraindikazio (patologikoak) orokor nagusiak.

- d) Aztertu dira kirol higieen egoki baten onurak.
- e) Bete dira oinarritzko jarraibide batzuk kirola egiteko ekipamenduari eta higieena eta gorputza zaintzeko oinarritzko zainketei buruz.
- f) Egin dira kirolariaren berotze eta hozte ariketa orokorrak.
- g) Aplikatu dira jarrera higieenaren printzipioak egokitzapen fisiko orokorreko ariketak egiteko.
- h) Identifikatu dira nerbio eta muskuluak entrenatzeko osagaien ekintza mekanismo nagusiak.
- i) Identifikatu dira mugimendu egokiaren patroiak.
- j) Identifikatu eta aztertu dira mugimenduaren patroiak gauzatzean egiten diren akatsak.
- k) Aplikatu dira ahalik eta eraginkorrena eta seguruena identifikatutako defizitak zuzentzeko irizpideak.
- l) Identifikatu dira ohiko jarduerak egiteko egokiak diren jarrera ohiturak.
- m) Pertsonen garapen fisikorako kaltegarriak diren ohiturak aztertu dira, batez ere kirolari gazteei dagokienez.
- n) Kirol entrenamenduak kirolarien osasunean dituen ondorioak deskribatu dira.
- ñ) Balioetsi da kirol praktika desegoki baten ondorio negatiboak aurreikustearen garrantzia.

4. Elikatzeko eta hidratatzeko ohitura egokiak eskuratzea bultzatzen du, eta aplikatzen ditu gomendatutako jarraibideak, teknifikazioaren etapako kirol praktikarekin bat heldu direnak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu da eguneko dietak teknifikazioko kirolariari kopuruz eta kalitatez eman behar dizkion kaloria, mantengai eta mikromantengaien kontsumo orekatua.
- b) Aztertu eta aplikatu dira teknifikazioko kirolariek, ariketa aurretik, bitartean eta ondoren elikadura egoki baterako bete beharreko jarraibideak.
- c) Aztertu eta aplikatu dira teknifikazioko kirolariek, ariketa aurretik, bitartean eta ondoren hidratazio egoki baterako bete beharreko jarraibideak.
- d) Deskribatu eta aztertu dira kirol teknifikazioaren etapan gomendatzen diren oinarritzko mantengai gehigarriak.
- e) Identifikatu dira elikadurari eta ariketa fisikoari loturiko akats ohikoenak.

5. Balioesten du gizon eta emakumeen mugimendu egoera orokorra, ebaluazio egokirako teknikak eta metodologia aplikatuta, oinarritzko gaitasun fisikoak bereiziz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu da pertsonaren gaitasun motorraren kontzeptua.
- b) Identifikatu dira koordinazio gaitasunak eta sasoiari lotutako gaitasunak pertsonaren gaitasun motorraren osagai gisa.
- c) Deskribatu eta aztertu dira pertsonaren sasoiari lotutako gaitasunen ezaugarriak.
- d) Deskribatu dira pertsonaren koordinazio gaitasunen ezaugarriak.
- e) Sailkatu eta aplikatu dira sasoiari lotutako gaitasunak baloratzeko tresna eta baliabide nagusiak.
- f) Sailkatu eta aplikatu dira koordinazio gaitasunak baloratzeko tresna eta baliabide nagusiak.
- g) Deskribatu da pertsonak nerabezeroan duen gaitasun motorraren bilakaera.
- h) Balioetsi da zer garrantzi duen sasoiari lotutako gaitasunak neurtzeko metodo objektiboak, fidagarriak eta baliagarriak izateak.
- i) Balioetsi da zer garrantzi duen koordinazio gaitasunak neurtzeko metodo objektiboak, fidagarriak eta baliagarriak izateak.

6. Interpretatzen du programazioa, kirol entrenamenduaren printzipioak eta oinarritzko elementuak deskribatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu eta aztertu dira ezarritako programazio bati loturiko entrenamendu kargen osagai nagusiak.
- b) Deskribatu dira kirol entrenamenduko programazioaren kontzeptu nagusiak.
- c) Aztertu, interpretatu eta konparatu dira kirol programazioaren oinarritzko elementuak.
- d) Aztertu dira kirol programazio guztien mesozikloak.
- e) Aztertu dira kirol programazio guztien mikrozikloak.
- f) Aztertu dira entrenamendu saio desberdinak eta haien ezaugarriak.
- g) Aztertu eta interpretatu dira kirol teknifikazioaren etapako kirol programazioak.
- h) Identifikatu eta aztertu dira kirol programazio guztien erregistro prozedurak.
- i) Aztertu dira kirol entrenamenduaren printzipioak eta kirol programazioarekin duten zerikusia.
- j) Aztertu eta interpretatu dira kirol entrenamendua arautzen duten lege nagusiak.
- k) Balioetsi da programazioak entrenamenduaren prozesuan duen garrantzia.

7. Garatzen du gizon eta emakumeen mugimendu egoera orokorra, gaitasunak entrenatzeko printzipio metodologikoak eta erabilitako baliabideak aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu eta aplikatu dira entrenamendu karga handitzeko printzipioak.
- b) Aztertu eta aplikatu dira indarra entrenatzeko printzipio metodologikoak.
- c) Aztertu eta aplikatu dira erresistentzia entrenatzeko printzipio metodologikoak.
- d) Aztertu eta aplikatu dira abiadura entrenatzeko printzipio metodologikoak.
- e) Aztertu eta aplikatu dira malgutasuna entrenatzeko printzipio metodologikoak.
- f) Aztertu eta aplikatu dira koordinazio gaitasunak entrenatzeko printzipio metodologikoak.
- g) Aztertu eta aplikatu dira indarra entrenatzeko baliabide nagusiak.
- h) Aztertu eta aplikatu dira erresistentzia entrenatzeko baliabide nagusiak.
- i) Aztertu eta aplikatu dira abiadura entrenatzeko baliabide nagusiak.
- j) Aztertu eta aplikatu dira malgutasuna entrenatzeko baliabide nagusiak.
- k) Aztertu eta aplikatu dira koordinazio gaitasunak entrenatzeko baliabide nagusiak.
- l) Balioetsi da gaitasunak entrenatzeko baliabideen eta printzipio metodologikoen garrantzia, pertsonen egoera motor orokorra behar bezala garatzeko.

Edukiak.

Giza gorputzaren mugimendu aukerak identifikatzea.

–Mugimendu motak: biraketa, translazio lineala eta translazio angeluarra.

–Gorputzaren mugimenduaren planoak eta ardatzak.

–Alboko erdiko ardatzeko mugimenduak eta plano sagitalekoak.

–Aurretik atzerako ardatzeko mugimenduak eta plano frontalekoak.

–Luzetarako ardatzeko mugimenduak eta zeharkako planokoak.

–Mugimenduaren deskribapen espaziala.

Gizon eta emakumeen ezaugarri fisikoen identifikazioa.

–Organismoko zelulak, ehunak eta sistemak: egitura eta antolaketa orokorra.

–Mugimenduaren deskribapen espaziala: posizio anatomikoa, ardatz eta plano anatomikoak, posizioaren eta norabidearen terminologia.

–Lokomozio aparatua: hezur, giltzadura eta muskulu nagusiak. Atal anatomiko nagusien egitura eta mugigarritasuna.

–Nerbio sistema: neurona, sinapsia eta nerbio bulkadaren transmisioa.

–Bihotz-hodien aparatua: bihotza, zirkulazioaren erantzuna ariketa egitean, elkarri loturiko kontzeptuak. Bihotz taupaden maiztasuna eta bolumen sistolikoa.

–Arnas aparatua: egitura anatomikoa, biriken gaitasun eta bolumenak; aireztapen erantzuna ariketa egitean.

–Sistema endokrinoa: hormona eta guruin endokrino nagusiak. Hormonen erantzuna ariketa egitean.

–Ziklo menstrualak: ezaugarriak, ariketa fisikoa eta kirola egitean duen eragina, menarkia, lehen eta bigarren mailako amenorreak.

–Digestio aparatua: anatomia eta oinarritzko fisiologia.

–Metabolismo energetikoa: ATPa eta metabolismo bide nagusiak.

–Nerbio eta muskuluen sistemaren egitura eta eginkizuna.

Muskuluak uzkuertzeko prozesua.

–Ariketa fisikoan diharduten sistemen egokitzapenak.

Kirol praktika osasungarriak sustatzea.

–Kirola osasuna: kontzeptua, beste kirol esparru batzuekiko lotura.

–Ariketa fisikoa eta kirola egiteak organismoan dituen onurak: ondorio fisikoak, psikoemozionalak eta psikosozialak.

–Kirola desegoki egitearen arriskuak: ondorio fisikoak, psikoemozionalak eta psikosozialak.

–Ariketa fisikoaren kontraindikazio orokor nagusiak: erabateko kontraindikazioak eta erlatiboak; aurreneurriak.

–Kiroleko higieena: jarraibide orokorrak, higieen eta gorputzeko ohitura eta zainketak, kirol ekipamendua.

–Kirol entrenamenduaren eraginak kirolarien osasunean: onurak (hezur kapitala handitzea, besteak beste) eta praktika desegoki baten arriskuak (emakume kirolariaren triada, besteak beste).

–Egokitzapen fisikorako ariketak egiteko higieen posturala: postura zuzentzeko oinarritzko jarraibideak, onak ez diren ariketak.

Nerbio eta muskuluen entrenamendua: oinarriak, ekintzaren mekanismoak.

–Mugimenduaren patroiak: zer den indarren transmisioa eta zer efizientzia.

–Gauzatzean izaten diren akatsak zuzentzeko jarraibideak.

–Patroi akastunak prebenitu eta zuzentzeko ariketak.

–Ohiko jarduerak egiteko higieen posturala.

–Kirol saioko berotze eta hozte ariketak.

–Kirola egitearen kontrako ohitura osasungaitzak: alkohola, tabakoa eta beste droga batzuk. “Zabor jana”. Elikadura nahasteak.

Elikatu eta hidratatzeko ohitura egokiak hartzen bultzatzea.

–Teknifikazioko kirolarien eguneko elikadura.

- Elikadura, ariketa fisikoaren aurretik, bitartean eta ondoren.
- Hidratazioa, ariketa fisikoaren aurretik, bitartean eta ondoren.
- Mantenugaien oinarritzko gehigarriak.

Gizon eta emakumeen egoera motor orokorraren balorazioa.

- Mugimendu gaitasunak: orokortasunak.
- Koordinazio gaitasunak: orokortasunak.
- Sasoari lotutako gaitasunak: orokortasunak.
- Erresistentzia: erresistentzia entrenatzearen ondorioak, erresistentziaren balorazioa.
- Abiadura: kontzeptua, zein faktoreren mende dagoen, motak, neurketa.
- Indarra: indarraren beharra hainbat kirol modalitatetan, neurketa.
- Mugimenduen hedadura (ADM): kontzeptua, mugimenduaren hedaduran eragina duten faktoreak, neurketa.
- Zalutasuna: kontzeptua, eragina duten faktoreak, neurketa.
- Koordinazioa: kontzeptua, eragina duten faktoreak, koordinazio motak, neurketa.
- Oreka: kontzeptua, eragina duten faktoreak, motak eta neurketa.
- Entrenamenduaren kontrola: tresnak eta sasoiari lotutako gaitasunen eta koordinazio gaitasunen balorazioa.

Programazioa interpretatzea.

- Kirol entrenamendua: kontzeptua, helburuak eta ezaugarriak. Konfigurazioaren elementuak.
- Entrenamendu karga: kontzeptuak, ezaugarriak, oinarritzko elementuak, baliabideak eta aplikazio metodoak, karga kontrolatzea eta handitzea: bolumena, intentsitatea, errekupeazioa, dentsitatea.
- Kirol entrenamenduaren oinarritzko printzipioak.
- Kirol entrenamenduaren oinarritzko legeak: egokitzearen sindrome orokorra, gainkonpentsazioa, errekupeazioa.
- Errendimenduaren faktoreak.
- Entrenamendu aldiak eta zikloak.
- Entrenamendua eta lehiaketa programatzea: helburuak, edukiak, zatikatzea.

Gizon eta emakumeen egoera motor orokorraren garapena.

- Entrenamendu orokorra eta berariazkoa.
- Erresistentzia entrenatzea: printzipio metodologikoak, entrenatzeko baliabideak eta ebaluazioa.
- Abiadura entrenatzea: printzipio metodologikoak, entrenatzeko baliabideak eta ebaluazioa.
- Indarra entrenatzea: printzipio metodologikoak, entrenatzeko baliabideak eta ebaluazioa.
- ADM: printzipio metodologikoak, entrenatzeko baliabideak eta ebaluazioa.
- Koordinazio gaitasunak: printzipio metodologikoak, entrenatzeko baliabideak eta ebaluazioa.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honetan, kirol hobekuntzaren etapan diren kirolarien prestakuntza fisikoa programatu, aplikatu eta ebaluatzen duen teknikariaren ikuspegia jasotzen duten edukiei helduko diete ikasleek. Beraz, ikuspegiak errendimenduaren garapenarekin eta hobekuntzarekin du zerikusia, kirol modalitatearen lehiaketa eremuaren barrenean.

Komeni da organismoaren ezaugarri anatomikoei eta fisiologikoei buruzko ezagupenak, 1. puntuan jaso direnak, moduluaren gainontzeko edukiekin integratzea, adierazgarriagoak izan daitezen ikasleentzat eta ez dadin egin testuingurutik kanpoko tratamendurik.

Modulu hau teoriko-praktikoa da eta, beraz, irakasgaiaren zati bat erabilera anitzeko gela batean emanen da. Bertan ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabiliko dira. Gomendagarria da ikus-entzunezkoen material didaktikoa eta jardueren fitxak izatea, eskola teorikoek ikuspegi ahalik eta praktikoen izan dezaten. Beraz, egokia da ikasleei edukiak ulertzen eta haiek testuinguru jakin batzuetan aplikatzen erraztuko dieten ikus-entzunezkoak garatzea.

Sarean diren beste baliabide didaktiko batzuk erabiltzea ere proposatzen da, modulu honen ikasketaren osagarri. Gainera, kontuan hartuta denboraren zati handi bat praktiketan emanen dela, gimnasioa, kiroldegia edo berariazko instalazio bat izan beharko da, baita ekipamendu egokia ere, lortutako ezagupenak testuinguru erreal batean aplikatzeko helburuz.

Era honetakoak dira iradokitzen diren jarduera praktikokoak:

- Indarra eta erresistentzia baloratzeko testak egitea, zeharkako metodoak aplikatuta.
- Egindako entrenamenduen datuak erregistratu eta informazioa aztertzea.
- Epealdi jakin bateko entrenamenduaren programazioa prestatzea kirolari edo talde batentzat.
- Berotze ariketa batzuk diseinatzea, lesioei aurrea hartzekok barnean harturik.
- Entrenatzeko eta lehiatzeko dieta prestatzea kirolari edo talde batentzat.
- Keinu tekniko baten mugimendu sekuentzia edo posizio bat deskribatzea, ikasitako terminologia erabiliz.

Ebaluazioari dagokionez, garrantzitsua da hainbat arlotan esku hartzeko funtsezkoak diren oinarri teorikoak ikasi direla ebaluatzea, eta, horrekin batera, ikaskuntzak egoera praktikoetako esku-hartzeen analisira eta diseinura aplikatzeko gaitasuna. Halaber, garrantzitsua da jarrerazko alderdiak ebaluatzea.

Horretarako, proba objektiboak erabili ahal dira, baita beste lan batzuk ere, hala nola lan pertsonala, informazioa eta baliabideak bilatzea, analisia eta sintesia, lan praktikokoak: ikasteko proposamenak diseinatzea, behaketa fitxak prestatzea, etab. Zein den ere erabiltzen den prozedura, ahal den aldiro, ikasteko balio duen tresnaren ikuspegitik (prestakuntzazko ebaluazioa) begiratu behar zaio, eta ez ebaluazio batutzailearen ikuspegitik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurari eta jarrerari dagozkien alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da prozesua eta ikasleek gelan egindako lanaren emaitzak neurtzea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Modulua: Kirol egokitua eta desgaitasuna

Kodea: MED-C203

Iraupena: 20 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Antolatzen ditu kirol hastapeneko saioak, desgaitasuna dutenen beharrak aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira desgaitasun mota nagusiak, kaltetutako mekanismo funtzionala eta hautemate motorraren mailako ondorioak kontuan hartuz.
- b) Laneko berariazko jarraibideak bereizi dira kirol hastapenean, desgaitasun moten arabera.
- c) Aplikatu dira desgaitasuna duen pertsonaren mugitzeko moduari buruzko informazioa biltzeko oinarritzko prozedurak (batez ere garraioari, gauzen kontrolari eta oinarritzko trebetasun motorrei buruz).
- d) Berariazko segurtasun neurriak zehaztu dira kirol hastapenean, desgaitasun moten arabera.
- e) Zehaztu dira desgaitasun motaren arabera erabili beharreko orientabide metodologiko nagusiak, batez ere komunikazioari eta zereginean parte hartzeari buruz.
- f) Praktikan hasi aurretik, argudiatu da desgaitasunen bat dutenen ezaugarriak banaka identifikatzaren garrantzia.

2. Aplikatzen ditu desgaitasuna dutenak jarduera fisikoetan eta kirolean parte hartzera bultzatzen dituzten baliabideak, zereginaren ezaugarriak aztertuz eta testuinguruak kirolean aritzeko eragiten dituen mugak identifikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Balioetsi da desgaitasuna duten pertsonak zeregin, joko eta kirolean parte hartzeko dituzten aukerak handitzearen garrantzia.
- b) Aztertu dira desgaitasuna duten pertsonak kirola egiten hasteko bide nagusiak.
- c) Deskribatu dira desgaitasuna dutenentzat zereginak egokitzeko mekanismoak, defizitak konpentsatzen dituztenak.
- d) Aplikatu dira zeregin, joko eta kirolak aldatzeko prozedurak, desgaitasuna dutenen parte-hartzea, gozamina eta arrakasta aukerak bultzatzeko.
- e) Balioetsi da desgaitasuna duten pertsonen egoera praktikoa inklusiboetan aktiboki parte hartzeko sustapenaren garrantzia.
- f) Identifikatu dira kirol instalazio eta eremuetarako sarbideetan dauden oztopoek ekarritako praktikarako muga nagusiak.
- g) Aztertu dira kirol eskaintzaren informazioa jasotzeko eta praktikari zabalkundea emateko gabeziek ekarritako mugak.
- h) Balioetsi da zein garrantzitsua den taldekideek, teknikariek, familiek eta beste erakunde batzuek jarrera positiboa izatea inklusioari dagokionez, desgaitasuna duten pertsonen kirola egin dezaten.
- i) Deskribatu dira joko eta kirol egokitueterako erabilgarri dauden kirol material egokitu espezifikoak aukerak.
- j) Azaldu da zer eratako laguntza teknikoak eskain daitezkeen, pertsonen desgaitasuna eta egiten duten kirola kontuan harturik.

3. Antolatzen ditu desgaitasuna duten kirolariak, interpretatuz kirol egokituaren sailkapen funtzional nagusiak eta kirol egokituaren ezaugarriak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Kontzeptu hauek deskribatu dira: kirolaren sailkapen funtzionala eta gutxieneko desgaitasuna.
- b) Azaldu dira kirolaren sailkapen funtzionalak, desgaitasun motaren arabera.
- c) Justifikatu da kirol egokituaren lehia prozesuak homogeneizatzeko kirolaren sailkapen funtzionalak duen garrantzia, horien arteko desberdintasunak argudiatuz.
- d) Aplikatu dira sailkapena egokitzeko irizpideak, desgaitasuna duten emakumeek, laguntza premia handia dutenek, eta baita desgaitasunik ez duten pertsonak ere parte har dezaten.
- e) Identifikatu dira desgaitasuna duten pertsonentzako joko eta kirol egokitu espezifikoak, berrazkoak direnen ezaugarriak barne.
- f) Onartu da garrantzitsua dela desgaitasuna dutenek egiten dituzten kirol egokitu batzuk bizi izatea egoera simulatuen bidez.
- g) Kirol egokitu aproposena aukeratu da, kontuan izanik ukitutako mekanismo funtzional mota eta kirolaren sailkapen funtzionala.
- h) Balioetsi da desgaitasuna dutenek kirolean parte hartzearen garrantzia, gizartean txertatzeko gako gisa.

4. Desgaitasuna duten pertsonak orientatzen ditu kirola praktikatzera, identifikatuz kirol egokituaren egitura eta eskura dauden informazio iturriak.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Erlazionatu dira desgaitasuna dutenentzako kirolaren jatorria eta egungo kirol egokituaren egitura elkarren artean.
- b) Nazioartean, estatuan eta eskualdean kirol egokitua arautzen duten erakundeak identifikatu dira.
- c) Bereizi dira kirol paralinpikoaren egiturak direnak eta halakoak ez direnak.
- d) Balioetsi da zer eginkizun duten lehiaketa, jolasa eta praktika osasungarria antolatzeko eta sustatzeko erakundeek (kirol federazioak, elkarteak, klubak, etab.).
- e) Desberdindu dira desgaitasuna duen pertsona baten kirol praktikaren jatorria (ospitalea, elkar-
tea, etab.) eta praktikaren helburu desberdinak (errehabilitaziokoa, terapeutikoa, jolasekoa, kirolekoa, etab.).
- f) Deskribatu dira dauden kirol egokituaren programak.
- g) Deskribatu dira kirol egokituaren praktikari eta garapenari zabalkundea emateko programa nagusiak, praktika egokiaren adibide gisa.
- h) Kirol egokituan dauden informazio iturriak erabili dira, desgaitasuna duten kirolariak orientatzeko oinarritzko baliabide gisa.
- i) Kirol egokitua sustatzearen garrantzia baloratu da, balio pertsonalak eta sozialak sortzen dituen aldetik, baita gizartean txertatzeko bitartekoa den aldetik ere.

Edukiak.

Kirol hastapeneko saioen antolaketa.

–Desgaitasunen deskribapena:

- Zentzumenetako desgaitasuna: ikusmenekoa eta entzumenekoa.
- Desgaitasun intelektuala edo garapenekoa; Down sindromea edo desgaitasun intelektuala edo garapenekoa eragiten duten beste patologia batzuk.
- Desgaitasun fisikoa eta organikoa: muineko lesioa, garuneko paralisia eta anputazioak.

- Desgaitasun mota eta pertzepzio eta mugimendu mekanismoarekin duen lotura.
- Desgaitasuna duten pertsonen ezaugarri espezifikoaren hasierako balorazioa.
- Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun motorraz informazioa biltzeko oinarritzko tresnak erabiltzea.
- Desgaitasun motaren arabera, bidezko diren orientazio metodologikoak aplikatzea.
- Kirol praktikan mugak eta segurtasun neurri oinarritzkoak aplikatzea, desgaitasunaren arabera.
- Desgaitasuna duten pertsonak kirolean hasteko, metodologia eta segurtasun egokitzapenak egitearen garrantzia.

Desgaitasuna duten pertsonen jardueren fisikoetan eta kirol jardueretan parte hartzea sustatzen duten baliabideak aplikatzea.

- Desgaitasuna duten pertsonen kirola egitea justifikatzea, horien ongizaterako eta bizi kalitaterako gako diren aldetik.
- Desgaitasuna duten kirola egiten hasteko bideak.
- Identifikatzea testuinguruak zer muga nagusi jartzen dituen kirola egiteko.
- Identifikatzea desgaitasuna duten pertsonen buruz inguruan dauden jarrerak.
- Kirol instalazioetako irisgarritasun unibertsala.
- Jolas eta kirolen bidez gizarteratzea.
- Eginkizunak, jolasak eta kirolak egokitzeko mekanismoak identifikatzea eta erabiltzea.
- Jolasa eta haren orientazio desberdinak aplikatzea dibertsitatearen arretarako elementu gisa.
- Kirol egokituaren materialaren ezaugarriak.
- Kirola praktikatzeko laguntza teknikoak.
- Jolas eta kirolean, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeak duen eginkizuna baloratzea.
- Praktika inklusiboko egoerak bizi izatea, desgaitasuna duten pertsonen parte har dezatela sustatzeko.

Desgaitasuna duten kirolariak antolatzea.

- Kirol egokitu mota, ukitutako mekanismo funtzionalaren arabera.
- Kirolaren sailkapen funtzional nagusiak, desgaitasun motaren arabera. “Gutxieneko desgaitasuna” kontzeptua.
- Sailkapen funtzionalak, parte-hartzea homogeneousatzeko prozesu gisa.
- Desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea aztertzea, desgaitasunaren eraginaren eta sexuaren arabera, partaidetza berdintasunean gerta dadin.
- Desgaitasuna duten pertsonen berdintasunean parte har dezatela kirolean, integratzearen eta partaidetzako faktore gisa.
- Kirol egokituaren ezaugarriak.
- Kirol egokitu espezifikoak.
- Desgaitasunik ez duten kirol egokituak praktikatzeko (alderantzizko integratzea).
- Kirol egokitu nagusietan parte hartzea eta horiek bizi izatea.

Desgaitasuna duten pertsonen kirola egiteko orientatzea.

- Kirol egokituaren jatorria eta historia.
- Kirol egokituaren egitura.
- Nazioarteko Batzorde Paralimpikoa eta Espainiako Batzorde Paralimpikoa.

- Desgaitasuna duen pertsona baten kirol jardunaren jatorria eta haren xedeak.
- Kirol egokituari zabalkundea emateko eta hura garatzeko programak.
- Desgaitasuna duten pertsonen elkarte sarearen eginkizuna kirol jardunari zabalkundea emateko.
- Kirol egokituari buruzko informazio iturri nagusiak.
- Kirol egokitua, balioen sustatzaile eta gizarteratzeko bitarteko.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honek beharrezkoa den prestakuntza ematen du ikasleak gai izateko desgaitasuna duten pertsonekin kirol hastapeneko saioak antolatzeke eta praktikatzeko, desgaitasuna duten pertsona horien parte-hartzea sustatuz jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan eta gizarteratzearen esparruan praktika egokia bermatuz. Halaber, moduluaren helburua da ikasleek ezagutzea kirol egokituaren oinarritzko antolamendua, egitura eta hura arautzen duten erakunde nagusiak. Moduluak kirolekoa eta espezifikoa den sailkapen funtzionalari buruzko funtsezko alderdiak jasotzen ditu, ikasleek ezagutu ditzaten desgaitasuna duten kirolarien praktika aukerak, eta gai izan daitezen kirolariak orientatzeko praktika egokiago batera, norberaren aukerak aintzat hartuta.

Modulu teoriko-praktikoa da, eta, beraz, erabilera anitzeko gela batean garatuko da, ikus-entzuneke bitartekoak eta baliabide informatiko irisgarriak erabili ahal izateko; gainera, kirola praktikatzeko ohiko espazioetan ere garatuko da (instalazio espezifikoak, erabilera anitzeko pabiloia, gimnasioa...). Horrenbestez, komenigarria da material dokumentala izatea, eskolak ikuspuntu praktikagoa batetik garatu ahal izateko, eta material espezifikoak izatea, kirol modalitate batzuk modu praktikagoan garatu ahal izateko (boccia, slalom, goalball, boleia eserita, etab.).

Edukiak modu egokian sekuentziatzeko, komeni da, hasteko, desgaitasuna duten kirolarientzako hastapeneko saioen antolaketari buruzko multzoa lantzea. Jarraian, desgaitasuna duten pertsonen jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan parte hartzea sustatzen duten baliabideen multzoa landuko da. Azkenik, azken bi atalak lantzen ahalko dira; horietan, desgaitasuna duten kirolarien antolakuntzari buruzko eta desgaitasuna duten pertsonak kirol praktika egokira orientatzeko moduari buruzko gaiak landuko dira.

Teorikoki eta praktikoki egin beharreko jardueren tipologiari dagokionez, honelakoak izatea iradokitzen da:

- Desgaitasuna duten pertsonentzako hastapen saio desberdinak egitea eta praktikatzea.
- Egokitutako kirol saioen fitxak diseinatzea eta kirol modalitate desberdinen plangintza orokorrak egitea.
- Desgaitasuna duten kirolarien sailkapena egitea.
- Kirol egokituaren modalitate desberdinak praktikatzea.
- Kirol egokituko modalitateen entrenamendu eta lehiaketetara joatea.
- Desgaitasuna duen kirolari batek kirol bat praktikatzeko aurkitu ahal dituen zailtasunak (materialaren garraioa, oztopo arkitektonikoak...) bizi izateko aukera ematen duten ariketak egitea.
- Berriazko artikulua aztertzea kirol egokituko hastapenari buruz.

Ebaluazioari dagokionez, garrantzitsua da dena ebaluatzea, bai hainbat arlotan esku hartzeko oinarri teorikoak nola ikasi diren, bai ikasitakoa aplikatzeko gaitasuna, egoera praktikokoetan esku hartzeak aztertu eta diseinatzeke; halaber garrantzitsua da jarreraren inguruko alderdiak ebaluatzea.

Horretarako, proba objektiboak erabili ahal dira, baita beste lan batzuk ere, hala nola lan pertsonala, informazioa eta baliabideak bilatzea, analisisa eta sintesia, lan praktikoa: egokitutako saio eta plangintza orokorrak egitea, proposamenak diseinatzea, behaketa fitxak prestatzea, etab. Zein den ere erabiltzen den prozedura, ahal den aldiro, ikasteko balio duen tresnaren ikuspegitik begiratu behar zaio

(prestakuntzazko ebaluazioa), eta ez ebaluazio batutzailearen ikuspegitik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurekin eta jarrerekin zerikusia duten alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da ikasleek ikasgelan egin duten lanaren ebaluazioa egitea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Modulua: Kirolaren antolaketa eta legeria

Kodea: MED-C204

Iraupena: 20 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Interpretatzen du lehiaketako araudia, eta erlazionatzen du estatuko kirol antolaketarekin eta haren egitura administratiboarekin eta kiroleko diziiplina araubidearekin.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira estatuko kirol erakunde garrantzitsuenak eta haien eginkizunak.
- b) Erlazionatu da estatuko kirol legeria haren egitura administratiboarekin.
- c) Identifikatu dira kirol diziplinaren araubidearen ezaugarriak eta eginkizunak.
- d) Deskribatu da lehiaketari aplikatzen zaion kirol diziplinaren araubidea.
- e) Azaldu dira dopatzearekin, bortizkeriarekin eta diziplinarekin lotutako arau-hauste eta zehapen garrantzitsuenak.
- f) Azaldu dira kirol zehapenak komunikatzeko prozedurak.
- g) Identifikatu dira diziiplina organoen (klubak, federazioak, Espainiako Kirol Diziplinako Batzordea) eginkizunak.
- h) Identifikatu dira dopatzeari buruzko araudia aplikatzeko erantzukizuna duten organoak.

2. Aukeratzen eta prestatzen ditu behar diren baliabide materialak eta instalazioak, horien segurtasun baldintzak aztertuz eta indarreko araudiarekin erlazionatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Azaldu dira kirol instalazioen ezaugarriak, funtzionalitatea eta segurtasunaren alderdiekin eta ingurumena babesteko alderdiekin duten erlazioa.
- b) Deskribatu dira kirol praktikarako behar diren ekipamenduek bete beharreko segurtasun irizpideak.
- c) Identifikatu da aplikatzekoa den araudia, kirol instalazioen segurtasunari dagokionez.
- d) Aztertu dira kirol instalazio bateko mota guztietako segurtasun seinaleen esanahia eta eremua.
- e) Aztertu da segurtasuneko oinarritzko zer beharkizun bete behar dituzten kirol instalazioek eta ekipamenduek, erabiltzaile eta langile guztientzat, indarreko araudiarekin bat.
- f) Kasu praktiko batean, aztertu dira kirol instalazio bateko larrialdi eta ebakuazio planen ezaugarriak, desgaitasuna duten pertsonak aintzat hartuz.
- g) Aztertu da kirol instalazio batean zer babes neurri dauden ekintza antisozialen eta kiroleko indarkeriaren kontra.
- h) Balioetsi da zer garrantzi duen kirol instalazio batean larrialdi eta ebakuazio planak ezartzeak.

3. Prestatzen du pertsona edo talde baten lekualdatzea, ezarritako prozedurak eta indarreko araudia aplikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Interpretatu eta bete dira bidaia kudeatzeko behar diren agiriak eta baimenak.
- b) Identifikatu da istripu eta jarduera aseguruiei buruzko araudia.
- c) Alderatu dira istripu aseguruen mota desberdinak lekualdatze kasu baten beharrekin.
- d) Balioetsi da lekualdatzeetan teknikariek taldea kontrolatzeko duten erantzukizuna.

- e) Taldeen lekualdatze kasuetarako, interpretatu da teknikarien erantzukizunari buruzko araudia.
- f) Bidaia plana diseinatu da, kirolari talde bat lekuz aldatzeko kasu praktiko batean.

4. Kirolariak gidatzen eta laguntzen ditu, kirolaren hastapenetako eta kirol teknifikazioko lehiaketetan, lehiaketaren antolaketako ezaugarriak aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Bete da lehiatzaileak inskribatzeko dokumentazioa.
- b) Balioetsi da lehiaketak irauten duen bitartean teknikariek duten erantzukizunaren garrantzia.
- c) Identifikatu dira kirolaren hastapeneko edo teknifikazioko lehiaketa bateko antolaketaren faseak.
- d) Deskribatu dira kirol lehiaketa baten antolaketako eginkizun garrantzitsuenak.
- e) Justifikatu da lege estalduraren garrantzia: lehiaketak irauten duen bitartean kirolariak dituen federazioko lizentzia eta kiroleko aseguruak.

5. Egiten ditu kirol klub baten kudeaketa jarduerak, hura eratzeko eta abiarazteko prozedura egokiak aplikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Jarduketa eremuaren arabera, identifikatu da kirol klub baten eraketa eta funtzionamendua arautzen duen araudia.
- b) Jarduketa eremuaren arabera, identifikatu dira kirol klub bat eratzeko behar diren tramiteak.
- c) Aztertu dira kirol klub bat sortzeko eta kudeatzeko izan ahal diren finantzaketa ekonomikoko bideak, haren ezaugarrien arabera.
- d) Deskribatu dira kirol klub baten oinarritzko antolaketaren ezaugarriak, eta erlazionatu dira haren jarduerarekin.
- e) Balioetsi da kirol klub baten garrantzia, kirol praktika sustatzeko elementu den aldetik.
- f) Identifikatu dira administrazio publikoekin eta izaera pribatuko beste elkarte batzuekin hitzarmenak ezartzerakoan beharrezkoak diren elementuak.

Edukiak.

Lehiaketako araudia interpretatzea:

–Estatuko kirol legeria eta lotutako araudia: xedea, maila eta aplikatzeko eremua.

–Kirolaren Kontseilu Nagusia. Oinarritzko egitura eta eginkizunak.

–Espainiako kirol entitateak: Espainiako Batzorde Olinpikoa eta Espainiako Batzorde Paralinpikoa. Oinarritzko egitura eta funtzionamendua.

–Espainiako kirol entitateak: Espainiako kirol federazioak. Oinarritzko egitura eta funtzionamendua.

–Kiroleko diziplina araudia eta zehapenetarako prozedurak. Diziplina organoen izaera eta eskumenak: Dopinaren Aurkako Estatuko Agentzia, Kirol Diziplinako Espainiako Batzordea, Kirol Ikuskizunetako Indarkeriaren aurkako Batzordea.

Behar diren baliabide materialak eta instalazioak hautatzea eta prestatzea.

–Kirol instalazioak: kontzeptua eta ezaugarri funtzionalak.

–Kirol instalazioetan ingurumena babesteko neurriak:

- Uraren eta energiaren aurrezpena eta erabilera eraginkorra.
- Ingurune fisikoko ukipenak. Hondakinak murriztea, eta birziklapena eta berrerabilpena bulkatzea.

- Kirol instalazioetako segurtasunari buruzko araudia. Erabiltzaileak eta langileak babesteko neurriak.
- Babesa, ekintza antisozialen eta kiroleko indarkeriaren kontra.
- Larrialdi eta ebakuazio planak aztertzea eta aplikatzea.
- Kirol instalazioetako segurtasunari buruzko informazioa. Segurtasun seinaleak interpretatzea.
- Kirol ekipamendua berrikusteko prozedurak.
- Kirol instalazioetako irisgarritasuna.

Kirol hastapeneko eta teknifikazioko pertsona edo taldea lekualdatzeko prestaketa.

–Kirol taldeen lekualdaketa antolaketa:

- Ezaugarriak, kirolariak lekualdatzeko agiri eta baimen motak eta horiek betetzea, aplikatzekoa den araudia.

–Istripu eta jarduera aseguruak aukeratzea. Motak eta ezaugarriak. Aplikatu beharreko arauak.

–Kirol teknikarien erantzukizun zibila:

- Indarreko legeria eta ezaugarriak. Adingabeak laguntzea edo horien tutore aritzea lekualdatzean.

–Kirol taldeen bidaietan teknikariek arauak eta erantzukizunak beren gain hartzea.

Kirol hastapeneko eta teknifikazioko mailetako lehiaketetan kirolariak zuzentzea eta laguntzea, hauek aztertuz.

–Kirol teknifikazioko lehiaketetan parte hartzeko oinarrizko beharkizunak aztertzea:

- Inskribatzeko prozesua, dokumentazioa eta epeak.
- Federazioko lizentziaren tramitazioa eta ezaugarriak: autonomia erkidegokoa eta nazionala.
- Kiroleko nahitaezko asegurua tramitatzea.

–Lehiaketan, kirol teknikarien eginkizunen eta erantzukizunaren analisia.

–Kirol lehiaketen oinarrizko antolaketa eta egitura, fase nagusiak. Antolaketa eginkizunak.

Kirol klub baten kudeaketa.

–Kirol kluba. Motak, ezaugarriak eta oinarrizko egitura.

–Kirol klub baten eraketa eta funtzionamendua.

–Kirol klubak eratze eta inskribatzeko prozedura.

–Kirol klubak finantzatzeko bideak: diru-sarrera berekiak, zeharkako diru-sarrerak, erakunde publikoen dirulaguntzak:

- Klubentzako laguntza eta dirulaguntza motak eta modalitateak. Tramitatze prozedura.
- Administrazioarekiko elkarlan hitzarmenak: protokoloak, klausulak eta eranskinak.
- Kirolerako babesa. Motak eta lotutako araudia.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honetan, kirol lehiaketaren araudiaren eta antolakuntzaren esparrua eta azpiegituren segurtasunaren eta erabilgarritasunaren esparrua landuko dira, bai eta teknikari batek lehiaketan kirolarien antolatzaile eta laguntzaile gisa eta klub baten kudeatzaile gisa ezagutu behar dituen alderdiak ere.

Modulu hau teorikoa da funtsean. Horrenbestez, berau garatzeko ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak dituen gela bat beharko da, ikasleak araudiak eta bestelako informazio interesgarriak kontsultatzeko erakundeen orrietan sar daitezzen, teknikariek kirolariekin eta lan egiten duten erakundeekin lotuta dituzten eginkizunak ikasteko.

Modulu honetan iradokitako jarduera praktikoak honelakoak izan ahal dira:

- Kirol diziplinaren barruan aztertutako edukiekin lotutako kasuak aztertzea.
- Lehiaketetan parte hartzeko izapideak simulatzea.
- Entrenatzaileen erantzukizun zibila eta istripuak estaltzeko aseguruaren kontratazioa aztertzea.
- Kirol babesletza bat eratzeko prozedura simulatzea.
- Kirol klub baten sorrera simulatzea.

Ebaluatzeko, ikasleek eskuratutako ezagutzak lan egingen duten kirol ingurunera egokitze eta aplikatzeko gaitasunak egiaztatze tresnak garatu behar dira. Ildo horretan, komeni da ikasleek edukiei buruz informazioa bilatzeko eta interpretatzeko duten gaitasuna baloratzeko ariketak erabiltzea, bai eta elkar eragiteko eta kirol administrazioen baliabideak aprobetxatzeko duten gaitasuna baloratzeko ariketak ere. Gainera, ikasleek moduluan garatutako ezagutza teorikoak oinarri hartuta egoera zehatzak aztertze duten gaitasuna baloratu behar da. Hala ere, ez dira ahanzi behar jarreraren alderdiak.

Prozedurekin eta jarrerekin zerikusia duten alderdiak ebaluatze, funtsezkoa da ikasleek ikasgelan egin duten lanaren ebaluazioa egitea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Modulua: Generoa eta kirola

Kodea: MED-C205

Iraupena: 10 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Emakumeen kirolaren errealitatea identifikatzen du, haren ezaugarri diren elementu sozialak aztertuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu da generoaren arloko terminologia espezifikoa.
- b) Balioetsi da generoari buruzko aurreiritzi eta estereotipo pertsonalak etengabe autoebaluatearen garrantzia.
- c) Deskribatu dira generoari eta kirol jarduera fisikoa praktikatzeari lotutako aurreiritzi eta estereotipo pertsonal eta sozial espezifikoak.
- d) Identifikatu da emakumeen kirolaren bilakaera, baita bilakaera horretan funtsezkoak izan diren alderdiak ere.
- e) Identifikatu eta kategorizatu dira gizonen kirolaren aldean emakumeen kirolak dituen desberdintasunak.
- f) Hainbat eremutan (eskolako kirola, kirol federatua, etab.) kirol praktikaren indizeak deskribatu dira.
- g) Emakumeek kirola bertan behera uztea eta horren arrazoiak deskribatu eta aztertu dira.
- h) Aztertu da zer egoera duten emakumeek teknikarien eta entrenatzaileen artean, arbitroen kidegoan, eta kirol kudeaketako eremuetan.

2. Sustatzen du emakumea kirol eremuan sar dadila, aztertuz haren ezaugarri berariazkoak, haren testuingurukoak, eta esku hartzeko estrategiak aplikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira emakumeek kirola praktikatzeko dituzten interes eta motibazioak.
- b) Deskribatu dira emakumeek kirola praktikatzekoan topatzen dituzten oztopo nagusiak.
- c) Emakume kirolariaren ongizaterako, balioetsi da gorputzaren irudi osasungarria bultzatzearen garrantzia.
- d) Bizipen pertsonalaren zati gisa, balioetsi da emakume kirolariaren ezaugarri biologiko espezifikoak kontuan hartzearen garrantzia.
- e) Balioetsi da zer garrantzi duen emakumeek kirol jarduera fisikoetan parte hartzeko dituzten aukerak handitzeak.
- f) Aztertu dira emakumeek kirol praktikarekin bat egiteko bide nagusiak.
- g) Balioetsi da emakumeek kirolean parte hartze aktiboa izateko sustapenean jardun inklusiboak duen garrantzia.
- h) Estrategia metodologikoak aplikatu dira emakume kirolarien parte-hartzea bultzatzeko, baita horien arrakasta aukerak bultzatzeko ere.
- i) Balioetsi da zein garrantzitsua den emakumeen kirol praktikarekiko jarrera positiboa izatea taldekideek, teknikariek, familiek eta erakundeek.
- j) Identifikatu dira hizkuntzaren erabilera sexistak, baita hizkuntza erabiliz emakume kirolariak ikusgarri egiteko oinarritzko moduak ere.

3. Emakumeak kirolean sar daitezela bultzatzen du, eta identifikatzen du zer eginkizun duten erakundeek eta emakumeen kirola babesteko ildoek.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira emakumeen kirolarekin lotutako estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko erakundeak.
- b) Balioetsi da erakundeen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren garrantzia, emakumeen kirol jarduera fisikoa sustatzeko.
- c) Balioetsi da zer eginkizun duten emakumeen lehiaketa, jolasa eta jarduera fisikoaren praktika osasungarria antolatze eta sustatzeko erakundeek (kirol federazioak, elkarteak, klubak, etab.).
- d) Deskribatu dira emakumeen kirol jarduera fisikoaren praktika sustatzeko programaren ezaugarri nagusiak.
- e) Balioetsi dira emakumeen kirol praktika sustatzeko eta garatzeko programa nagusiak, jardun-bide egokien adibide gisa.
- f) Balioetsi da emakumeen kirola sustatzearen garrantzia, balio pertsonalak eta sozialak sortzen dituen aldetik, baita gizartean txertatzeko bitartekoa den aldetik ere.

Edukiak.

Emakumeen kirolaren errealitatearen identifikazioa.

- Terminologia espezifikoa. Sexua-generoa. Generoari buruzko aurreiritzia/estereotipoa. Sarbide/ aukera berdintasuna. Eredu androzentrikoak. Itxaropen sozialak.
- Generoari eta kirol jarduera fisikoa praktikatzeari lotutako aurreiritzi eta estereotipo pertsonal eta sozialak.
- Emakumeen kirol jarduera fisikoaren praktikaren bilakaera, eta faktore erabakigarriak.
- Gizonen eta emakumeen arabera ezaugarri desberdinak dituzten kirol modalitateak.
- Emakumeen kirol jarduera fisikoaren praktikaren indizeak, eremu desberdinetan. Eskola eremua. Federazio eremua. Unibertsitate eremua. Jolas eremua.
- Kirola bertan behera uztearen indizeak eremu desberdinetan (eskola, federazioak, unibertsitatea, jolasa, etab.).
- Emakumeek kirol jarduera fisikoa uzteko arrazoiak.
- Emakumeak teknikari, entrenatzaile, kiroleko kudeatzaile eta arbitro kidegoko partaide.

Emakumeak kirolaren eremuan sartzea sustatzen du.

- Kirola jarduera fisikoaren aurrean emakumeek dituzten interes eta motibazio espezifikoak.
- Kirol praktika garatzeko oztopoak.
- Emakume kirolarien gorputzaren irudia:
 - Gorputz irudi positiboaren eta negatiboaren ezaugarriak.
 - Emakume kirolariaren gorputz irudi positiboa sustatzeko estrategiak.
- Emakumeen ezaugarri biologikoen eragina kirolariaren garapen psikosozialean (menarkia, amenorrea, ziklo menstrual, heldutasun fisikoaren denborazkotasuna).
- Esku hartzeko estrategiak, emakumeak osoki gehitu daitezzen kirol jarduera fisikora:
 - Parte hartzeko aukerak.
 - Sarbideak.
 - Jardun inklusiboak.

- Metodologiako estrategiak.
- Jarrera positiboak sustatzea eragile sozialengan (kideak, teknikariak, familiak, etab.).

–Hizkuntza. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista. Hizkuntza inklusiboa. Oinarrizko estrategiak.

Emakumeak kirolaren munduan sartzeko babesak.

–Emakumeen kirolaren ardura duten erakundeak. Eremita nazionala. Autonomia mailako eremua. Tokiko eremua.

–Erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana, emakumeen kirol jardura fisikoa sustatzeko.

–Emakumeen kirola sustatzeko eta garatzeko programak. Ezagutza nagusiak. Jardunbide egokiak adibideak.

–Kirol jardura fisikoa, balio sortzaile emakumeen artean: balio pertsonalak eta sozialak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honetan emakumeen kirolaren errealitate soziala lantzen da, emakumeak kirolaren munduan sartzeko estrategiek oinarri izan behar dituzten jarraibideentzako abiapuntu gisa. Eta, azkenik, emakumeen kirola sustatzeko lanaren lagungarri diren baliabideak azaltzen dira. Horrenbestez, komeni da curriculum garapen honetan ezartzen den edukien sekuentziari jarraitzea.

Modulu hau teorikoa da nagusiki, eta ikus-entzunezko bitartekoak eta bitarteko informatikoak dituen gela batean eman beharko da, ikasleek dokumentatzeko aukera izan dezaten eta beren kirol erakundeen errealitate sozialera aplikatu ahal izateko estrategia eta baliabideak bila ditzaten.

Ikasleek eskuratutako ezagutzak finka ditzaten eta faktore diferentzial horren kontzientzia har dezaten, honelako jarduerak egitea gomendatzen da:

–Emakumeek kirol jardura uzteko arrazoiei buruzko foroetan parte hartzea.

–Emakumeen kirolaren faktore bereizleei buruzko foroetan parte hartzea.

–Emakumeek klub bateko ingurunean duten parte-hartzea aztertzea eta parte-hartze hori sustatzeko estrategiak zehaztea.

Ebaluazioari dagokionez, komeni da jakitea emakumeek kirolaren inguruan duten egoerari buruzko ezagutzen eta sentsibilizazioaren maila zein den, eta ikasleek zer-nolako gaitasuna duten emakumeek kirol jardueretan parte har dezatela ahalbidetuko duten estrategiak ezartzeko.

Horretarako, ohiko ebaluazio prozedurez gain, aintzat hartzekoak dira ikasleek eztabaida foroetan egiten dituzten ekarpenak. Horretaz gainera, ikasleek jasotako ezagutzak beren ingurunera egokitzeko duten gaitasuna ebaluatu behar da; horretarako, hausnarketa egiteko, egoerak aztertze, ondorioak ateratzeko eta hobetzeko gomendioak egiteko bide emanen dieten lanak agindu behar zaizkie. Zein prozedura erabili den alde batera utzita, ahal dela, ikasteko balio duen tresna izateko ikuspegitik (presakuntzazko ebaluazioa) begiratu behar zaio, eta ez ebaluazio batutzailetik soilik, batez ere jarreraren kontuak ebaluatu behar direnean.

Prozedurekin eta jarrerekin zerikusia duten alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da ikasleek ikasgelan egin duten lanaren ebaluazioa egitea, baita ikaslearen gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

b) Lanbide moduluen garapena.

b.2) Multzo espezifikoa.

Modulua: Eskubaloiko banakako prestakuntza tekniko taktikoa

Kodea: MED-BMBM201

Iraupena: 50 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Eskubaloi jokoaren oinarrizko oinarriak identifikatzen ditu, eta faktore intentzionalak eta mekanikoen benetako jokoan eta entrenamenduan duten garrantzia arrazoiatzen du.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Azaldu da alderdi mekanikoen eta intentzionalen unitate zatiezina osatzen dutela benetako jokoan.
- b) Arrazoiatu da joko intentzionala garatzeko erabakiak hartzeak jokoan duen garrantzia.
- c) Arrazoiatu da jokoaren ekintzen eraginkortasun mekanikoen garrantzia.
- d) Arrazoiatu da joko-ekintzak egokitzeko (itxi gabe) egitearen garrantzia.
- e) Ezarri dira jokoan erabaki hobeak hartzeko aukerak, entrenamenduaren bidez.
- f) Ezarri dira egokitzapen exekuzioa hobetzeko aukerak, eta behar diren eraginkortasun mekanikoen parametroei eutsi zaie entrenamenduaren bidez.

2. Erasoan jokatzeko banakako ekintzak egitea baloratzen du, eta, horretarako, alderdi mekanikoen eta intentzionalak aztertzen ditu, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatzen ditu, eta kausekin lotzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Baloratu da erasoaldiko banakako ekintza tekniko taktikoen gauzatzean aniztasun teknikoen duen garrantzia.
- b) Aztertu dira erasoaren ekintza tekniko taktiko bakoitza egiteko modua baloratzeko erabili diren faktore mekaniko eta intentzionalen lotutako irizpideak.
- b) Bereizi dira baloia garraiatzeko modu bakoitzaren onurak eta eragozpenak.
- d) Identifikatu dira baloia garraiatzeko modu bakoitzaren oinarri mekaniko eta intentzional komunak eta espezifikoak.
- e) Aztertu dira baloia garraiatzeko moduen berezko alderdiak (egokitzea, maneiatzea, uretaratzea, pasatzea eta jasotzea).
- f) Aztertu dira baloia garraiatzeko modu bakoitzaren berezko alderdi mekanikoen.
- g) Identifikatu dira eraso-jokoan edozein desplazamendu motatan ohikoak diren alderdi mekanikoen, eta ezarri dira baloiekin egiten diren joan-etorrien eta hura gabe egiten direnen arteko desberdintasunak.
- h) Aztertu dira defendatzaileen kontrola saihesteko egiten diren mugimenduen alderdi intentzionalak eta mekanikoen, baloirik gabe eta baloiekin.
- i) Aztertu da defendatzaileak finkatzeak joko kolektiboan duen eragina.
- j) Aztertu dira esku bakarrez atera jaurtitzeko erabiltzen diren potentziari eta zehaztasunari lotutako alderdi mekanikoen eboluzionatuak.
- k) Aztertu dira jaurtiketaren eraginkortasunean eragina izaten duten nahita sortutako faktoreak.
- l) Deskribatu dira etapa horretako erasoaldietako ekintza tekniko taktikoen egitean ohikoenak diren akatsak, baita horien kausa posibleak ere.

3. Defentsan jokatzeko banakako ekintzak egitea baloratzen du, eta, horretarako, alderdi mekanikoak eta intentzionalak aztertzen ditu, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatzen ditu, eta kausekin lotzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira markaketaren ezaugarriak, egokitzeko jardueratzat hartuta.
- b) Aztertu dira markaketaren alderdi fisikoak eta intentzionalak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- c) Justifikatu da markaketan defendatzailearen jarrerak duen garrantzia.
- d) Aztertu dira laguntza moten alderdi intentzionalak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- e) Aztertu dira erasotzaileen mugimenduaren aurkako ekintzen balorazio tekniko eta taktikoaren oinarriak.
- f) Aztertu da jokalaria batek erasotzaileen mugimenduari aurka egiteko jardueran egiten duen ekarpen tekniko-taktikoa, behar bezala ezaugarritutako praktikaldiko saio batean, eta identifikatu dira akatsak eta balizko kausak.
- g) Aztertu dira baloia gelditzeko modu askotarikoen alderdi mekanikoak eta intentzionalak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- h) Aztertu dira baloia blokeatzearen alderdi mekanikoak eta intentzionalak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- i) Aztertu dira erasotzaileen mugimenduaren aurkako ekintzen balorazio tekniko eta taktikoaren oinarriak.
- j) Baloratu da baloia gelditzeko ekintza dinamikoen garrantzia, eta defendatzailearen eragin eremuan zer ekarpen egiten duten.
- k) Aztertu dira jokalarien defentsa-ekintzen disuasio ondorioak.

4. Atezainaren jokoaren ekintzak egitea baloratzen du, eta, horretarako, alderdi mekanikoak eta intentzionalak aztertzen ditu, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatzen ditu, eta kausekin lotzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira atezainaren oinarritzko posizioen alderdi mekanikoak, errore ohikoenak eta horien balizko kausak.
- b) Aztertu dira atezainaren lekualdatzeen alderdi mekanikoak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- c) Aztertu dira hainbat eremutatik egindako jaurtiketen geldialdien alderdi mekanikoak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- d) Aztertu dira atezainak jaurtiketen aurrean egiten dituen ekintzen alderdi intentzionalak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- e) Aztertu dira atezainak atzera biltzen betetzen duen parte-hartzea, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- f) Aztertu dira atezainak kontraerasoan eta erdialdeko sake azkarretan duen parte-hartzea, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- g) Baloratu da atezainak jaurtiketetan izaten duen eginkizuna, jokalaria horien jarduera nagusitzat eta bereizgarritzat hartuta.

Edukiak.

Eskubaloien oinarritzko ezagutzak. Faktore intentzionalak eta mekanikoak benetako jokoan eta entrenamenduan.

–Jokoan erabakiak hartzeko gakoak:

- Erabakiak hartzea: prozesu arrazionala eta intuitiboa.
- Inkontziente kognitiboaren garrantzia.
- Erabakiak hartzea: entrenamenduaren bitartez hobetu egiten da.
- Erabakiak hartzea: gizarte-inguruneak eragindako gaitasuna:
 - Proposatzen diren ariketen ezaugarrien garrantzia.
 - Entrenatzailearen eta jokalarien arteko elkarrekintzaren garrantzia.
 - Taldearen bilakaeraren garrantzia: taldearen eragina eta jokalarien arteko elkarrekintza.
 - Edukien hierarkiaren garrantzia.

–Jokoa gauzatzeko gakoak:

- Eraginkortasun mekanikoa: eraginkortasunez eta efizientziaz exekutatzea.
- Jokoaaren ekintzak eraginkortasunez exekutatu beharra.
- Betekizun biak aldi batera exekutatu beharra.
- Exekutatze modua mekanikoki hobetzeko lanaren oinarriak:
 - Hobekuntza mekanikoa: errepikatzearen eta doiketa biomekanikoaren garrantzia.
 - Exekutatzearen barietate mekanikoaren garrantzia.
 - Egokitze gaitasunaren garapena.
 - Entrenamendu teknikoaren hobekuntza propiotzeptiboa hobetzearen garrantzia.
- Exekutatzea baldintzatzen duen proposamen bat: kideen eta aurkarien arteko elkarrekintza eta proposamen horren ondorio mekanikoak:
 - Aurkarien erantzun denbora murriztea.
 - Informazioa murriztea.
 - Informazio faltua omititzea.

Erasoaldiko banakako ekintzak.

–Baloia mugimendua:

- Baloia garraiatzeko modu bakoitzaren eskaera komunak eta aukerak: egokitzea, maneiatzea, botatzea, pasatzea eta hartzea: segurtasunetik intentzionalitatera.
- Doitasuna eta segurtasuna: kontzeptu bien arteko aldea.
- Baloia maneiatzea eta egokitzea:
 - Xehetasun teknikoak: mugimenduen arintasuna eta naturaltasuna.
 - Intentzionalitatea: bidaltzen den informazioaren garrantzia.
 - Intentzionalitateari eta exekutatzeari lotutako akats ohikoenak eta zuzenketa.

–Botea:

- Baloia botatzea: alderdi mekanikoak. Botatzean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Botea intentzionalitatez egitea.
- Baliabideen sailkapena.

–Baloia pasatzea eta hartzea: pasatzea:

- Segurtasuna eta doitasuna baloia pasatzeko teknika gisa:
 - “Beso armatu” bidez pasatzea eta baloia pasatzeko beste modu batzuk.
 - Mugimenduaren bitartez pasatzea.
 - Norabide guztietan pasatzea, gorputzaren orientazioa aldatu gabe.

- Paseak exekutatzea: akats ohikoenak identifikatzea eta nola zuzendu.
 - Alderdi intentzionalen garrantzia. Banakako taktika:
 - Aukeraketen jakitea. Aukeraketaren oinarriak hobetzen jakitea.
 - Pasearen aurkakotasuna gainditzeko jakitea.
 - Pase intentzionala erabiltzean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
 - Pase motak. Barietate teknikoaren garrantzia.
- Baloia pasatzea eta hartzea: hartzea:
- Segurtasuna eta doitasuna, baloia pasatzeko teknika gisa.
 - Alderdi intentzionalen garrantzia. Banakako taktika.
 - Baloia hartze motak.
 - Hartzeak exekutatzea: akats ohikoenak identifikatzea eta nola zuzendu.
- “Baloia mugitzeko” jarduerari buruz jokalariek egiten duten balorazioa:
- Balorazio teknikoaren oinarriak.
 - Balorazio taktikoaren oinarriak.
- Jokalariek erasoaldian egiten dituzten mugimenduak:
- Arriskua sortzea lekualdatzeetan: atera jaurtitzeko inguruabar egokiak konkistatzea.
 - Baloirik gabe jokatzeko desmarkatzea:
 - Teknika: baliabide mekanikoak lekualdatzeetan menderatzea:
 - Akats ohikoenak eta nola zuzendu.
 - Banakako taktika: alderdi intentzionalak:
 - Eraso egiteko eta defendatzeko desmarkatzeen arteko orekaren beharra.
 - Zeharkako desmarkaketak: aprobetxamendua.
 - Aurkakotasuna dagoela, jaurtiketa egiteko egoerak konkistatzea, desmarkaketa modu gisa.
- Defendatzaileak gainditzeko, baloia edukita: iskinak.
- Iskin egiteko faseak.
 - Teknika: erregelamenduzko baldintzatzaileen garrantzia.
 - Iskinen hobekuntza intentzionala: prozesu hiperreflexiboei aurrea hartzeko garrantzia (prozesu intuitiboen nagusitasuna).
- Iskin motak.
- Aurkakotasuna dagoela, jaurtiketa egiteko moduak.
- Finkarazteak: erasoaldiko kideen inguruabarrak hobetzea.
- Finkarazte bikoitiak eta bakoitiak:
- bien ondorio kolektiboak.
 - Erasoaldiko kideen lana baliatzea.
- 1x1 jokoa modu globalean heltzea:
- 1x1 jokoa alderdi intentzionalak.
 - Eskara kolektiboak egokitzea.
- “Erasoaldian mugitzeko” jarduerari buruz jokalariek egiten duten balorazioa:
- Balorazio teknikoaren oinarriak.
 - Balorazio taktikoaren oinarriak.

–Jaurtiketak.

- Jaurtiketa egiteko ahalmena handitzea:
 - Ekintza eremua handitzea: eraginkortasuna lortzea, eremu gero eta handiagoetatik.
 - Gero eta deserosoagoak diren gorputz posizioetatik eraginkortasuna lortzea.
 - Aurkakotasun handiagoa gaindituta, eraginkortasuna lortzea.
- Teknikakzio etapan jaurtiketa baloratzea eta hobetzea:
 - Exekutatu aurretiko istantean jaurtiketaren inguruabarrak baloratzea eta hobetzea.
 - Exekutatzea baloratzea eta hobetzea:
 - Indarra eta doitasuna hobetzea. Alderdi mekaniko eboluzionatuen garrantzia:
 - Palanken zabaltasuna.
 - Exekutatzearen sinkronia: mugimenduak kateatzea.
 - Hobekuntza tekniko/taktiko bilakatua:
 - Kokapen eta exekutatze anitzak.
 - Behaketa: bi planotan behatzea.
 - Haridura: harritzeko gaitasuna.
 - Benetako joko egoeran jaurtiketa baloratzea eta hobetzea.

Defentsaldiaren banakako ekintzak.

–Erasotzaileen mugimenduari aurka egitea:

- Markaketa: jardura egokitzailea.
- Teknikakzio etapan markaketa definitzen duten elementu fisikoak:
 - Egoera.
 - Aurkariarekiko distantzia.
 - Orientazioa.
 - Keinua: oinarritzko posizioa (berehalako esku-hartzea) eta esfortzua aurrezteko posizioa.
 - Baloia duen jokariaren markaketaren berariazko xehetasunak.
- Markatzean eragina izaten duten alderdi intentzionalak: jarrera, aurea hartzea eta erreakzioa, muturreko aukera gisa.
- Markatzearen baldintzatzaile iraunkorrak.
- Markaketaren baldintzatzaile aldakorrak.
- Laguntzak: egoera txarrak amortizatzea.
- Defentsarako zenbakizko egoera okerrak onartzea. 1x2 defendatzea:
 - 1x2 defendatzea, ezusteko egoeretan.
 - 1x2 defendatzea, aurreikus daitezkeen egoeretan.
- Laguntzen alderdi intentzionalak:
 - Nahitaezko laguntzak eta aukerako laguntzak.
 - Jarreraren garrantzia.
- Laguntza motak:
 - Kideen defentsaren akatsak zuzentzeko laguntzak.
 - Akatsak egin aurretiko laguntzak.

–«Aurkarien mugimenduari aurka egiteko» jarduerari buruz jokalariek egiten duten balorazioa:

- Balorazio teknikoaren oinarriak:
 - Oreka eta oinarrizko posizioak.
 - Lekualdatzeak, oinarrizko posizioan eta lasterketan.
- Balorazio taktikoaren oinarriak:
 - 1x1 moduko eraginkortasuna.
 - Laguntzeko gaitasuna.

–Aurkarien mugimenduari aurka egitean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

Baloia mugimenduari aurka egitea:

- Baloia gelditzea: baloia berreskuratzea, baloia mugimendua desegitea.
- Baloia gelditzearen alderdi mekaniko garrantzitsuak.
- Baloia gelditzearen alderdi intentzionalak:
 - Eremu propioa defendatzea.
 - Urrutiko baloiei eraso egitea.
 - Disuasioa, ondorio eta arma gisa.
 - «Balizko eremura» egokitzea.
 - Baloia gelditze motak: estatikoak eta dinamikoak.
 - Akats ohikoenak eta balizko kausak.
- Blokatzeak:
 - Zereginaren garrantzia, defentsa-jokoan.
- Blokatzeen alderdi mekanikoak.
- Blokatzeen alderdi intentzionalak: erasotzailearekiko distantzia, erabakitze funtsezko elementuak hartuta.
- Blokatzeko gaitasunaren ondorioz, jaurtiketa bertan behera uztea.

–«Baloia mugimenduari aurka egiteko» jarduerari buruz jokalariek egiten duten balorazioa:

- Balorazio teknikoaren oinarriak.
- Balorazio taktikoaren oinarriak: "balizko eremura" egokitzea.

–Baloia mugimenduari aurka egitean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

Atezainaren jokoari aurka egitea:

–Atezainaren defentsa ekintzak.

–Jaurtiketen aurrean egiten diren ekintzak:

- Alderdi mekanikoak:
 - Oinarrizko posizioa. Orokorra eta espezifikoak:
 - Oinarrizko posizioan egiten diren akats ohikoenak.
 - Lekualdatzeak:
 - Gogoeta orokorrak.
 - Jaurtiketa eremuaren arabera gogoeta espezifikoak.
 - Lekualdatzeetan egiten diren akats ohikoenak.
 - Geldiketak:
 - Kanpoko jaurtiketen teknika.

- Piboten jaurtiketen teknika.
- Angelu txikiko jaurtiketen teknika.
- Geldiketetan egiten diren akats ohikoenak.
- Alderdi intentzionalak:
 - Alderdi intentzional orokorrak:
 - Eskubaloiko atezainaren entrenamendu taktikoaren garrantzia.
 - Gaitasun pertzeptiboa hobetzea.
 - Erabakiak hartzeko prozesua arintzeko elementuak.
 - Jokoaren pizgarrien arabera jokatzeari:
 - Funtsezko gogoeta taktikoak, jaurtiketa urrunetik egin behar denean.
 - Funtsezko gogoeta taktikoak, jaurtiketa hurbiletik egin behar denean.
 - Akats taktiko ohikoenak.
- Atezainaren beste defentsa ekintza batzuk:
 - Atzera biltzean parte hartzea:
 - Disuasioa:
 - Gogoeta teknikoak.
 - Erregelamenduzko gogoetak.
 - Baloia gelditzea:
 - Gogoeta teknikoak.
 - Erregelamenduzko gogoetak.
 - Atzera biltzean atezainak egiten dituen akats ohikoenak.
- Atezainaren ekintza erasotzaileak:
 - Ateko sakeak:
 - Gogoeta orokorrak.
 - Gogoeta espezifikak:
 - Zuzeneko kontraerasoa.
 - Zuzenak ez diren kontraerasoetako lehen pasea.
 - Kontrako gola.
 - Erasaldian parte hartzea:
 - Kontraerasoan edo erasotzeko posizioan laguntzea.
 - Erasaldiko zazpigarren jokalaria gisa.
 - Atezainaren akats tekniko ohikoenak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honetan, eskubaloien elementu tekniko-taktikoak aztertu eta interpretatzen dira, eta banakako teknika taktikaren ezagutza sakontzen da. Era berean, eskubaloien oinarriko elementu tekniko taktiko indibidualak ezagutzen eta erabiltzen jakitea lantzen da:

- Elementu tekniko taktiko indibidualak erabiltzean jokalarien errendimendua zehazten duten faktoreak identifikatzen dira.
- Eskubaloien banakako elementu tekniko taktikoen ezagutza sakontzen da, eta haien eskakizunak aztertzen dira.

–Jokoaren oinarrizko oinarriak identifikatzen dira, eta nabarmendu egiten da alderdi mekanikoen eta intentzionalen benetako jokoan unitate zatiezina osatzen dutela.

Ikaskuntzaren emaitzak dagozkien eduki multzoekin ematea iradokitzen da, moduluan agertzen diren ordenan. Horrela, ikaskuntzaren lehenengo emaitzan eduki teorikoak biltzen dira, eta horietan, faktore intentzionalak eta mekanikoen entrenamenduan eta benetako jokoan duten garrantzia argudiatzen da. Ikaskuntzaren bigarren emaitzan, erasoan jokatzeko banakako ekintzak lantzen eta baloratzen dira, eta erasoan banakako elementu tekniko taktikoak aztertzen dira, baita alderdi intentzionalak eta mekanikoak ere. Ikaskuntzaren hirugarren emaitzan eduki praktikoak lantzen dira, defentsarako banakako joko ekintzak egitea baloratzen da, eta defentsarako banakako elementu tekniko taktikoak eta alderdi intentzionalak eta mekanikoak aztertzen dira. Ikaskuntzaren laugarren eta azken emaitzan atezainaren joko ekintza defendatzaileak eta erasotzaileak aztertzen dira, alderdi mekanikoak eta intentzionalak kontuan hartuta. Ikaskuntzaren azken hiru emaitzetan, jokalarien eta atezainen ekintza tekniko taktikoak egitean egon daitezkeen akatsak identifikatzen dira, eta ekintza horiek eragin dituzten arrazoiei lotzen zaizkie.

Modulua irakasteko, irakasleak ikus-entzunekeko tresnak eta tresna teknologikoak erabiltzea sustatu beharko du, ikasleei edukiak hobeki ulertzen laguntzeko, eta adibideen aukerak areagotzeko.

Komeni da jarduerak balio anitzeko gelan egitea, gimnasioan eta kiroleko pistan egitea; irakaskuntza praktikoari lehentasuna ematea eta proposatutako ariketak egitean zuzenketak egitea.

Proposatu egiten da elementu tekniko taktikoak hainbat testuingurutan kateatzeko planteamendu teorikoa egitea. Proposatu egiten da zuzentzeko bideo saioak erabiltzea, egoera desberdinetako kasuak erabiltzea eta garatu beharreko ekintzak azaltzea. Komeni da eskubaloiko software espezifikoak erabiltzea.

Komeniko litzateke lehiaketaren antzeko egoera praktikoak planteatzea, non banakako ekintza tekniko-taktikoak bereizita lantzen baitira. Egoera ia berdina, lehiaketaren arabera zatikatuak: banakako ekintza tekniko taktiken kateatzeak (desmarkaketa + pasea/finkaraztea + pasea, harrera + iskina + pasea, finkaraztea + pasea + hartzea + jaurtitzea...).

Komeni da unitate didaktikoak eta banakako teknika zein taktika lantzeko prestakuntza-fitxak egitea. Kiroleko saio praktikoak, eskubaloiko banakako teknika eta taktiken arloko gaitasunak lantzeko eta gaitasun horiek kateatzen jakiteko.

Proposatu egiten da jarduerak talde txikietan egitea eta berariazko ariketa tekniko taktiko indibidualen simulazio praktikoa egitea joko egoera errealean.

Ebaluazioari dagokionez, komeni da hasierako ebaluazio bat egitea, ikasleek moduluen edukiak buruz dituzten aurretiazko ezagutzak baloratzeko. Komeni da moduluen eduki teorikoa berenganatu duten eta ikaskuntzak egoera praktikoetan aplikatzeko gai diren ebaluatzea.

Komeni da ikasleek banakako ikaskuntza tekniko taktikoan egiten duten aurrerapena ebaluatzeko irizpideak definitzea, benetako joko egoeretan joko orokorreko irizpide tekniko taktikoen ezagutza eta aplikazioa ebaluatuta.

Komeniko litzateke moduluen edukiak banakako trebetasun tekniko-taktiko espezifikoaren praktika ebaluatzea. Komeniko litzateke honako hauek ebaluatzea: eskubaloiko oinarrizko terminologia nola menderatzen eta erabiltzen den, banakako elementu tekniko eta taktiko jakin batzuk egitean ohikoenak diren akatsak ezagutzen eta identifikatzen diren, nola detektatzen diren eta horiek zuzentzeko aplikatu daitezkeen ariketak ezartzeko gaitasuna.

Horretarako, komeniko litzateke test motako azterketak edo galdera laburrak egitea, bai eta kasu praktikoak ebaztea eta azaltzea ere, hainbat elementu tekniko taktiko indibidual integratuta.

Prozedurazko eta jarrerazko alderdiak ebaluatzeko, ikasleek ikasgelan egin duten lanaren emaitzak kontuan hartzea gomendatzen da, bai eta autoebaluazio hausnartua egitea ere. Horretarako, irakasleek haien progresioaren jarraipena eginen dute, bai taldeka, bai banaka (kideen arteko elkarrekintza eta taldeko lanaren antolaketa).

Modulua: Joko kolektiboa eskubaloian

Kodea: MED-BMBM202.

Iraupena: 60 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Baloratzen du erasoaldiko jokoan bi jokalariren edo gehiagoren artean koordinatutako ekintzak egitea, alderdi taktikoak aztertuta, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatuta eta ekintza horien kauekin lotuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Azaldu dira bi jokalariren edo gehiagoren arteko joko koordinatuaren bidez erasoan lor daitezkeen abantaila numeriko espazialak eta denborazkoak.
- b) Aztertu dira jokalarien banakako ekintza erasotzaileetatik erator daitezkeen abantaila kolektiboak.
- c) Aztertu dira zenbakizko nagusitasun erasokorreko une bateko edo etengabeko egoeren konponbide positiboan eragina izaten duten joko kolektiboaren alderdi taktikoak.
- d) Aztertu dira eraso-jokoan zenbakizko, lekuzko edo denborazko abantailak sortzeko erabiltzen diren bi jokalariren edo gehiagoren arteko ekintza koordinatuak (bitarteko taktikoak).
- e) Baloratu da lan taktikoaren oinarria duten ekintza koordinatuen garrantzia.
- f) Aztertu dira lekualdatzeei eta finkarazteei lotutako bitarteko taktikoen abantaila kolektiboak, akats ohikoenak eta horien zuzenketa.
- g) Aztertu dira defendatzailearekiko harremanari lotutako bitarteko taktikoen abantaila kolektiboak, akats ohikoenak eta horien zuzenketa.
- h) Deskribatu dira etapa horretan eraso egiteko bitarteko taktiko kolektibo bakoitza egitean ohi-koenak diren akatsak, baita horien balizko arrazoiak ere.

2. Eraso egiteko joko sistemak lantzen ditu, sistema horien oinarriak aztertuta eta banakako baliabideen eta baliabide taktikoen erabilera aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira eskubaloian eraso egiteko sistema bat sortzearen oinarriak.
- b) Baloratu da eremu eraginkorra, zabaleran zein sakoneran, behar bezala mehatxatu beharra, eraso-sistema baten egitura zehazteko oinarrizko erreferentzia gisa.
- c) Aztertu dira eraso egiteko sistema baten garapenean egitura-aldaketek izan ditzaketen ondorioak.
- d) Deskribatu dira eraso-sistema baten barruan jokalariek dituzten postu espezifikoak, baita horien inguruan erabiltzen den nomenklatura eta sinbologia ere.
- e) Ezarri da erasoaldian baloia mugitzeko abiadura kolektiboaren eta jokalariek egiten dituzten banakako ekintzen arteko erlazioa, eta baloratu da mehatxua gutxitzearen kontura abiadura ez handitzearen garrantzia.
- f) Deskribatu dira eraso-sistema batean baloia mugitzeari lotutako baliabide kolektiboak.
- g) Aztertu dira eraso-sistemaren ezaugarriak, jokalarien mugimenduaren intentzionalitatearen ikuspegitik, eta baloratu dira akats ohikoenak eta akatsen zuzenketa.
- h) Identifikatu dira eraso-sistema baten abantailak eta eragozpenak, egituraren, baloiaren mugimendu kolektiboaren eta jokalarien arteko harremanaren arabera, baita jokalarien, aurkarien eta aurre egin behar zaion defentsa-sistemaren ezaugarrien arabera ere.
- i) Eraso-sistemaren benetako egoera batean ezarri dira baloiaren mugimenduaren egiturazko ezaugarriak eta jokalarien ezaugarriak.
- j) Deskribatu dira eraso-sistema eraikitzearen eta zuzentzearen akats ohikoenak.

3. Baloratzen du defentsa jokoan bi jokalariren edo gehiagoren artean koordinatutako ekintzak egitea, alderdi taktikoak aztertuta, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatuta eta ekintza horien kausekin lotuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu da «Laguntza» eta «elkarlan» kontzeptuen arteko aldea.
- b) Baloratu da eskubaloiko joko kolektiboaren eraikuntzan «laguntza» eta «elkarlan» kontzeptuak erabili beharra.
- c) Aztertu dira defentsa kolektibo batean nahitaezkoak diren laguntzak eta beti nahitaezkoak ez direnak.
- d) Baloratu da zenbakizko nagusitasun sinpleko egoeretan eraginkortasuna handitzearen garrantzia.
- e) Aztertu dira defendatzaileen arteko elkarlanerako baliabide taktikoak erasotzaileen gurutzaketetan eta postu-trukeetan baliatzeko.
- e) Aztertu dira defendatzaileen arteko elkarlanerako baliabide taktikoak, erasotzaileen blokeoetan baliatzeko.
- g) Deskribatu dira etapa horretan defentsa egiteko bitarteko taktiko kolektibo bakoitza egitean ohikoenak diren akatsak, baita horien balizko arrazoiak ere.

4. Defentsa egiteko joko sistemak lantzen ditu, defentsa jokoaren oinarriak eta banakako baliabideen zein baliabide taktikoen erabilera aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira eskubaloiko defentsa sistema bat ezartzeko faseak.
- b) Aztertu dira defentsa egitura bat zehazteko oinarrizko irizpideak.
- c) Aztertu dira zonako defentsa egituren ezaugarriak, horiek osatzen dituzten postu espezifikoaren ezaugarriak eta horiek deskribatzen dituen nomenklatura eta sinbologia.
- d) Aztertu dira banakako defentsa egituren ezaugarriak, baita horiek deskribatzen dituen nomenklatura eta sinbologia ere.
- e) Aztertu dira defentsa egitura mistoen ezaugarriak, horiek osatzen dituzten postu espezifikoaren ezaugarriak eta horiek deskribatzen dituen nomenklatura eta sinbologia.
- f) Aztertu dira defentsa sistemen arteko aldeak, elkarlanerako laguntzei eta baliabide taktikoei dagokienez.
- g) Defentsa joko sistemak zehaztean baloratu da jokalariren asmoen joerak, aurkariaren jarduerari aurre egiteko.
- h) Identifikatu dira defentsa-sistema baten abantailak eta eragozpenak, egituraren, baloiaren mugimendu kolektiboaren eta jokalariren arteko harremanaren arabera, baita jokalariren, aurkariaren eta aurre egin behar zaio eraso-sistemaren ezaugarrien arabera ere.
- i) Defentsa sistemaren benetako egoera batean zehaztu dira egiturazko ezaugarriak, funtzionamendu kolektiboa eta asmoen joerak.
- j) Deskribatu dira defentsa sistema eraikitzearen eta zuzentzearen akats ohikoenak.

Edukiak.

Erasoaldiko joko koordinatua. Alderdi taktikoak. Akatsak eta kausak.

—Erasoaldian joko kolektiboaren bidez lortu nahi diren abantailak:

- Jokalariren zenbakizko abantailak, eremu eraginkorrean.
- Lekuzko abantailak.

–Banakako ekintzen ondorio taktiko kolektiboak:

- Finkarazte bikoitiak:
 - Lekua handitzea.
 - Gurutzatzea, aurkariak aldatzen direnean akatsa sortzeko.
- Finkarazte bakoitiak:
 - Zeharkako desmarkaketak sortzea eta baliatzea.
- Finkarazteen erabilera taktikoa: akats ohikoenak identifikatzea eta nola zuzendu.

–Zenbakizko nagusitasunaren ebazpen taktikoa:

- Sinpleak (2x1 eta 3x2).
- Konplexuak:
 - Egoera sinplifikatzea, jokalaria bat liberatu arte:
 - Jarraikako progresioak, egoera abantailatsuak baliatzeko baliabide esanguratsutzat hartuta.
 - Lekua irabaztea.
- Zenbakizko nagusitasuna barne hartzen duten egoeren ebazpen taktikoan egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

–Bi jokalariren edo gehiagoren artean koordinatutako ekintzak erabiltzea erasoko abantailak sortzeko: erasoaldiko bitarteko taktiko kolektiboak.

–Lekualdatzeetan eta finkarazteetan oinarritutako baliabide taktikoak:

- Pasatzea eta joatea: nola erabili erasoaldiko faseetan.
- Gurutzatzeak:
 - Gurutzatzea, defendatzaile bat finkatuta:
 - Jokalari baten aurrean, jokalaria baloia duela:
 - i. Defendatzaileen aurrean.
 - ii. Defendatzaileen bizkarretik.
 - Jokalari baten atzetik, jokalaria baloia duela.
- Postuen trukeak. Gurutzatzeetan eta postu trukeetan egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Gortinak. Gortinetan egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Lekualdatzeetan eta finkarazteetan egiten diren akats ohikoenak, baliabide taktikoetan oinarrituta. Pasatzea eta joatea eta gurutzatzeak.

–Baliabide taktikoak, defendatzailearekiko kontaktu fisikoan oinarrituta:

- Blokeoak.
 - Blokeoak, asmo taktikoaren arabera:
 - Lehen marrako blokeoak, lekua irabazteko.
 - Kide bat liberatzeko blokeoa: ondoko ekintza, blokeo dinamikoak.
 - Kanpoko blokeoak (edo blokeo luzeak).
 - Blokeoak, egiteko moduaren arabera.
 - Blokeoetan egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Pantailak. Pantailetan egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

Erasoaldiko joko sistemak. Eraso egiteko sistemaren oinarriak aztertzea eta banakako baliabideak eta bitarteko taktikoak erabiltzea.

–Eraso egiteko sistemen oinarriak:

- Sistemaren egitura.
- Baloia mugimenduaren intentzionalitate kolektiboa.
- Jokalarien mugimenduaren intentzionalitate kolektiboa.

–Eraso sistemen egitura:

- Gehien erabiltzen diren egiturak:
 - 3:3 egitura.
 - 2:4 egitura.
 - 3:3 egitura, bi piboterekin.
- Egituraren aldaketak, erasoaldian: sistemaren eraldaketak.
- Jokalariak egitura dituzten postu espezifikoak: nomenklatura eta sinbologia.
- Egitura bat aukeratzea.
- Talde anitzen egitura ereduak adibide praktikoak.
- Sistema baten egitura zehaztean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

–Baloia mugimenduaren intentzionalitate kolektiboa:

- Baloia zirkulazio kolektiboaren garrantzia.
- Baloia mugitzeko baliabide kolektiboak, defentsaren eraginkortasuna murrizteko.
- Baloia mugimendua nolakoa den, sistemaren ezaugarriak zehaztea.
- Baloia mugimendu kolektiboaren ereduak adibide praktikoak, talde anitzak kontuan hartuta.
- Erasoaldian baloia mugimenduaren abiadura kolektiboa eta jokalarien banakako ekintzak aztertzea.
- Baloia mugimendu kolektiboa sistemarako zehaztean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

– Jokalarien mugimenduaren intentzionalitate kolektiboa:

- Eraso “estatikoak” (jokalarien posizioari eusten zaio). Eraso mota horien alde onak eta txarrak.
- Eraso “zirkulatzaileak” (postu truke ugari programatzen dira hein handiagoan edo txikiagoan). Eraso mota horien alde onak eta txarrak.
- Jokalarien mugimendua nolakoa den, sistemaren ezaugarriak zehaztea:
 - Jokalarien arabera.
 - Aurkariaren defentsa sistemaren arabera.
- Baloia mugimendu kolektiboaren ereduak adibide praktikoak, talde anitzak kontuan hartuta.
- Jokalarien mugimendu kolektiboa sistemarako zehaztean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

–Joko sistema zehazteko, honako hauek konbinatzea: egitura, baloia mugimendua eta jokalarien mugimenduaren ezaugarriak.

–Eraso egiteko sistema kolektiboa baloratzea:

- Jokalarien gaitasunen arabera, egokia den.
- Eraso egin behar zaion defentsaren arabera, egokia den:
 - Aurkariaren banakako gaitasunak.
 - Eraso egin behar zaion defentsa sistemaren ezaugarriak.

Joko koordinatua, defentsa jokoan. Alderdi taktikoak. Akatsak eta kausak:

–«Laguntza» eta «elkarlan» kontzeptuen arteko aldea.

–Laguntzak:

- Nahitaezko laguntzak edozein defentsa motatan: Laguntza, akatsak gertatzen direnean.
- Hautazko laguntzak: akatsa gertatu aurretiko laguntzak.
- Defendatzaileen mugimenduari aurre egiteko lanean laguntzea.
- Baloia aurreko lanean laguntzea:
 - Baloia garraiatzen laguntzea.
 - Jaurtiketen aurrean laguntzea.
- Eskubaloiko defentsa joko kolektiboa eraikitzeari eragitea.
- Laguntzak baliabide taktiko gisa erabiltzean egiten diren ohiko akatsak.

–Zenbakizko gutxiagotasunean defendatzeko gaitasuna handitu beharraren garrantzia:

- Aurreikus daitezkeen zenbakizko gutxiagotasuneko egoeretan jarduteko gaitasuna.
- Aurreikusi ezi diren zenbakizko gutxiagotasuneko egoeretan jarduteko gaitasuna.

–Zenbakizko gutxiagotasunean defentsa egin behar denean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.

–Defendatzaileen arteko elkarlana: defentsa baliabide taktikoak:

- Eraso egiteko postu-trukeak eta gurutzatzeak konpentsatzeko baliabideak:
 - Lerradurak: alderdi mekanikoak edo intentzionalak:
 - Lerraduretan egiten diren akats ohikoenak identifikatzea eta nola zuzendu jakitea.
 - Aurkariaren aldaketak: alderdi mekanikoak edo intentzionalak:
 - Aurkariaren aldaketetan egiten diren ohikoenak identifikatzea eta nola zuzendu jakitea.
- Blokeoak konpentsatzeko baliabideak:
 - Alderdi mekanikoak eta intentzionalak.
 - Defentsaren eta atearen bidezko blokeoan elkarlana egitea. Ekintza taktikoak.

Defentsaldiko joko sistemak. Defentsa egiteko sistemaren oinarriak aztertzea eta banakako baliabideak eta bitarteko taktikoak erabiltzea.

–Defentsa egiteko sistemen oinarriak:

- Sistemaren egitura.
- Funtzionamendu kolektiboaren gidalerroak.
- Erasotzaileei aurre egiteko joera intentzionalak.

–Defentsa sistemen egiturak:

- Defentsa azpiegitura bat diseinatzeko irizpideak:
 - Lekua defendatzea: “eremu eraginkorra” babestea.
 - Erasotzaileak kontrolatzea.
 - Irizpide mistoak.
- Zonako defentsak:
 - Defendatzaileen espazio banaketa:
 - Marra batean edo gehiagotan banatzea:
 - i. Banaketa tradizionalak: 6:0, 5:1, 3:3, 3:2:1, 4:2.
 - ii. Zona-sistemen nomenklatura eta sinbologia.
 - Erantzukizunen banaketa: erasotzaileen kontrola, aukeratutako egituratik abiatuta.

- Sistema baten zonako egitura zehaztean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Banakako defentsak:
 - Joera: aurkarien alaketari aurre hartzea.
 - Aurkariak esleitzea.
 - Banakako sistemen nomenklatura eta terminologia.
 - Sistema baten banakako egitura zehaztean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Defentsa mistoak:
 - Irizpideen erabilera konbinatua.
 - Egitura misto tradizional: 5+1 mistoa, 4+2 mistoa, 4:1 +1.
 - Postu espezifikoaren ezaugarriak, nomenklatura eta sinbologia.
 - Sistema baten egitura mistoa zehaztean egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Funtzionamendu kolektiboaren gidalerroak:
 - Akatsaren aurretiko laguntza kolektiboak egiteari buruzko arauak:
 - Zenbakizko nagusitasun defendatzailea bilatzea balioaren eremuan: dentsitate defendatzailea:
 - Baskulatze defendatzailea.
 - Jaurtiketa marrako defentsak: defentsa indibidualizatuak.
 - Elkarlanerako bitarteko taktikoak erabiltzeko buruzko arauak.
 - Funtzionamendu kolektiboan egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Erasotzaileei aurre egiteko joera intentzionalak:
 - Aurre hartzeko joera duten defentsak.
 - Erantzuteko joera duten defentsak.
 - Aurre hartzeko eta erantzuteko defentsa konbinatuak erabiltzea:
 - Postu espezifikoaren arabera.
 - Jokalarien ezaugarri indibidualen arabera.
 - Irizpide baki nahita aldatzea.
 - Jokalari bakoitzarengan.
 - Multzoaren antolaketan.
 - Planteamendu intentzionalen egiten diren akats ohikoenak eta nola zuzendu.
- Defentsa egiteko sistema kolektiboa baloratzea:
 - Jokalarien gaitasunen arabera, egokia den.
 - Aurre egin behar zaion erasoaren arabera, egokia den:
 - Aurkarien banakako gaitasunak.
 - Aurre egin behar zaion eraso sistemaren ezaugarriak.
 - Funtzionamendu kolektiboa eta joera intentzionalak defentsa sistemaren benetako egoera batean.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honetako prestakuntza baliagarria da ikasleek honako gai hauek azter ditzaten: erasoko eta defentsako joko koordinatua erabiltzea eta baliabide taktikoak eta erasoko zein defendatzeko bitarteko horiek kateatzeko aukera.

Ikasleek eraso eta defentsa sistemen oinarriak eta eraso eta defentsa sistemen egitura aztertuko dituzte, baita sistemaren eraldaketetan izandako aldaketak eta postu espezifikoaren sinbologia eta nomenklatura ere. Era berean, eraso eta defentsa egiteko baliabide taktikoak erabiltzean egin daitezkeen akatsak identifikatuko dituzte, kasuei lotuta.

Ikaskuntzaren emaitzei ekiteko sekuentzia eta horiei dagozkien eduki multzoak antolatzeke, moduluan agertzen diren ordena proposatu da. Horrela, ikaskuntzaren lehen emaitzan honako hauek aztertuko dira: bi jokalariren edo gehiagoren arteko ekintza koordinatuak erabiltzea, eraso egiteko abantailak sortzeko; eraso egiteko baliabide taktikoak; eta baliabideok erabiltzean egiten diren akats ohikoenak. Ikaskuntzaren bigarren emaitzan eraso egiteko sistemetan eta horien egituraren sakonduko da, baloiaren mugimenduaren eta jokalariren intentzionalitate kolektiboa kontuan hartuta. Sistema baten egitura, balioaren mugimendua, jokalariren mugimendua zehaztean egiten diren akats ohikoenak aztertuko dira, baita nola zuzendu ere. Ikaskuntzaren hirugarren emaitzan bi jokalariren edo gehiagoren artean koordinatutako ekintzen erabilera aztertuko da, defentsa abantailak sortzeko; horrez gain, defendatzaileen arteko lankidetzak, defentsa-bitarteko taktikoak eta horiek erabiltzean egindako akatsak ere aztertuko dira. Laugarren eta azken ikaskuntzaren emaitzan defentsa sistemetan eta horien egituraren sakonduko da, eta horiek diseinatzeko irizpideak aztertuko dira. Defentsa sistema kolektibo baten erabilera baloratzen ikasiko da, jokalariren gaitasunari eta defendatu behar den erasoari dagokionez.

Modulu honetako ikaskuntzaren lau emaitzetan alderdi praktikoak bildu dira, batez ere. Hori dela eta, komeniko litzateke ikasleek parte hartzeke metodologia bat erabiltzea eta edukiak lehiaketatik hurbilen dauden egoeretan praktikan jartzea. Komeniko litzateke ikasleek inplikazioa lortzea zereginak esleituz eta ariketa praktikoetan hainbat rol hartuz.

Modulu hau irakasteko, komeniko litzateke tresna grafikoak, ikus-entzunezkoak eta teknologikoak erabiltzea, ikasleek eduki teorikoak eta praktikoak hobeki ulertzen dituzten. Eskubaloiko software espezifikoak erabiltzeak ikasleek aukera emanen die ariketak egiten ohitzeko eta postuen nomenklatura eta terminologia barneratzeko.

Komeni da hainbat kategoriatako bideoak ikustea, modulu honetan planteatutako eraso eta defentsa egiteko bitarteko taktikoak aztertzea eta ikusitako ekintzei buruz behar diren zuzenketa egokiak egitea. Era berean, komeni da hainbat kategoriatako entrenamenduetara edota partidetara joatea, ikasleek modulu honetako edukiak aztertzeke eta modulu honekin lotutako behatutako ekintzak grafikoki lantzeke aukera izan dezaten.

Komeni da ariketa konbinatu zatikatuei buruzko fitxak egitea (2x2, 3x3, 3x2, 3x3...), grafikoak eta unitate didaktikoak egitea, erasorako edota defentsarako bitarteko taktikoak multzokatuta, eta helburuak, edukiak, denboraren antolaketa, baliabide materialak eta didaktikoak, jardueren sekuentzia eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta. Jarduera horiek banaka eta taldeka egin beharko lirateke.

Komeni da jarduerak balio anitzeko gelan egitea, gimnasioan eta kiroldegietan; irakasleak praktikoari lehentasuna ematea eta proposatutako ariketak egitean zuzenketa egitea.

Moduluaren ebaluazioari dagokionez, komeni da hasierako ebaluazio bat egitea, ikasleek moduluaren edukiei buruz aurretik izan ditzaketen ezagutzak modu objektiboan baloratzeko. Komeni da moduluaren eduki teorikoa berenganatu duten eta ikaskuntzak egoera praktikoetan aplikatzeko gai diren ebaluatzea.

Horretarako, komeniko litzateke irakaslearen alderdiren bat diseinatzeko lanak (erasoa eta defentsa), test motako azterketak edo galdera laburrak egitea, bai eta kasu praktikoak ebaztea eta azaltzea ere, eraso eta defentsa egiteko joko kolektibo koordinatuaren elementuak eta alderdi taktikoak integratuta.

Prozedurazko eta jarrerazko alderdiak ebaluatzeke, ikasleek ikasgelan egin duten lanaren emaitzak kontuan hartzea gomendatzen da, bai eta autoebaluazio hausnartua egitea ere. Horretarako, irakasleek haien progresioaren jarraipena egiten dute, bai taldeka, bai banaka (kideen arteko elkarrekintza eta taldeko lanaren antolaketa).

Modulua: Eskubaloiairen teknifikazio etapako metodologia

Kodea: MED-BMBM203

Iraupena: 40 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Erasoan eta defentsan ekintzak irakasteko eta entrenatzeko zereginak lantzen ditu, alderdi mekaniko eta intentzionalik garrantzitsuenak aztertzen eta erabiltzen ditu, eta alderdi horiek integratzeko irizpideak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira entrenamendu intentzionalak oinarri hartzen dituen ezagutzak, irakaskuntza eta entrenamendua diseinatzeko eta entrenamenduaren esku-hartzea antolatzeko.
- b) Aztertu dira joko-ekintzak modu egokitzailean egiteko hobekuntza entrenamenduak oinarri hartzen dituen ezagutzak.
- c) Aztertu dira faktore mekanikoak eta intentzionalak erabiltzeko irizpideak, baloia garraiatzeko buruzko irakaskuntza-entrenamenduaren egoerak prestatzeko dagokienez.
- d) Aztertu dira faktore mekanikoak eta intentzionalak erabiltzeko irizpideak, jokalarien erasoaldiei buruzko irakaskuntza-entrenamenduaren egoerak prestatzeko dagokienez.
- e) Aztertu dira faktore mekanikoak eta intentzionalak erabiltzeko irizpideak, jaurtiketari buruzko irakaskuntza-entrenamenduaren egoerak prestatzeko dagokienez.
- f) Aztertu dira faktore mekanikoak eta intentzionalak erabiltzeko irizpideak, markaketari buruzko irakaskuntza-entrenamenduaren egoerak prestatzeko dagokienez.
- g) Aztertu dira faktore mekanikoak eta intentzionalak erabiltzeko irizpideak, laguntzei eta jokalariei 1 jokalariei 2ren aurkako egoerei (zenbakizko gutxiagotasunari) buruzko irakaskuntza-entrenamenduaren egoerak prestatzeko dagokienez.
- h) Aztertu dira faktore mekanikoak eta intentzionalak erabiltzeko irizpideak, baloiari bidea mozte estatikoei, dinamikoei eta blokatzei buruzko irakaskuntza-entrenamenduaren egoerak prestatzeko dagokienez.
- i) Aztertu dira eraso edo defentsa egiteko ekintza batzuk edo guztiak irakaskuntza-entrenamenduari buruzko zereginetan integratzeko irizpideak.
- j) Irakaskuntza-entrenamenduari buruzko zereginak egin dira, eta eraso zein defentsa egiteko ekintzen alderdi mekanikoak eta intentzionalak txertatu dira.
- k) Baloratu da ekintzak modu bateratuan entrenatzearen garrantzia, joko gero eta erreala gertatzen diren egoeretan.

2. Teknifikazio etapan irakatsi eta entrenatzeko saioa landu eta zuzentzen du, saioaren ezaugarriak eta etapa horretako emaitzen ezagutzak aztertuta, eta dinamizazio prozedurak eta zuzendaritza estrategiak aplikatuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapako irakaskuntza-entrenamendu saio moten egitura eta ezaugarriak.
- b) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapako irakaskuntza-entrenamendu saioak prestatzeko buruzko irizpide metodologikoak.
- c) Sailkatu dira teknifikazio etapan eskubaloiko saio bat antolatzeko funtsezko helburuak eta printzipioak, ezarritako helburuen arabera.
- d) Atazen progresioa eta kargaren kuantifikazioa egin eta justifikatu dira, behar bezala ezaugarritutako irakaskuntza-entrenamendu saio batean oinarritutako praktikaldi batean, non saioaren helburua edo helburuak eta erreferentziazko programazioa ezarri baitira.

- e) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapako emaitzen ezagutza egiteko moduen eta moten ezaugarriak, baita programatutako helburuen arabera ere.
- f) Zuzendaritza-estrategiak sailkatu dira, saioaren helburuekin eta zereginen ezaugarriekin duten loturaren arabera.
- g) Irakaskuntza-entrenamendu saio batean oinarritutako praktikaldi bat zuzendu da teknifikazio etapan aplikatzeko, eta behar bezala ezaugarritu da. Hauxe bete baldin bada:
 - Taldea eraginkortasunez antolatu du.
 - Emaitzen ezagutzak behar bezala aplikatu ditu, aurkeztutako helburuen arabera.
 - Treibetasun sozialak eta lidergo estrategiak aplikatu ditu.
- h) Baloratu da teknifikazio etapako irakaskuntza-entrenamenduko saio baten emaitzak ezaugarritzearen garrantzia.

3. Eskubaloiko hastapenean eta teknifikazioan edukiei lotutako unitateak programatzen ditu, eta, horretarako, edukiei lotutako unitatearen egitura eta ezaugarriak, etapa horietako helburuak, zereginak eta bitartekoak sekuentziatzeko irizpideak eta erreferentziatzeko programazioa aztertzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu da eskubaloiko hastapen eta teknifikazio programetako edukiei lotutako unitate mota batzuen egitura.
- b) Aztertu dira eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapako edukiei lotutako unitateak lantzeko printzipio metodologikoak, erreferentziako plangintza oinarritzat hartuta.
- c) Aztertu dira banakako prestakuntza tekniko taktikoan garatu behar diren helburuak eta zereginak, baita eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapetan izan behar duten sekuentziazioa ere.
- d) Aztertu dira prestakuntza taktiko kolektiboan garatu behar diren helburuak eta zereginak, baita eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapetan izan behar duten sekuentziazioa ere.
- e) Eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapako eduki tekniko taktiko indibidualei lotutako unitate bat landu da, etapa bakoitzean jokariaren prestakuntzaren jarraibideekin lotutako zereginak definituta eta sekuentziatuta, erreferentziatzeko plangintzatik abiatuta.
- f) Eskubaloiko teknifikazio etapako eduki taktiko kolektiboari buruzko unitate bat egin da, etapa horretako talde jokoaren jarraibideei lotutako zeregin-multzoak sekuentziatuta eta erreferentziatzeko plangintzatik abiatuta.
- g) Baloratu da programazioak hastapen eta teknifikazio etapetan jokariaren prestakuntza zuzentzeko elementu gisa duen garrantzia.

4. Teknifikazio etapako entrenamenduan eta lehiaketetan taldea zuzentzen du, erregelamenduzko alderdiak identifikatzen ditu, taldearen dinamikari lotutako faktoreak interpretatzen ditu, eta etapa horretako zuzendaritza-estrategia espezifikoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu da teknifikazio etapan eskubaloiko lehiaketei aplikatu ahal zaien araudia.
- b) Identifikatu dira lehiaketari lotutako jokoaren erregelamenduzko alderdiak.
- c) Identifikatu dira eskubaloari buruzko diziplina alderdiak.
- d) Baloratu da teknifikazio etapan lehiaketak duen garrantzia, prestakuntzako prozesuaren elementutzat hartuta.
- e) Aztertu dira taldeko kideen ezaugarri psikologikoak, teknifikazioari lotutako adinaren berezko ezaugarriei dagokienez.
- f) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapan taldean entrenatzailearekin eta ingurunearekin ezartzen diren harremanak.

- g) Identifikatu dira eskubaloiko teknifikazio etapako lehiaketaren zuzendaritzan azpimarratu behar diren jokoaren alderdi indibidualak eta kolektiboak.
- h) Ezaugarritu dira eskubaloiko teknifikazio etapako lehiaketak zuzentzeko estrategiak.
- i) Talde bat zuzendu da, portaera eta esku hartzea lehiaketaren garapenera egokituta, eskubaloiko partidaren praktikaldi batean, behar bezala ezaugarrituta, non zuzendaritza egoera ohikoenak simulatu baitira.

Edukiak.

Eraso eta defentsa egiteko ekintzen irakaskuntza-entrenamenduari lotutako zereginak egitea:

–Baloia garraiatzeko entrenamendua:

- Baloia egokitzeko eta maneiatzeko ariketen diseinua.
- Botea hobetzeko ariketen diseinua.
- Paseei eta hartzei buruzko ariketen diseinua.

–Jokalariek erasoaldian egiten dituzten mugimenduak entrenatzea:

- Lekualdatzeen alderdi mekanikoa hobetzeko ariketen diseinua, desmarkaketen eta iskinen lan teknikoaren euskarria.
- Desmarkaketen intentzionalitatea hobetzeko ariketen diseinua.
- Iskinak hobetzeko ariketen diseinua.
- Finkarazteak hobetzeko ariketen diseinua.

–Jaurtiketen entrenamendua:

- Exekutatu aurretiko istantean jaurtiketaren inguruabarrak hobetzeko ariketak diseinatzea.
- Exekutatzea hobetzeko ariketen diseinua.

–Erasoaldiaren zeregin batzuk edo guztiak integratzeko ariketen diseinua:

- Txertatutako zereginen konplexutasuna aldatzea.
- Konplexutasun tekniko eta taktikoa aldatzea.
- Txertatutako zereginen azentua aldatzea.
- Azentu tekniko eta taktikoa aldatzea.

–Markaketa hobetzeko ariketen diseinua:

- Alderdi mekanikoen gaineko lana.
- Alderdi intentzionalen gaineko lana.

–Laguntzak hobetzeko ariketen diseinua:

- Alderdi mekanikoen gaineko lana.
- Alderdi intentzionalen gaineko lana.
- Zenbakizko gutxiagotasuneko egoeren eraginkortasuna areagotzea.

–Baloia bidea mozteko ariketen diseinua:

- Alderdi mekanikoen gaineko lana.
- Alderdi intentzionalen gaineko lana.

–Baloien blokeoak hobetzeko ariketen diseinua:

- Alderdi mekanikoen gaineko lana.
- Alderdi intentzionalen gaineko lana.

–Defentsari lotutako zeregin batzuk edo guztiak integratzeko ariketen diseinua:

- Nola aldatu txertatutako zereginen konplexutasuna.
- Nola aldatu konplexutasun tekniko eta taktikoa.
- Nola aldatu txertatutako zereginen azentua.
- Nola aldatu azentu tekniko eta taktikoa.

Teknikazio etapako irakaskuntza-entrenamenduaren gaineko saioak egitea eta zuzentzea:

–Eskubaloien teknikaziorako saioen egitura:

- Saio motak.
- Saio baten faseak.
- Materialen beharrianak.
- Taldea antolatzea eta kontrolatzea.

–Teknikazio etapako irakaskuntza-entrenamenduko saioa antolatzeko alderdi esanguratsuak:

- Oinarrizko metodologia.
- Helburuak zehaztea.
- Saioaren progresio metodologikoa ezartzea:
 - Printzipioak eta orientabideak.
 - Zereginen sekuentziak.

–Programatu diren zereginak zuzentzeko alderdi garrantzitsuak. Entrenatzailearen esku-hartzea:

- Entrenatzailearen komunikazioa, saio bitartean.
- Ariketa bakoitzaren helburuen lehentasuna antolatzea.
- Zereginen ezaugarriak nolakoak diren, teknikazio etapako emaitzak zuzentzeko eta ezagutzeko estrategiak.

–Entrenatzailearen esku-hartzea:

- Lidergoa.
- Trebetasun sozialak.

Hastapenetako eta teknikazio etapen programazioa:

–Teknikazio etapako jokalarien ezaugarri nagusiak.

–Eskubaloiko jokalariairentzat garapen faseak, hastapen eta teknikazio etapetan.

–Teknikazio etapetan erreferentziatzen diren plangintzako elementuak: helburuak, zereginak eta baliabideak.

–Eskubaloiko hastapen eta teknikazio programetako edukiei lotutako unitate mota batzuen egitura aztertzea.

–Edukien gaineko unitatea egitea:

- Teknikazio etapako prestakuntzako helburuak formulatzea: eraso eta defentsa egiteko ekintza tekniko taktiko indibidualak eta kolektiboak.
- Edukien gaineko unitateak programatzeko printzipio metodologikoak:
 - Zeregin motak.
 - Helburuak, edukiak eta baliabideak sekuentziatzea.
 - Zeregin motak integratzea.

Teknifikazio etapako entrenamenduan eta lehiaketan taldea zuzentzea:

–Erregelamendua eta araudia:

- Lehiaketaren ezaugarriak, teknifikazio etapan.
- Teknifikazio adineko lehiaketaren araudia.
- Jokoaren erregelamendua.
- Diziplina araubideari buruzko erregelamendua.

–Eskubaloiko taldea:

- Taldeko jokalarien ezaugarri psikosozialak baloratzea teknifikazio etapan.
- Kirol taldea, teknifikazio etapan.

–Entrenamenduaren eta lehiaketaren zuzendaritza:

- Taldea teknifikazio etapan zuzentzeko estrategiak:
 - Jokalaria eta taldea.
 - Zereginaren zuzendaritzaren eta ezaugarrien arteko erlazioa.
 - Aurretiko gidalerroak.
 - Partida bitarteko komunikazioa. Hutsarteak.
 - Lehiaketaren ondoko emaitzak ezagutzea.
- Lehiaketa, eskubaloiko jokalaria garatzeko funtsezko baliabidetzat hartuta.

Orientabide didaktikoak.

Moduluak aukera emanen du entrenamendu osoak egiteko ezagutzak eskuratzeko eta helburu bakoitzaren arabera ariketak diseinatzeko, helburu horien helburua kontuan hartuta eta zehaztuta. Eskubaloia irakasteko saioak egiteko eta zuzentzeko informazioa emanen dugu, antolaketaren alderdi esanguratsuenak kontuan hartuta. Horrez gain, entrenatzailearen jarrera eta programatutako zereginak zuzentzeko alderdi esanguratsuenak ere landuko dira.

Ikaskuntzaren emaitzak sekuentziatzeko eta horiei dagozkien eduki multzoak antolatzeke, agertzen diren ordena proposatu da. Ikaskuntzaren lehen emaitzan azpimarratu beharko litzateke garrantzitsua dela erasoko eta defentsako entrenamenduen bidez irakastea, alderdi mekaniko eta intentzional esanguratsuenekin batera. Bigarren ikaskuntzaren emaitzak aukera ematen du entrenamendu-saioen lanketa eta zuzendaritza lantzeko, etapako emaitzen ezaugarriak eta ezagutzak kontuan hartuta. Ikaskuntzaren hirugarren eta laugarren emaitzak aldi berean irakats daitezke; izan ere, haietan proposatzen da hastapenean eta teknifikazioan eduki-unitateak programatzea (hirugarrenean) eta entrenamenduetan eta lehiaketetan talde bat zuzentzea eta erregelamenduzko alderdiak identifikatzea (laugarrenean).

Komeni da modulua modu praktikoan lantzea eta ikasleei saioetan eskatzea ariketa mota batzuk egiteko; eta ikus-entzunezko edukiekin ezagutza guztiak indartzea, horiek adibidetzat hartzeko aukera emanda, geroago praktikan jarri ahal izateko.

Jarduera horiek egiteko material eskuragarria kontuan hartuta, hasieran konplexutasun txikiagoko ariketak egin daitezke, eta gero pixkanaka konplexutasuna handitu daiteke, kontuan hartzeko elementu gehiago txertatuta. Esate baterako, hasiera baloia jokalekuan botatzea proposa daiteke, eta behin pilotaren kontrola hartuta, botean zenbait lekualdatze egitea proposatzea.

Komeni da kontuan hartzea modulu horrek aurreko beste modulu batzuetako elementuak konbinatzen dituela; bereziki, eskubaloien gainera banakako prestakuntza tekniko eta taktikoa. Horiek horrela, entrenamenduaren arloko saioak praktikan jartzeko, komeni da alde aurretik ezagutzea taldeko jokalarien banakako prestakuntza tekniko taktikoa eta, horrez gain, jakitea nola erreakzionatzen duten taldean entrenamenduak behar bezala egiteko, pertsona bakoitzaren gaitasunei buruzko aurretiazko ezagutzetatik abiatuta.

Ebaluazioari dagokionez, komeni da hasierako ebaluazioa egitea ikasle bakoitzak elementu horiei buruzko aurretiazko ezagutzen berri izateko. Moduluaren ebaluazio gisa, entrenamendu saio oso bat diseinatzeko eta praktikan jartzeko proba bat proposatu da. Saio horretan, taldeak azalduko ditu eskuratutako ezagutzak.

Modulua: Eskubaloiairen prestaketa fisikoa

Kodea: MED-BMBM204

Iraupena: 30 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Baloratu egiten du eskubaloian behar den egoera fisikoaren garrantzia, eta, horretarako, errendimenduaren mende dauden mugimenduaren arloko jokabide espezifikoak identifikatzen ditu, sexuaren eta eboluzio etaparen arabera, entrenamenduan, lehiaketan, probak eta landa-testak aplikatuta eta emaitzak aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira eskubaloiko jokalariaire egoera fisiko espezifikoan eragina izaten duten gaitasun baldintzatzaileak eta koordinazio gaitasunak, sexuaren eta eboluzio etaparen arabera.
- b) Deskribatu dira eskubaloian behar den egoera fisiko espezifikoak baldintzatzen duten gaitasunen ezaugarriak.
- c) Identifikatu dira eskubaloiko jokabide motorrak.
- d) Behar bezala ezaugarritutako praktikaldi batean aplikatu dira test eta proba espezifikoak, eskubaloiaire egoera fisiko espezifikoak baldintzatzen duten gaitasunak balioesteko.
- e) Azaldu da zer segurtasun arau zaindu behar diren eskubaloiaire egoera fisiko espezifikoak baldintzatzen duten gaitasunak balioesteko test eta proba espezifikoetan.
- f) Identifikatu edo interpretatu dira arriskua adierazten duten zeinuak, eskubaloiaire egoera fisiko espezifikoak baldintzatzen duten gaitasunak balioesteko test eta proba espezifikoak egin aurretik eta bitartean.
- h) Egin dira entrenamenduan eta lehiaketan (edo kirol jardunean) eskubaloiko jokalariaire egoera fisiko espezifikoari buruzko informazioa biltzeko tresnak.
- h) Deskribatu dira oinarritzko kontzeptu estatistikoak; hautatu dira egoera fisikoa baloratzeko informazioa prozesatzeko datuak tratatzeko teknikak, eta aztertu dira lortutako neurketetan eskuratu diren aldaketak.
- i) Barneratu da kirolariei buruzko informazioa eraginkorki, diskretuki eta autoestimua indartuz transmititu behar dela.

2. Eskubaloiko prestakuntza fisikoko zikloak, saioak eta ariketak egokitzen eta zehazten ditu; halaber, erreferentziako programazioa, lan tekniko taktikoaren eta egoera fisikoaren arteko erlazioa, metodologia eta entrenamendurako bitarteko espezifikoak aztertzen ditu, prozedura egokiak aplikatuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira eskubaloiaire egoera fisikoa kontrolatzeko tresnen eta bitartekoen funtzioak, erreferentziako programazioaren barruan.
- c) Lotu dira eskubaloiaire egoera fisikoa hobetzeko bitarteko espezifikoak erreferentziako programazioaren helburuekin.
- d) Azaldu dira etapa horietan eskubaloiaire egoera fisiko espezifikoaren mende dauden gaitasun baldintzatzaileak garatzeko metodo espezifikoaren ezaugarriak.
- d) Karga zenbatzeko sistemak hautatu dira, eta eskubaloiaire egoera fisikoa garatzeko metodo espezifikoak zama aldatzen duten faktoreak zehaztu dira.
- e) Kargaren parametroak hautatu dira, eskubaloiaire egoera fisikoaren saioa osatzen duten ariketen helburuetara egokituak, sexuaren eta eboluzio-etaparen arabera.
- f) Zehaztu da eskubaloiko talde baten prestakuntza fisikoko ziklo oso bat, eta, besteak beste, helburuak, bitartekoak, metodoak, ariketak, kontrol-tresnak eta kargen dinamika zehaztu ditu,

behar bezala ezaugarritutako praktikaldi batetik abiatuta, non erreferentziazko programazioa eta helburuak ezarri baitira.

- g) Eskubaloit talde baten bilakaera lotu du aurretik ezarritako helburuekin, eta egiaztatu du bat datorrela entrenamendu-programa helburuekin.
- h) Eskubaloien egoera fisikoaren entrenamendua planifikatzeko prozesuan eraginkortasun eta kalitate faktoretzat hartu du programazioa.

3. Eskubaloien egoera fisikoa garatzeko saioak diseinatzen eta zuzentzen ditu, eta, horretarako, taldea zuzentzeko, antolatzeko eta kontrolatzeko teknikak eta neurriak aztertzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapako irakaskuntza-entrenamendu saio moten egitura eta ezaugarriak.
- b) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapako irakaskuntza-entrenamendu saioak prestatzeko buruzko irizpide metodologikoak.
- c) Sailkatu dira teknifikazio etapako eskubaloiko saio bat antolatzeko funtsezko helburuak eta printzipioak, ezarritako helburuen arabera.
- d) Atazen progresioa eta kargaren kuantifikazioa egin eta justifikatu dira, behar bezala ezaugarritutako irakaskuntza-entrenamendu saio batean oinarritutako praktikaldi batean, non saioaren helburua edo helburuak eta erreferentziazko programazioa ezarri baitira.
- e) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapako emaitzen ezagutza egiteko moduen eta moten ezaugarriak, baita programatutako helburuen arabera ere.
- f) Zuzendaritza-estrategiak sailkatu dira, saioaren helburuekin eta zereginen ezaugarriekin duten loturaren arabera.
- g) Irakaskuntza-entrenamendu saio batean oinarritutako praktikaldi bat zuzendu da teknifikazio etapako aplikatzeko, eta behar bezala ezaugarritu da. Bertan hauxe egin du:
 - Taldea eraginkortasunez antolatu du.
 - Emaitzen ezagutzak behar bezala aplikatu ditu aurkeztutako helburuen arabera.
 - Trebetasun sozialak eta lidergo estrategiak aplikatu ditu.
- h) Baloratu da teknifikazio etapako irakaskuntza-entrenamenduko saio baten emaitzak ezagutzearen garrantzia.

4. Kirol jardueren osasun-arriak sustatzen ditu, lan osagarriaren beharra identifikatzen du, kirol-keinu nagusien eta kirol-hastapeneko eta -teknifikazioko etapetako jarraibide higieniko egokiaren analisiari oinarrituta, eskubaloien berezko lesioak eta patologia prebenitzeko.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Ezagutu dira eskubaloiko kirol jardueren nagusi diren zeinu teknikoak, eta tarteko etapetako egoera fisikoa hobetzearekin lotu dira.
- b) Baloratu da lan osagarriaren garrantzia, alde bakoitzeko lana, lan asimetrikoa eta agonisten eta antagonisten arteko desoreka-lana konpentsatzeko.
- c) Aztertu dira hastapen eta teknifikazio etapetako eskubaloiko egoera fisikoko lanaren berezko mugimendu kontraindikatuak, baita horietatik erator litezkeen ondorioak ere.
- d) Deskribatu dira eskubaloien aritzeko jarrera-ohitura egokiak.
- e) Eskubaloien berezko beroketa eta lasaitasun protokoloak jarri ditu abian hastapen eta teknifikazio etapetako.
- f) Aztertu dira eskubaloien aritzearen ondoriozko lesio ohikoenak prebenitzeko erabiltzen diren prestakuntza fisikoko programen ezaugarriak.

- g) Baloratu da garrantzitsua dela material egokia erabiltzea, eskubaloian aritzeko.
- h) Aztertu dira eskubaloian erabilitako materialaren eta instalazioen ezaugarriak eta horiek erabiltzeko eta mantentzeko oinarritzko neurriak.
- d) Deskribatu dira eskubaloian aritzeko jateko ohiturak eta elikagai nagusiak.

Edukiak.

Eskubaloian aritzeko egoera fisikoa: ezaugarriak, faktore eragingarriak eta informazioa biltzeko tresnak:

–Eskubaloiko jokalariaen egoera fisikoan eta kirolean eragina izaten duten baldintza- eta koordinazio-faktoreen ezaugarriak.

–Eskubaloiko mugimen-jokabide espezifikoak: lekualdatzeak, jauziak, jaurtiketak, ukipen-egoerak eta zuzeneko aurkaritza-egoerak, bai eta horiek oinarriko prestakuntza fisikoarekin duten lotura ere.

–Egoera fisikoa lantzen hasteko diferentziak, sexuaren arabera.

–Informazioa biltzeko tresnak: landa-testa, baliabide errazak dituzten egoera fisikoko probak, balorazio funtzionaleko probak, galdetegiak, zuzeneko eta zeharkako behaketa.

–Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak, test errazak egiten direnean.

–Oinarritzko azterketa estatistikoak, datuen analisia eta interpretazioa, teknologia errazak erabiltzea eta egoera fisikoa hobetzearekin lotutako emaitzak interpretatzea.

–Kirol moduaren bilakaera eta kirolariari informatzeko estrategiak.

Egoera fisikoaren garapenerako saioak programatzea:

–Programazioa, egoera fisikoa hobetzeko eraginkortasun eta kalitate faktoretzat hartuta.

–Prestakuntza fisikoa entrenamenduaren oinarritzko egituran txertatzea (mikrozikloak, mesozikloak), sasoiaren unearen arabera (prestaketa-aldia, lehiaketa-aldia eta trantsizioa).

–Eskubaloian aritzeko egoera fisikoaren garapenerako helburuak, adin kronologikoaren eta adin biologikoaren arabera.

–Oinarritzko lan orokorraren eta prestakuntza fisiko espezifikoaren arteko loturak prestakuntzako etapetan duen garrantzia.

–Egoera fisikoa kontrolatzeko tresnak eta bitartekoak, hastapen eta hobekuntza etapetan:

- Erregistro-orriak, behaketa eta jarraipen plantillak, bilakaera grafikoak, etab.

–Adin horretan eskubaloian aritzeko egoera fisikoa entrenatzeko metodoak:

- Autokargak, muskuluen garapena, muskuluen arteko koordinazioa, erresistentzia mistoa, abiaduraren faktoreak, malgutasun globala, denboren arabera lanen integrazioa eta abar.

–Ariketa fisikoen izaera: orokorrak, zuzenduak, bereziak eta lehiaketakoak. Lan tekniko taktikoa eta egoera fisikoa integratzea.

–Entrenamenduko saio motak eta oinarritzko periodikotasuna, eskubaloia prestakuntza fisikoko beheko eta tarteko kategorietan.

–Hastapeneko eta hobekuntza fisikoko entrenamendu saioko kargen parametroak eta parametrook eskubaloira egokitzea.

–Kargak kontrolatzeko eta kuantifikatzeko sistemak, eskubaloia egoera fisikoa garatzeko metodoak aplikatzean.

–Entrenamendu integratua, prestakuntzan dauden kirolariekin lan egitea optimizatuko duten egoera zehatzetan baliabide erabilgarritzat hartuta.

Egoera fisikoaren garapenerako saioak diseinatzea eta zuzentzea:

–Egoera fisikoa garatzeko saioak antolatzea. Oinarrizko moduak: blokeka edo zirkuituan lan egitea, modu jarraituan edo zatikatuan, parrillan, zirkulu erdian, zirkuluan, zortzikoan, *groupingean*, etab.

–Eskubaloiko jokalariai ematen zaion informazioaren ezaugarriak, egoera fisikoko saio baten garapenean.

–Egoera fisikoko entrenamendu saioa, kontingentzia ohikoenak, balizko kausak eta hartu behar diren konponbideak: kirolariaren egoera indibiduala, praktikan giharretako edo artikulazioetako eragozpenak kudeatzea, espazio antolamenduaren dentsitatea, lan-denboren eta etenaldien kudeaketa eta abar.

–Eskubaloiko jokalariai egoera fisikoari buruzko saioen antolaketaren eta zuzendaritzaren kalitatea. Zer alderdi baloratu behar diren, saioen antolaketari eta zuzendaritzari buruzko informazioa biltzeko tresnak, erreferentziako irizpideak eta balorazioko irizpideak.

–Egoera fisikoa garatzeko saioak egiteko jarrera ona sustatzen duten estrategiak eta taldeko dinamikak.

–Egoera fisikorako saioa egitean teknikariek duten eginkizuna: antolaketa, zuzendaritza, prebentzio neurriak eta autoebaluazioa. Zer alderdi baloratu behar diren, informazioa biltzeko tresnak, erreferentziako irizpideak eta balorazioko irizpideak.

Kirol ohitura osasungarriak:

–Kirol zeinu teknikoa: egoera fisiko eta integratuak egiteko oinarriak.

–Eskubaloia tarteko mailetan modu desegokian egiteagatik sor daitezkeen lesioak.

–Eskubaloian aritzeko jarrera-ohitura egokiak.

–Egoera fisikoa entrenatzeko alde onak eta kontraindikazioak, eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapetan.

–Eskubaloian beroketa lantzeko eta berriro lasaitzeko protokolo espezifikoak.

–Lesioak prebenitzeko eta kirolaria berregokitzeko prestakuntza fisikoko programak aztertzea eta baloratzea:

- Muskulu multzo osagarrien lana, propiotzepzioa, erdigunearen indartzea edo Core, etab.

–Kirol material propioaren ezaugarriak: oinetakoak, baloi motak, lastoak, atezainaren ekipamendu espezifikoak, ezegonkortasuna sortzen duten gailuak, banda elastikoak eta abar.

–Instalazioak erabiltzea eta zaintzea; instalazioen erabilera bereziki zaintzea, errespetatzea eta optimizatzea, erretxina erabiltzea baimentzen den etapatik aurrera. Mantentze-lanaren arloko neurriak.

–Kirola eta elikadura. Kirolean egokiak diren elikagaiak:

- Karbono-hidratoak.
- Gantza.
- Proteinak.
- H₂O + gatz mineralak.
- Mikromantenugaiak.
- Beharrianak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honek tituluari dagokion lanbide profilaren berezko funtzioa betetzeko beharrezko prestakuntza ematen die ikasleei, helburu nagusia delarik honako egiteko hauetarako beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzea:

- Egoera fisikoak eskubaloian duen garrantzia baloratzea, eta mugimen-jokabide espezifikoa identifikatzea, sexuaren eta eboluzio etaparen arabera.
- Eskubaloian prestakuntza fisikoko zikloak, saioak eta ariketak sortzea eta planifikatzea, eta lan tekniko taktikoarekin lotzea.
- Eskubaloian egoera fisikoa garatzeko saioak zuzentzea, taldea zuzentzeko, antolatzeko eta kontrolatzeko teknikak eta neurriak aplikatuta.
- Eskubaloia berezko lesioak eta patologiak prebenitzeko ohitura higieniko osasungarriak sustatzea.

Garrantzitsua da ikasleek jakitea egoera fisikoa garrantzitsua dela eskubaloi-jokoaren garapenean.

Ikaskuntzaren emaitzak lortzeko edukien sekuentziazioari dagokionez, hauxe proposatzen da: eduki jakin batzuekin hastea, haien bidez, ikasleek beren errendimenduaren mende dauden mugimen-jokabide espezifikoa identifika ditzaten, sexuaren eta eboluzio-etaparen arabera; eta mugimenduaren oinarri anatomikoak eta fisiologikoak eta horietan esku hartzen duten energia sistemak aipatzea. Gero, komeniko litzateke egoera fisikoa garatzeko saioen programazioa lantzea, landu beharreko zikloak eta saioen diseinua eta zuzendaritza zehaztuta, eskubaloia berezko lesioak eta patologien prebentzioan laguntzeko; bai eta elikaduraren garrantzia ere ezagutzea.

Irakaskuntzaren metodologia kirol hastapenera egokitu behar da, eta aktiboa, globala eta edukietara egokitutakoa izan behar du. Metodologiaren bitartez sustatuko dira ikasleen ikaskuntza eta parte hartzea, ikaskuntzaren emaitzak lortzeko.

Horrela, eduki teoriko praktikoa duen modulu hau irakastean, komeniko litzateke eduki kontzeptualak beharrezko tresna gisa erabiltzea, ondoren eskubaloi jokoan gauzatzeko. Eduki teoriko horiek simulazio praktikoarekin batera erabiltzea proposatzen da. Hori dela eta, gomendatzen da, horiek egiteko behar diren baliabideez gain (kontrolerako tresnak eta bitartekoak), erregistro orriak, behaketa eta jarraipen txantiloak eta bilakaera grafikoak erabiltzea, datuen analisia eta ulermena errazteko. Era berean, interesgarria izanen litzateke ikasleak erkidegoan erreferentziakoak diren eskubaloiko taldeen entrenamenduetara eta partidetak joatea, moduluan ikasitakoa zuzenean ikusi ahal izateko, eta, horrekin batera, hitzaldi teoriko praktikotara ere joatea, hala nola nutrizionistek, psikologoek edo prestatzaile fisikoek emandako hitzaldietara.

Ebaluazio prozesuak jarraitua, prestakuntzakoa eta globala izan behar du. Horretarako, ikasleek zenbait gaitasun tekniko eta pertsonal eskuratu beharko dituzte, eskubaloia berezko lesioak prebenitzeko espezifikoa identifikatzeko eta eskubaloia berezko lesioak prebenitzeko espezifikoa identifikatzeko. Proba objektiboak erabili daitezke, baita edukien aplikagarritasuna ahalbidetuko duten proposamenak egitea ere: gelako taldean prestakuntza fisikoko saioak diseinatzea eta zuzentzea, saio praktikoa aztertzea, dieta orekatua diseinatzea eta aztertzea eta abar. Edozein dela ere erabilitako prozedura, gomendatzen da ikaskuntza-tresna gisa baliatzea eta proposatzea.

Komeni da irakaskuntza/ikaskuntza jarduerak moduluan aipatutako gaitasunak eskuratzera bideratuta egotea, betiere *Eskubaloia berezko prestakuntza teknika eta taktikoa* eta *Amaierako zikloko joko kolektiboa* moduluarekin koordinatuta.

Modulua: Hondartzako eskubaloiairen oinarrizko ezagutzak

Kodea: MED-BMBM205

Iraupena: 20 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Identifikatzen ditu jokoaren oinarrizko ezagutzak, hondartzako eskubaloiairen egiturazko elementuak eta elementu funtzionalak aztertuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Azaldu da hondartzako eskubaloiairen kirol-filosofiaren garrantzia, bai eta modalitate horren praktikaren bilakaera historikoarekin duen lotura ere.
- b) Deskribatu dira hondartzako eskubaloi jokoa baldintzatzen duten egiturazko elementuak.
- c) Aztertu dira harearen gainean landu diren funtsezko trebetasunen oinarrizko ezaugarriak.
- d) Deskribatu dira erregelamenduaren arabera mugak, hondartzako eskubaloiko lehiakidearen jarrerari buruz.
- e) Erakutsi dira hondartzako eskubaloian puntuatzeko moduak eta partiden azken emaitza erabakitzeko modua.
- f) Deskribatu dira sake motak eta horien gogoeta terapeutikoak.
- g) Azaldu dira aldaketak egiteko eremuak eta jokoan erabiltzeko aukerak.
- h) Deskribatu dira hondartzako eskubaloiairen arauak betetzen ez direnean aplikatu behar diren zehapen tekniko eta diziplina zehapen motak.
- i) Azaldu dira hondartzako eskubaloiairen nomenklaturari eta sinbologiari buruzko ezaugarri bereziak, eskubaloiairen nomenklatura eta sinbologia orokorraren eremuan.
- j) Ezarri dira hondartzako eskubaloiairen faseak eta fase bakoitzaren helburu partzialak.

2. Hondartzako eskubaloiairen eraso ekintza espezifikoak egitea baloratzen du, eta, horretarako, alderdi mekanikoak eta intentzionalak aztertzen ditu, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatzen ditu, eta kausekin lotzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira baloia garraiatzeko alderdi intentzionalak eta mekanikoak, eta jokalarien erregelamenduzko eskaeretara moldatu dira.
- b) Identifikatu dira baloia garraiatzeko balizko akatsak, baita kausak ere.
- c) Aztertu dira jokalarien erasoaldiko mugimendu espezifikoaren alderdi intentzionalak eta mekanikoak, eta jokalarien aldaketei buruzko erregelamenduzko eskakizunetara, akats ohikoenetara eta horien kausa posibleetara egokitzea ere aztertu da.
- d) Aztertu dira hondartzako eskubaloiairen alderdi mekanikoak eta intentzionalak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- e) Aztertu dira hondartzako eskubaloiko kontraeraso espezifikoaren oinarrizko alderdi intentzionalak, baita erregelamenduzko alderdiekin duten lotura ere.
- f) Aztertu dira taldearen erasoaldiko antolaketa kolektiboaren alderdi orokorrak, bai eta zenbakizko nagusitasunezko jokoan oinarritutako eraso sistema baten konfigurazioa ere.
- g) Baloratu da eraso ekintzak gauzatzean erregelamenduzko aukerak errentagarri bihurtzearen garrantzia.

3. Hondartzako eskubaloiaaren defentsa ekintza espezifikoa egitea baloratzen du, eta, horretarako, alderdi mekanikoa eta intentzionalak aztertzen ditu, horiek egitean egon daitezkeen akatsak identifikatzen ditu, eta kausekin lotzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu dira hondartzako eskubaloiaaren araudi espezifikoa erasotzaileen aurka egiteko zerreginean duen eragina eta mugak.
- b) Aztertu dira jokalarien defentsa mugimenduen alderdi mekanikoa, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- c) Aztertu da hondartzako eskubaloiko defentsa jokoan laguntzek eta lankidetzak duten eragina.
- d) Aztertu dira taldearen defentsaldiko antolaketa kolektiboaren alderdi orokorrak, bai eta zenbakizko nagusitasuneko jokoan oinarritutako eta lekuan zabal hedatutako defentsa konfigurazioa ere.
- e) Aztertu dira defentsan atzera biltzeko aukerak, erasoaren egituraren eta erregelamenduzko baldintzen arabera.
- d) Aztertu dira atezainak jaurtiketen aurrean esku hartzeko erabiltzen dituen oinarritzko teknikak, akats ohikoenak eta balizko kausak.
- g) Arrazoitu da hondartzako eskubaloian defentsa jokoak duen garrantzia.

Edukiak.

Hondartzako eskubaloiaaren oinarritzko ezagutzak:

- Hondartzako eskubaloiaaren historia eta filosofia.
- Jokalekuaren, ateen eta baloien neurriak eta ezaugarriak, hondartzako eskubaloian jokatzeak adin eta sexu kategorien arabera.
- Hondartzako eskubaloiaaren joko taldeen eta arbitroen osaera eta ekipamendua.
- Hondartzako eskubaloiaaren partiden iraupena eta egitura.
- Hondartzako eskubaloiaaren puntuazioa eta emaitzaren gaineko erabakia.
- Hondartzako eskubaloiaaren sakeak eta jaurtiketak egitea.
- Non jokatu. Hondartzako eskubaloiaaren jokalekuaren mugak.
- Hondartzako eskubaloiko jokalarien aldaketa eremuak.
- Aurkarietako jokabidea: hondartzako eskubaloiko jokalariek aurkarietara bete behar dituzten arauak eta mugak.
- Hondartzako eskubaloiko zehapen teknikoak eta diziplina zehapenak.
- Hondartzako eskubaloiko izenak eta ikur diferentzialak, eskubaloiaaren nomenklatura eta sinbologia.
- Hondartzako eskubaloiko jokoaren faseak.
- Hondarrean egindako mugimendu-trebetasunen ezaugarri espezifikoak.

Eraso egiteko ekintzak:

- Hondartzako eskubaloian baloia garraiatzeko modu espezifikoaren alderdi intentzionalak eta mekanikoa:
 - Baloia egokitzea.
 - Boterearen espezifikotasuna.
 - Aireko paseen erabilera.
 - Akatsak eta kausak.

–Hondartzako eskubaloiko jokalariek erasoaldian egiten dituzten mugimendu espezifikoen alderdi mekanikoak eta intentzionalak:

- Baloia edukita eta baloirik eduki gabe lasterketa egitea.
- Baloia edukita eta baloirik eduki gabe jauzi egitea.
- Baloia edukita eta baloirik eduki gabe biratzea.
- Postura kontrolatzea eta oreka mantentzea.
- Akatsak eta kausak.

–Hondartzako eskubaloiko jokalariek egiten dituzten jaurtiketen alderdi mekanikoak eta intentzionalak:

- Flight jaurtiketen funtsezko alderdiak.
- Airean aurretik bira eginda jaurtitzearen funtsezko alderdiak.
- Jokalariak jaurtiketa egin aurretik egiten dituen mugimenduak.
- Akatsak eta kausak.

–Hondartzako eskubaloien kontraeraso espezifikoa: oinarritzko alderdi intentzionalak:

- Jokalarien mugimenduak/lekualdatzeak (baloia edukita)/jokalarien aldaketak: aldi berean egiten diren hiru jarduera.
- Erregelamenduzko alderdiak.

–Hondartzako eskubaloiko erasoaldiaren antolaketa kolektiboaren oinarriak:

- Zenbakizko nagusitasuna dagoela eraso egitea, hondartzako eskubaloian espezifikoki.
- Hondartzako eskubaloiko eraso egiteko postu espezifikoen funtsezko ezagutzak:
 - Ertzeko jokalaria.
 - Pibotea.
 - Erdiko jokalaria.
 - Espezialista.

–Shoot out.

Defentsa egiteko ekintzak.

–Hondartzako eskubaloien erregelamenduaren alderdi espezifikoak, erasotzaileei aurka egiten behar zaienean.

–Markaketa. Zeregin hori mugatzen duten hondartzako eskubaloien erregelamenduaren alderdi espezifikoak.

–Hondartzako eskubaloiko jokalariek defentsa egiteko mugimenduak.

- Kontra flight.
- Kontra bira.

–Hondartzako eskubaloiko defentsaldiaren antolaketa kolektiboaren oinarriak:

- Hondartzako eskubaloiko defentsa egiteko postu espezifikoen funtsezko ezagutzak:
 - Erdiko jokalaria.
 - Kanpoko jokalaria.
- Egitura: eremu eraginkorra okupatzea eta erasotzaileak modu partekatuan kontrolatzea.
- Funtzionamendu kolektiboa: aurreikus daitezkeen laguntzak eta elkarlana.

–Defentsara biltzea: oinarritzko aldaketak eta alderdiak.

–Hondartzako eskubaloiko atezaina:

- Aldaketak egiteko eremuaren egoera eta arreta.
- Aldaketak.
- Kokapena eta posizioa, taldeak defentsa egiten duenean.
- Jaurtiketetan esku hartzeko oinarrizko nozioak.
- Atezainaren parte hartze erasotzailearen oinarrizko nozioak.

Orientabide didaktikoak.

Moduluan bildu dira hondartzako eskubaloiaaren funtsezko oinarriak ezagutzeko behar den informazioa, joko posizioak, aldaketak egiteko eremuak, araudiak eta abar.

Hondartzako eskubaloiak berezko arauak ditu, eta ez datoz bat pistako eskubaloiaaren arauekin; beraz, komeni da ikasleek, modulua amaitzean, besteak beste, bi modalitateen arteko aldeak bereizten jakitea.

Ikaskuntzaren emaitzei eta dagozkien eduki multzoei dagokienez, lehenengoan hondartzako eskubaloiaaren oinarrizko ezagutzak bildu dira, beraz, komeni da hasieran modulu hori ikastea. Bigarrena eta hirugarrena aldi berean landu daitezke, bata eraso egiteari buruzkoa da; eta bestea, defendatzeari buruzkoa. Biak bateragarriak dira, gai bakarra izanen balitz bezala.

Moduluan komeni da ikus-entzunezko baliabideak ere erabiltzea, partidak bistaratzeko eta, ondoren, aztertzeke.

Metodologiari dagokionez, kirol horren ezagutza teorikoak eta oinarrizko arauak landu ondoren, kirola praktikatzea proposatzen da. Hondartza batean modu “errealagoan” praktikatzerik ez badago, jokalekua edozein azaleratan simulatu daiteke, jokalekuaren eta ateen berezko neurriak kontuan hartuta. Hondartzarik ez duten lurraldeetan belar gainen praktikatu ohi dute kirol hori. Lesiorik ez izateko, komeni da jaurtiketak aurrez praktikatzea, gorputz posizioa eta erortzeko modua ongi menderatzeko.

Modulua ebaluatzeko proposatzen da ikasleek entrenamendu bat diseinatzea eta egitea, eraso eta defentsa bereizita, eta, ondoren, shoot-out saio bat gehitzea, eta azkenean partida baten simulazioa egitea.

Modulua: Gurpil aulkiko eskubaloia

Kodea: MED-BMBM206

Iraupena: 10 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Gurpil aulkiko eskubaloiko hastapen saioak antolatzen ditu, jokalarien gaitasun funtzionala deskribatzen du, eta materiala haien gaitasunetara eta araudi espezifikora egokitzen du, desgaitasuna duten eta ez duten jokalarien arteko kirolerako ingurune inklusibo batean.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira gurpil aulkiko eskubaloiko jokalarien sailkapen funtzionala eta balizko desgaitasun bereziak.
- b) Aipatu dira kirolean aritzean kontuan hartu beharreko prebentzio alderdiak eta alderdi osasungarriak.
- c) Ezagutarazi dira kirolerako gurpil aulkiaren ezaugarriak, zatiak eta neurriak.
- d) Azaldu dira jokalariai gurpil aulkian nola eseri behar duen azaltzeko gidalerroak, ezaugarrien eta beharren arabera.
- e) Aipatu dira gurpil aulkiko eskubaloiko arautegiaren aldaketa nagusiak, ohiko eskubaloiarekin erkatuta.
- f) Antzeman dira joko egoeretan gertatutako arau-hausteak, esku hartu da, eta jokalariai arau-haustearen arrazoia azaldu zaio.
- g) Aplikatu dira saioko ariketetan zenbait jarraibide, desgaitasuna duten eta ez duten kirolariek modu inklusiboan jokatzeko dutela bermatzeko.

2. Gurpil aulkiko jokalarien mugitzeko trebetasunak baloratzen ditu, baloiarekin eta baloirik gabe mugitzearen ezaugarriak identifikatuz eta zereginak ebaluatzen eta zuzentzeko teknikak aplikatuz.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira gurpil aulkiarekin egin ahal diren lekualdaketa desberdinak, baloia edukita eta baloirik gabe, heldulekuak, bulkadak eta jokalariaiaren posizioak.
- b) Jokalariai, baloia edukita eta baloirik gabe, gurpil aulkian lekualdatzeko irakaskuntza-ikaskuntzako zereginak deskribatu eta ebaluatu dira.
- c) Jokalariai gurpil aulkian lekualdatu eta baloia kontrolatzeko egin ahal dituen hainbat ekintza irakasteko eta ikasteko jarduerak deskribatu, gauzatu eta ebaluatu dira.
- d) Azaldu dira gurpil aulkian lekualdatu eta baloia kontrolatzeari buruzko alderdi teknikoak aplikatzeko jarduerak ludikoak.
- e) Jokalarien trebetasun teknikoak hobetzeko jarduerak diseinatu eta aplikatu dira, desgaitasuna duten eta ez duten ikasleak jarduerak horietan sartuz, joko inklusiboaren metodologiari jarraituz.
- f) Erakutsi da joko inklusiboko saioak egitearen aldeko jarrera.

3. Jarduera/zeregin/ekintza tekniko-taktiko erasokorrek eta defentsakoak baloratzen ditu, irakatsi eta ikasteko zereginak ebaluatzen eta zuzentzeko prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira banakako defentsaren oinarriak, jokalariaiaren posizioari eta aulkiaren defentsarako mugimenduei dagokienez.
- b) Diseinatu dira baloia garraiatzeko eta jaurtitzeko ekintzak irakasteko eta ikasteko zereginak, eta zereginaren konplexutasuna jokalariaiaren gaitasunetara egokitu da.

- c) Banakako defentsaren oinarriak identifikatu dira, jokalaria ren posizioari eta aulkiaren defentsarako mugimenduei dagokienez.
- d) Diseinatu dira defentsaren oinarriak bereganatzen irakasteko eta ikasteko zereginak, eta atazaren konplexutasuna jokalaria ren gaitasunetara egokitu da.
- e) Eraso eta defentsa egiteko trebetasunak gauzatzean ohikoenak diren akatsak deskribatu dira, bai eta izan ditzaketen kausak ere.
- f) Baloratu da gurpil aulkiko eskubaloia ren berariazko trebetasun teknikoak irakatsi eta ikasteko prozesuan metodologia, estrategia eta dinamika inklusiboak garatzearen garrantzia.
- g) Diseinatu dira erasoko eta defentsarako irakatsi eta ikasteko zeregin ludikoak.

4. Gurpil aulkiko eskubaloia ren erasoko eta defentsako oinarri taktiko kolektiboetan jokalaria balioresten eta horretan hasten laguntzen dio, irakatsi eta ikasteko zereginak diseinatzeko eta aplikatzeko, eta dagozkion zuzenketak egiten ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Gurpil-aulkiko eskubaloia ren berezko eraso oinarri taktiko kolektiboak ezagutu dira, jokalekuko jokalaria ren egoerari lotuta.
- b) Gurpil-aulkiko eskubaloia ren berezko defentsa oinarri taktiko kolektiboak ezagutu dira, jokalekuko jokalaria ren egoerari lotuta.
- c) Gurpil aulkiko eskubaloia ren erasorako eta defentsarako oinarri taktiko kolektiboak irakatsi eta ikasteko zereginak diseinatu eta ebaluatu dira.
- d) Oinarri taktikoak identifikatu dira benetako joko egoeretan, zuzenketak eginez eta errefortzu egokiak proposatuz.
- e) Baloratu da gurpil aulkiko eskubaloia ren printzipio taktikoak irakasteko-ikasteko prozesuan metodologia, estrategia eta dinamika inklusiboak garatzearen garrantzia.

Edukiak.

Gurpil-aulkian eskubaloian hasteko saioen antolaketa oinarriak, desgaitasuna duten eta ez duten jokalaria ren arteko praktika inklusiboko ingurune batean:

–Saillapen funtzionala:

- Jokalaria ren ezaugarri funtzionalak, puntu 1etik 4,5era.
- Desgaitasun motak (hezur muinekoak, anputazioak), prebentzio alderdiak eta osasuna.
- –Jokalaria ren rol nagusiak, saillapenaren arabera.

–Gurpil aulkiaren ezaugarriak:

- Motak, erregelamenduzko neurriak, eustea, kuxina.
- Gurpil aulkiko eskubaloia ren erregelamendu espezifikoak:
- 4 jokalaria ren modalitatea (4a eta 4b).
- 7 jokalaria ren modalitatea.
- Jokalekuaren eta atearen neurriak, modalitateen arabera.
- Joko denbora, golak lortzea eta markatzailea.
- Erregelamendutik kanpoko ekintzak: jokalekutik irtetea, progresio araua eta 3 segundoko araua, aurkaria rekiko portaera.
- Atezainaren ezaugarriak.
- Diziiplina zehapenak.

–Joko inklusiboa diseinatzeko printzipioak:

- Arauen egokitzapena.
- Baterako parte hartzearen irizpidea.

Gurpil aulkian lekualdatzearen ezaugarriak:

–Gurpil aulkian lekualdatzea:

- Mugimenduaren bultzada eta norabidea.
- Gurpil aulkia erabiltzeko jarduera ludikoak.
- Akatsak eta kausak.

–Baloia edukita lekualdatzea gurpil aulkian:

- Baloia edukita, egokitzeko eta aurrera egiteko moduak.
- Gurpil aulkia erabiltzeko eta baloia kontrolatzeko jarduera ludikoak.
- Akatsak eta kausak.

–Irakaskuntza eta ikaskuntzako zereginak egitea. Irizpideak.

–Lekualdaketen jarduera inklusiboak praktikatzeko metodologia.

–Gurpil aulkiko eskubaloi inklusiboan aritzeko arauen egokitzapena.

Erasoko eta defentsarako jarduerak/zereginak/ekintza tekniko-taktikoak:

–Erasoaldiaren funtsak:

- Baloia garraiatzea.
- Abiaraztea.
- Akatsak eta kausak.

–Defentsaren funtsak:

- Egoera, aulkiaren orientabidea eta posizioa, erasotzailearen arabera, baloia edukita zein ez.
- Aurkariarekiko portaera.
- Akatsak eta kausak.

–Irakaskuntza eta ikaskuntzako zereginak egitea. Irizpideak.

–Baloia garraiatzeko, jaurtitzeko eta defendatzeko banakako ekintzak jarduera inklusiboetan egiteko metodologia.

–Baloia garraiatzen, jaurtitzen eta banakako defentsak egiten ikasteko jarduera ludikoak.

Gurpil aulkiko eskubaloian eraso eta defentsa egiteko ezagutza taktikoetan jokalaria balioestea eta horretan hasten laguntzea.

–Gurpil aulkiko eskubaloiko joko erasotzaile kolektiboa:

- Espazioen okupazioa.
- Nagusitasuna sortzea.
- 4 eta 7 jokalaria modalitatearen araberako berezitasunak.
- Balorazio irizpideak.

–Baliabide taktiko erasotzaileak kateatzea.

–Gurpil aulkiko eskubaloiko joko erasotzaile kolektiboa:

- 4 eta 7 jokalaria modalitateetan jokalaria kokatzea.
- Balorazio irizpideak.

- Irakaskuntza eta ikaskuntzako zereginak egitea. Irizpideak.
- Gurpil aulkiko eskubaloian aritzeko praktika inklusiboaren metodologia.
- Jokoaren benetako egoerak. Zuzenketak eta errefortzuak.

Orientabide didaktikoak.

Moduluan bildu da honako hauek egiten jakiteko prestakuntza: ikasleak gai izan daitezen desgaitasunen bat duten pertsonekin kirol hastapeneko saioak antolatzeke eta praktikara eramateko, desgaitasunen bat duten eta ez duten jokalarien arteko praktika inklusiboko ingurune batean, eta jokalarien sailkapen funtzionala (jokalaria ezaugarri funtzionalak, desgaitasun motak) eta rol nagusiak ezagutzeko. Era berean, gurpil aulkiko eskubaloia arau bateratuekin ohitzea, baloia edukita zein ez lekualdatzearen ezaugarriak identifikatzea, gurpil aulkiko eskubaloian eraso eta defentsa egiteko oinarri taktikoetan hastea eta erasotzeko eta defendatzeko jardura eta ekintza tekniko taktikoak baloratzea.

Ikaskuntzaren emaitzei dagokienez, lehenengo emaitzan alderdi funtzionalei buruzko eduki teorikoak, ezaugarri materialak, erregelamendua eta arauak egokitzea. Bigarren ikaskuntza emaitzan bildu den edukia teoriko-praktikoa da, eta lehentasuna eman zaie jardura ludikoei eta ikasleek protagonismoa hartzen duten jardurei. Ikaskuntzaren hirugarren eta laugarren emaitzetako edukia funtsean metodologikoa da, alderdiak benetako egoeretatik hurbilago daude, eta saio zein jardura dinamikoagoak sustatzen dira, ikasleen inplikazioa eta parte-hartzea kontuan hartuta.

Edukiak pixkanaka ematea proposatzen dugu, orokorretatik (teorikoagoak dira) abiatzea eta gurpil-aulkiko eskubaloiko espezifikoetara, teknikoetara edota taktikoetara pasatzea, moduluan ezarritako ordenari jarraituz, benetako joko-egoerak aplikatuta, zuzenketak eginda eta errefortzu egokiak proposatuta.

Komeni da International Wheelchair Handball Federation (IWHF) federazioak gurpil aulkiko eskubaloia arau bateratuei buruz argitaratu duen dokumentua erabiltzea. Dokumentu horretan moduluari buruzko edukiak zehaztu eta lantzen dira.

Honako baliabide hauek erabiltzea proposatzen dugu:

- Ikus-entzunezko bitartekoen bidez, edukiak praktikan behatzea eta aztertzea.
- Desgaitasun zentroak bisitatzea.
- Saioen gaineko unitate didaktikoak prestatzea.
- Gurpil aulkiko eskubaloiko trebetasun tekniko taktiko espezifikoak aplikatzeko saio praktikoa.

Gainera, komeni da balio anitzeko gelan, gimnasioan eta kiroleko pistan jarduerak egitea, saioak edukien arabera txandakatuta.

Proposatzen egiten da talde txikietan jarduerak egitea, saio eta ariketa tekniko eta taktiko espezifikoak planteatzea eta egitea, ikasteko jolas jarduerak eta gurpil aulkian dauden ikasleek kiroleko pistan praktikak egitea.

Moduluaren ebaluazioari dagokionez, komeni da hasierako ebaluazio bat egitea, ikasleek moduluaren edukiei buruz izan ditzaketen aurretiazko ezagutzak baloratzeko. Komeni da moduluaren eduki teorikoa berenganatu duten eta ikaskuntzak egoera praktikotara aplikatzeko gai diren ebaluatzea.

Horrela, eraso eta defentsa egiteko jarduerak, zereginak eta ekintza tekniko taktikoak ebaluatzea proposatzen da, ikasleek gurpil-aulkian eskubaloian hasteko saioak eginez, jokalarien gaitasun funtzionala deskribatuz eta ariketak benetako joko egoeretan aplikatuz.

Bestalde, komeni da litzateke test motako azterketak edo galdera laburrak egitea, bai eta kasu praktikoa ebaztea eta azaltzea ere, eraso eta defentsa egiteko joko kolektibo koordinatuaren elementuak eta alderdi taktikoak integratuta.

Prozedurazko eta jarrerazko alderdiak ebaluatzeke, funtsezkoa da ikasleek ikasgelan egin duten lanaren emaitzak kontuan hartzea, bai eta autoebaluazio hausnartua egitea ere. Horretarako, irakasleek haien progresioaren jarraipena egiten dute, taldeka zein banaka.

Orientazio gisa, eskubaloiaari buruzko modulua indartu eta osatu dezake hasierazko zikloko jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna lantzen duen modulu komunak; beraz, komeniko litzateke modulu horiek irakasten dituzten profesionalen arteko koordinazioa sustatzea.

Modulua: Kirol zuzendaritza, teknifikazio etapan

Kodea: MED-BMBM207

Iraupena: 20 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Hastapen eta teknifikazio etaparen berezko ekitaldiak antolatu eta kudeatzen ditu, ekitaldiok eraikitzeo, abian jartzeko, garatzeko eta baloratzeko prozedura egokiak aplikatuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Aztertu da eskubaloiko hastapenak eta teknifikazioa sustatzeko kirol-ekitaldiaren proiektua bideragarria den, aurrekontua kontuan hartuta.
- b) Aztertu dira eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapako ekitaldi baten oinarritzko antolamendu ezaugarriak, araudia eta administrazio eskakizunak, eta lortu nahi diren helburuekin lotu dira.
- c) Eskubaloian sustatzeko, hasteko eta teknifikatzeko kirol ekitaldi baten kostuak baloratzeko aurrekontu bat prestatu da, finantzaketa iturriak identifikatuta eta babesleen kudeaketa zehaztuta.
- d) Sailkatu dira eskubaloiko hastapen eta teknifikazio etapetan jarduera edo ekitaldi bat antolatzeo eta kudeatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta baliabideok lortzeo aukerak.
- e) Behar bezala ezaugarritutako hastapen eta teknifikazio ekitaldi bat antolatzeo eta kudeatzeko praktikaldi bateko zereginen sekuentzia bat egin da, eta, bertan, helburuak eta zer etapari zuzenduta dauden ezarri da.
- f) Jarduera garatu bitartean balizko ezusteak sailkatu dira, eta balizko irtenbideak ere identifikatu dira.
- g) Balioetsi da kirol klub baten garrantzia, kirol praktika sustatzeko elementua den aldetik.
- h) Azaldu dira eskubaloiko teknifikazio etapan ekitaldi propioen kudeaketari aurre egiteko portaera mota eta jarrera.
- i) Deskribatu dira informazioa biltzeo tresnak eskubaloi lehiaketen antolaketa eta logistika alderdiak aztertzeo eta kontrolatzeko.
- j) Aztertu da eskubaloiko ekitaldi eta modalitateko lehiaketen garapen teknikoari eta logistikoari buruzko informazioa.
- k) Deskribatu dira modalitateko ekitaldien garapen tekniko eta logistikoari buruzko txostenen ezaugarriak.
- l) Informazioaren bilketa eta azterketa justifikatu dira, ekitaldi eta lehiaketen antolaketan etengabeko hobekuntza izateo oinarri gisa.

2. Eskubaloiko jokalarien kirol talentuak aurkitzeo eta aukeratzeko prozesuan laguntzen du, halakoak aurkitzeo eta aukeratzeko sistemen eta programen ezaugarriak aztertuta eta tekniko espezifikoak aplikatuta.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu dira eskubaloiko talentuak hautemateko eta hautatzeko erabilitako irizpideak, eta jokalariaen garapen etapetako errendimendu ezaugarrien balorazio desberdina identifikatu da.
- b) Deskribatu dira eskubaloian talentuak aurkitzeo eta aukeratzeko programen printzipioak.
- c) Deskribatu dira eskubaloiko talentuak hautemateko eta hautatzeko programetan modalitateko kirol teknikariaren funtzioak eta jardun protokoloa.

- d) Aztertu dira eskubaloiko talentuak hautemateko eta hautatzeko praktikaldiko programa batean behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.
- e) Baloratu da errendimendu handiaren lorpenean, kirol talentua goiz aurkitzearen garrantzia.
- f) Arrazoitu da pertsonaren garapena errespetatzearen beharra eskubaloian kirol talentuak aurkitzeko eta aukeratzeko prozesuan.

3. Eskubaloi hastapenean beste kirol teknikari batzuen jarduera koordinatzen du, hastapeneko taldeen eta ekitaldien zuzendaritzan teknikarien funtzioak aztertuta, eta eskubaloiko eskola edo nukleo baten egitura bereizita.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira eskubaloiko teknikariak egiten dituen modalitateko ikastaroak, ekitaldiak eta lehiak koordinatu edo zuzentzeko funtzioak.
- b) Identifikatu dira eskubaloian hasteko etaparako teknikariak hautatzeko prozedurak.
- c) Zehaztu dira eskubaloi ikasketaz arduratzen diren teknikariek koordinatzeko eta komunikatzeko prozedurak.
- d) Deskribatu dira eskubaloiko ikastaro, ekitaldi eta lehiaketetan teknikariek egin behar dituzten zereginak.
- e) Identifikatu dira eskubaloiko hastapeneko talde, ekitaldi eta lehiaketetan zereginak teknikari taldearen artean banatzeko irizpideak.
- f) Deskribatu dira eskubaloiko hastapen etapetan teknikarien taldearen artean aldaketak, beharrak edo gorabeherak komunikatzeko prozedurak.
- g) Barneratu da talde teknikoak koordinatu beharra, eskubaloiko hastapenean jarduerak, ekitaldiak eta taldeen zuzendaritza praktikan jartzeko bitarteko eraginkor eta efiziente gisa.
- h) Baloratu da eskubaloiko hastapenean lantaldeak jarduerak, ekitaldiak eta taldeen zuzendaritza diseinatzeko eta praktikan jartzen parte hartzearen garrantzia.

4. Taldea eraikitzen du, eta teknifikazio etapako entrenamenduan eta lehiaketetan zuzentzen du, erregelamenduzko alderdiak identifikatzen ditu, taldearen dinamikari lotutako faktoreak interpretatzen ditu, eta etapa horretako zuzendaritza estrategia espezifikoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Deskribatu da teknifikazio etapan eskubaloiko lehiaketei aplikatu ahal zaien araudia.
- b) Identifikatu dira lehiaketari lotutako jokoaren erregelamenduzko alderdiak.
- c) Identifikatu dira eskubaloian buruzko diziplina alderdiak.
- d) Baloratu da teknifikazio etapan lehiaketak duen garrantzia, prestakuntzako prozesuaren elementutzat hartuta.
- e) Aztertu dira taldeko kideen ezaugarri psikologikoak, teknifikazioari lotutako adinaren berezko ezaugarriari lotuta.
- f) Aztertu dira eskubaloiko teknifikazio etapan taldean entrenatzailearekin eta ingurunearekin ezartzen diren harremanak.
- g) Identifikatu dira eskubaloiko teknifikazio etapako lehiaketaren zuzendaritzan azpimarratu behar diren jokoaren alderdi indibidualak eta kolektiboak.
- h) Ezaugarritu dira eskubaloiko teknifikazio etapako lehiaketak zuzentzeko estrategiak.
- i) Talde bat zuzendu da, portaera eta esku hartzea lehiaketaren garapenera egokituta, eskubaloiko partidaren praktikaldi batean, behar bezala ezaugarrituta, non zuzendaritza egoera ohikoenak simulatu baitira.

Edukiak.

Hasierako eta teknifikazio etapako eskubaloi ekitaldien antolaketa eta kudeaketa:

–Kirolaren arloko erkidegoko zein tokiko erakundeak.

–Kirol ekitaldiak finantzatzeko bideak: diru-sarrera berekiak, zeharkako diru-sarrerak, erakunde publikoen dirulaguntzak:

- Kirol ekitaldietarako laguntza eta dirulaguntza motak eta modalitateak. Tramitzatzeko prozedura.
- Administrazioarekiko elkarlan hitzarmenak: protokoloak, klausulak eta eranskinak.
- Kirolerako babesak. Motak eta lotutako araudia.

–Oinarrizko lan esparrua:

- Langileen kontratazioa.
- Oinarrizko segurtasun eta prebentzio irizpideak.

–Antolaketa estrategikoaren oinarrizko alderdiak:

- Inguruaren azterketa.
- Helburuak ezartzea.
- Ekitaldien diseinua.
- Programak egitea eta zuzentzea.
- Ebaluazioa eta jarraipena.

–Eskubaloiko ekitaldi bat teknifikazio etapan antolatze eta kudeatzeko giza baliabideak eta materialak.

- Marketin eta komunikazio arloa.
- Protokoloa eta harreman publikoak.
- Logistikaren eremua.
- Azpiegituren arloa.
- Teknikaren eta kirolaren arloak.
- Ekonomiaren eta administrazioaren arloa.
- Arlo juridikoa.
- Osasunaren arloa.

–Komunikazio estrategiak eta oinarrizko baliabideak.

- Sare sozialak.
- Web-orriak eta blogak.
- Buletinak (newsletter-ak) bidaltzea.
- Kartelak, komunikabideetako eta Interneteko iragarkiak.

– Informazioa biltzeko tresnak.

–Txostenak egitea.

Kirol talentuak aurkitzeko eta aukeratzeko programak.

–Eskubaloiko talentuak aurkitzeko eta aukeratzeko irizpideak:

- Talentuak ongi detektatzearen eta aukeratzeko garrantzia.
- Eskubaloiko kirol talentuak aurkitzeko eta aukeratzeko prozesua.
 - Hartzea.

- Detektatzea.
- Hautaketa.
- Hobekuntza.
- Balioak balioesteko irizpideak:
 - Antropometrikoak.
 - Baldintzatzaileak.
 - Koordinazioaren arlokoak.
 - Adimen taktikoa.
 - Psikologikoak eta sozialak.

–Talentuen detekzioaren azterketa balorazioa egiteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

–Balioak neurtzeko eta balioesteko jardun protokoloak.

–Talentuak detektatzeko eta aukeratzeko informazioa egitea eta banatzea.

Teknifikazio etaparen antolaketa.

–Ezagarriak, gaitasunak eta kirol taldean hasierako etapan lan egiten duten teknikarien arteko harremanak:

- Kluben, eskolen eta beste zentro batzuen teknifikazio-etapako organigramak.
 - Kirol arloa:
 - Zuzendaritza teknikoa.
 - Kirolaren arloko koordinazioa.
 - Entrenatzaileak eta monitorea.
 - Jokalariak.
 - Arlo soziala:
 - Burua.
 - Buruordea.
 - Baliabide materialetako arduraduna.
 - Komunikazioaren arloko arduraduna.
 - Arlo ekonomikoa.
 - Administraria - Idazkaria.
 - Instalazioak ongi mantentzeko arduraduna.
- Kluben, eskolen eta beste zentro batzuen teknifikazio etaparen funtzionamendua eta antolaketa.
 - Kirol proiektua.
- Oinarrizko araudia eta legeria.

–Hasiera etapako teknikariak aukeratzea:

- Teknikarien funtzioak eta profilak.
- Eskubaloiko entrenatzaileen mailak eta lehiaketekiko korrespondentzia.
- Hautaketa irizpideetako oinarrizko ideiak.
- Hautatze prozesuetako oinarrizko ideiak.

–Taldea ikasteko eta zuzentzeko prozesuan zereginak eta rolak esleitzea, eskubaloia hastapen etapan.

–Hastapen etapako jarduera bat antolatzeke zereginak eta rolak esleitzea.

–Klubeko, eskolako eta eskubaloiko nukleoko teknikariek komunikatzeko oinarritzko ezagutzak.

Teknifikazio etapako talde bat zuzentzea:

–Erregelamendua eta araudia:

- Lehiaketaren ezaugarriak, teknifikazio etapan.
- Teknifikazio adineko lehiaketaren araudia.
- Jokoaren erregelamendua.
- Diziplina araubideari buruzko erregelamendua.

–Eskubaloiko taldea:

- Taldeko jokalarien ezaugarri psikosozialak baloratzea teknifikazio etapan.
 - Ezaugarri psikologikoak.
 - Ezaugarri sozialak.
 - Familia, gizarte eta kirol ingurunearen elementuak.
- Kirol taldea, teknifikazio etapan.
 - Taldearen sarrera.
 - Taldeko arauak ezartzea.
 - Aldaketara moldatzea.
 - Talde osorako helburuak ezartzea.
 - Taldearen amaierako fasea.

–Entrenamenduaren eta lehiaketaren zuzendaritza:

- Taldea teknifikazio etapan zuzentzeko estrategiak:
 - Jokalaria eta taldea.
 - Zereginaren zuzendaritzaren eta ezaugarrien arteko erlazioa.
 - Aurretiko gidalerroak.
 - Partida bitarteko komunikazioa. Hutsarteak.
 - Lehiaketaren ondoko emaitzak ezagutzea.
- Lehiaketa, eskubaloiko jokalaria garatzeko funtsezko baliabide hartuta.

Orientabide didaktikoak.

Modulu hau bideratu dugu ikasleak hauexek egiteko gai izan daitezen:

–Klubaren antolaketan parte hartzea eta laguntzea (antolaketaren oinarritzko alderdiak).

–Lan esparrua ezagutzea.

–Eskubaloiko ekitaldiak antolatzea, dagokien araudia kontuan hartuta.

– Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak aztertzea.

–Kirol talentuak detektatzen eta hautatzen parte hartzea, eta haien ezaugarriak aztertzea.

–Beste kirol teknikari batzuen jarduera koordinatzea, kirol sistema integratzen laguntzeko.

–Eskubaloiko teknifikazioaren arloko lehiaketak antolatzen laguntzea.

–Jokalaria talde bat kudeatzeko, teknikarien taldeko kidea izateko eta partidak lehiaketetan zuzentzeko gai izatea.

Irakaskuntzaren metodologia teknifikazio etapa horretara egokitu behar da, eta aktiboa, globala eta edukietara egokitutakoa izan behar du. Metodologiaren bitartez sustatuko dira ikasleen ikaskuntza eta parte hartzea, ikaskuntzaren emaitzak lortzeko.

Ikaskuntzaren emaitzak lantzeko orduan, edukien aurkezpen ordenari jarraitzea iradokitzen da. Horren harira, komeniko litzateke 2. ikaskuntzaren emaitza (talentuak hautatzeko eta hautemateko prozesuari buruzkoa) azkena izatea, hau da, gainerakoak landu ondoren, horri heltzea. Horiek horrela, lehenik eta behin, ekitaldien antolaketari eta kudeaketari buruzko alderdi teorikoak eta praktikoak lantzea iradokitzen da, bai hastapen etapan, baita teknifikazio fasean ere. Ondoren, ikaskuntzaren hirugarren emaitzan beste kirol teknikari batzuekiko lankidetzaren eta koordinazioaren eremuan sartuko gara, eta laugarrena teknifikazio etapan talde bat eraikitzean eta zuzentzean oinarritzen da. Azkenik, ikaskuntzaren bigarren emaitzan eskubaloiko talentuak detektatzeko eta hautatzeko oinarritzko irizpideei erreferentzia egiten zaie.

Komeni da ikasleen parte-hartze handiko metodologia erabiltzea, eta lehenetasuna emateko benetako egoerei. Kontzeptuen zatiaren bidez ezagutzak eskuratuko dira, eta gomendatzen dugu alderdiri praktikoen arazo-egoeren eta errealtatean aurki daitezkeen agertokietan konpondu beharreko erronken bidez planteatzea.

Horrela, proposatu egiten da Ikasleei modu esanguratsuan ikasteko aukera emanen dien metodologia erabiltzea, pentsa ez dezaten zerbait abstraktua eta analitikoa ikasten dutenik, baizik eta helburu argi eta benetakoa duen ikaskuntza dela. Era berean, komeni da talde lana sustatzea eskubaloiko ekitaldien antolaketarekin eta kudeaketarekin eta lehiaketetako partiden zuzendaritzarekin zerikusia duten arazoei irtenbideak bilatzeko. Komeni da ikasteko prozesuan ikasleak izatea gaitasunen protagonista, banaka zein taldeka.

Ikasleek inguruko antolaketarekin jokatzeko ikas dezaten, honelako jarduerak iradokitzen dira:

–Erkidegoko edo estatuko beste kirol klub batzuen web-orriak bistaratzea.

–Autonomia erkidegoko araudia praktikaldiko saioetan aplikatzeko ariketak.

–Egoerak simulatzeko ariketak, entrenamenduen eta lehiaketaren arabera.

–Eskubaloiko kirol ekitaldiak antolatzeko eta garatzeko erreferentziako dokumentuen aurkezpena.

Ebaluazioari dagokionez, garrantzitsua da gaitasun teknikoak eskuratzea eta gaitasun pertsonalak eta sozialak ebaluatzea. Lehenengoei dagokienez, komeni da proba objektiboak eta jarduera praktikoak egitea, eduki kontzeptualak aplikatzeko. Gaitasun sozialen eta pertsonalen garapena baloratzeko, behaketa tresnak erabiltzea proposatzen da, ikasleek saioetan izan duten bilakaera ezagutzeko. Hala ere, edozein dela ere erabilitako prozedura, ahal den guztietan, komenigarria da ikasteko tresna gisa erabiltzea, batez ere, jarrerari lotutako alderdiak ebaluatu behar direnean.

Modulu honek azkena lantzen izan behar du eskubaloien berariazko multzoaren ordenan; izan ere, besteak oinarritzat hartzen ditu, eta bukaera ematen dio prozesuari.

Modulua: Prestakuntza praktikoa

Kodea: MED-BMBM208

Iraupena: 210 ordu

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak.

1. Praktiketako kirol zentroaren (kluba, federazioa, eskola, enpresa eta abar) antolaketa egitura eta funtzionamendua identifikatzen ditu, haren jarduera eskaintzarekin erlazionatzen ditu (espezializazioa, kirol teknifikazioa eta eskubaloia hobekuntza teknika eta hori kudeatzeko jarduerak), eta segurtasun prozedurak eta protokoloak aplikatzen ditu horiek praktikan jartzean.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira praktiketako kirol zentroaren eta Espainiako Eskubaloien Federazioaren arteko harremanak.
- b) Identifikatu dira praktiketako kirol zentroaren antolaketaren egitura eta funtzionamendua.
- c) Identifikatu dira praktiketako kirol zentroaren barneko harreman hierarkikoak.
- d) Identifikatu dira hondartzako eskubaloian eta eskubaloian kirol teknifikazioari eta hobekuntza teknikoari lotutako jardueren eskaintza.
- e) Identifikatu dira praktiketako kirol zentroak erabilitako finantzaketa bideak.
- f) Bereizi da emakumeei zuzendutako eskubaloia espezializazioa, kirol teknifikazioa edota hobekuntza teknika bideratutako jardueren eskaintza.
- g) Egindako jardueretan ingurumenaren errespetuzko jarrera argia erakutsi da, eta hari lotutako barne eta kanpo arauak aplikatu dira.

2. Lanpostuan autonomiaz, ekimenenez eta erantzukizunez jokatzeko du, jokabide etikoa, komunikaziorako abilezia pertsonalak, taldeko lana eta instalazioekiko errespetua erakusten ditu, eta praktiketako kirol zentroak ezarritako prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira lanpostuaren jarrera beharrezkoak.
- b) Jasotako jarraibideak interpretatu eta bete dira, eta esleitutako lanaren ardura hartu da.
- c) Konpromisoa erakutsi da lana ongi egiteko eta kalitatezko zerbitzua emateko, baita kirol klub edo entitatearen prozedura eta printzipioekiko errespetua ere.
- d) Taldean lan egiteko gaitasuna erakutsi da, eta kirol klubean edo kirol erakundearen ezarritako hierarkiaren eta arlo guztietako profesionalen errespetua erakutsi du.
- e) Ezarri dira jarduerak bakoitzeko arduradun teknikoarekin eta taldekideekin komunikazioa eta harreman eraginkorrak, eta tratua atsegin eta adeitsua eman zaie.
- f) Taldeko gainerako kideekin koordinaturik lan egin da, eta eman zaie jardueran gertatzen den aldaketa, behar garrantzitsu edo ustekabeko ororen berri.
- g) Lanbidean aritzean, irudi pertsonalaren eta balio etiko eta profesionalen arreta eta erantzukizuna erakusten du.

3. Kirol teknifikazioaren praktikarako segurtasuna kontrolatzen du eskubaloian, erabilitako instalazioak eta bitartekoak gainbegiratzen ditu, arauak interpretatzen ditu, eta prozedurak eta protokoloak aplikatzen ditu, ezarritako arau eta jarraibideekin bat.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu dira praktiketako kirol zentroaren instalazioetako segurtasuneko oinarriko alderdiak eta larrialdi eta ebakuazio planak, baita aplikatzeko den araudiaren egokitzapena ere.

- b) Identifikatu dira praktiketako kirol instalazioetako segurtasunari aplikatzeko arauak.
- c) Segurtasun arloko seinaleztapen neurriak, ekintza antisozialen eta kiroleko indarkeriaren kontrakoak eta eskubaloiko kirol instalazioko larrialdi eta ebakuazio planak aplikatu dira, ezarritako jarraibide eta araei jarraikiz.
- d) Norberaren, lan taldearen eta erabiltzaileen segurtasuna aintzat hartuz jokatu da, indarreko araudiari eta praktiketako kirol zentroan ezarritako protokolei jarraikiz.
- e) Eskubaloiko kirol teknifikazioak berezko dituen laneko arriskuko prebentzio ekipoak aplikatu edota erabili dira.
- f) Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Legearen funtsezko alderdiak aplikatu dira, eskubaloien hastapenetako jarduera, lehiaketa eta ekitaldiei dagokienez.
- g) Eskubaloiko kirol instalazioan ingurumena babesteko neurriak identifikatu dira, baita indarreko araudiarekiko egokitzapena ere.
- h) Eskubaloiko material espezifikoak, jantziak eta osagarriak erabiltzeko behar diren prebentzio-neurriak identifikatu eta aplikatu dira, jokalariren segurtasuna eta osasuna bermatzeko, eta kirol gorabeheren edo lesioen arriskua minimizatzeko.

4. Kirolariak antolatzen eta zuzentzen ditu, eta lagun egiten die, eskubaloiko eta hondartzako eskubaloiko kirol teknifikazioko jardueretan, lehiaketetan eta bestelako ekitaldietan parte hartzen dutenean. Horretarako, kirol etikaren berezko jarrerak eta balioak transmititzen ditu, pertsonalak eta sozialak: besteei errespetua, bere burua eta ingurua zaintzea, joko garbia eta elkarlana.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Taldeari izena eman zaio hondartzako eskubaloiko eta eskubaloiko kirol teknifikazioko lehiaketa batean, ezarritako protokolo eta arauekin bat etorrira.
- b) Lehiaketa batean parte hartzen duen eskubaloi talde baten istripu eta jarduera aseguruak kudeatzeko eragiketak egin dira, jasotako jarraibide eta arauekin bat.
- c) Ezagutu eta justifikatu da teknikari batek erantzukizuna duela lehiaketa batera joateko taldearen lekualdatzeetan.
- d) Kirol teknifikazioko lehiaketa batean parte hartzen duen hondartzako eskubaloiko eta eskubaloiko talde baten bidaia plana egin da, ezarritako jarraibide eta prozedurak aplikatuta.
- e) Taldearen lege estaldura egiaztatu da, lehiaketan parte hartzean, ezarritako araudiarekin bat.
- f) Jokalariei lehiaketaren ezaugarrien berri eman zaie, eta horri buruzko dokumentazioa interpretatu du.
- g) Aplikatu dira eskubaloiko eta hondartzako eskubaloiko kirol teknifikazioko lehiaketa batean erreklamazio prozedurak, ezarritako protokoloak eta arauak aplikatuta.
- h) Aplikatu dira eskubaloien exekuzio tekniko taktikoa balioesteko irizpideak, kirol teknifikazioko mailari dagozkion behaketa teknikak eta prozedurak baliatuta.
- i) Kirol teknifikazioko lehiaketan jarraibide teknikoak eta taktikoak helarazi zaizkio taldeari, lehiaketaren eta jokalarien ezaugarriak kontuan hartuta.
- j) Kirolariei lagundu zaie txapelketetan, ezarritako jarraibide eta arauekin bat.
- k) Zaindu da joko garbiaren balioak, norberaren osasuna eta beste jokalariek errespetatzea eskubaloiko eta hondartza eskubaloiko kirol teknifikazioko lehiaketan parte hartzean, prozedura egokiak aplikatuta eta haren arauak errespetatuta.

5. Hondartzako eskubaloian eta eskubaloian oinarritzko entrenamenduko, hobekuntza teknikoko eta hastapeneko saioak egokitzen eta zehazten ditu, jasotako informazioa interpretatzen du, teknikak

eta prozedurak ezarritako jarraibideen eta arauen arabera aplikatzen ditu, eta talentuak hautemateko teknikak aplikatzen laguntzen du.

Ebaluazio irizpideak:

- a) Identifikatu eta aukeratu dira jarduera garatzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak.
- b) Kirolariari harrera egin zaio, ezarritako protokoloari jarraituta eta haren eskaerak eta beharrak identifikatuta.
- c) Eskubaloiko eta hondartzako eskubaloiko kirol teknifikazioaren mailari dagokionez, kirolariarentzat egokiak diren balorazio teknikoko eta baldintza eragileko teknikak eta protokoloak aplikatu dira, eta haien hasierako egoera, proposatutako helburuen lorpen maila eta egindako akatsak baloratu dira.
- d) Helburu teknikoak eta mugimenduaren arloko egoera prestatzeko helburuak identifikatu eta aukeratu dira, oinarri harturik kirol zentroaren erreferentziako programazioa.
- e) Eskubaloiko eta hondartzako eskubaloiko oinarritzko entrenamendu saioetan eta hobekuntza teknikoko saioetan, jokalaria baten edo talde baten entrenamendu karga kontrolatzeko eta kuantifikatzeko protokoloak aplikatu dira.
- f) Hondartzako eskubaloien eta eskubaloien berezko talentuak hautemateko protokoloak eta prozedurak aplikatzen lagundu da.
- g) Kirol teknifikazioaren arloko segurtasun baldintzak ezarri dira, jarraibideak eta arauak interpretatzen dira, eta ezarritako prozedurak aplikatu dira.
- h) Jokalaria baten edo talde baten ziklo edo etapa bat osorik prestatzeko plangintza egin da, kirol-zentroaren erreferentziazko programazioan oinarrituta, eta jokalarien eta kirol-taldearen ezaugarrietara egokituta. Zehatz-mehatz, honako hauek:
 - Prestaketaren edota lehiaketaren helburuak.
 - Entrenamendurako edukiak aukeratzea eta sekuentziaztea.
 - Lan karga eta lanaren dinamika antolatzea plangintzan ezarritako zikloetan.
 - Entrenamendurako metodoak eta baliabideak.
 - Ebaluazio, jarraipen, kontrol eta egiaztapen tresnak.
 - Entrenamendu saioak diseinatzea.
